ZU HEMEN ZAUDE
# goiena

2017-03-10 EGUBAKOITZA / 720. ZENBAKIA / 17. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM




\+ Erreportajea: Debagoiena, zentral nuklearretik salbu?

Garbiñe Biurrun epaileari elkarrizketa




## Euskaraz bizi izatera

EHEk euskaraz bizi nahi duen herria aktibatu eta euskaraz egitera bultzatu nahi du / 2

Martxoaren 18ko Euskaraz Bizi Egunean parte hartuko duten eragileak, Arrasateko Kulturaten. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

# Pauso asko eman arren, bidea luzea da

Indartsu eta koloretsu aldarrikatu da udalerriz udalerri genero berdintasuna; asko dago egiteko, baina eskualdeak orekarako norabidea hartu du / 4 eta 'Herriak' saila



Bergarako Berdinkatea ekimenean parte hartu zuten ikasleetako batzuk. X. URZELAI

**Herrigintzaren adibide garbia den Pol-Pol Mendizale Taldeak 75 urte beteko ditu martxoaren 15ean** / 24

**60 taldetako 192 atleta lehiatuko dira Oñatiko duatloian; oraingoan, zapatuan beharrean, etzi, domeka** / 38

**Udazkenera bitartean bi mila kilometro pasa egingo dituzte Debagoiena Txirrindulari Klubekoek** / 14

### SINADURAK

JASONE ZABALA / 8
OIER PEÑAGARIKANO / 31
XABI IGOA / 23
MAITE IRIZAR / 35
JAIONE CARPINTERO / 26
AINTZANE OIARBIDE / 48

bertako
igogailuak | ascensores
Igogailuen mantentze-lanak
24 orduko benetako zerbitzua
24/7 365
Euskarazko zerbitzu profesionala
Pieza originalak barne 100 eurotik aurrera
EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN
GARAIA Goiru 1A - Arrasate
943 90 34 50 • 691 64 79 65
www.bertako.eus • info@bertako.eus



Euskal Herrian Euskaraz elkarteko hainbat kide, Euskaraz Bizi Egunaren kartelarekin elkartearen topagune den Jai Zale tabernan eguaztenean. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

# Euskaraz bizitzea posible delako

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak Arrasaten egingo du aurten Euskaraz Bizi Eguna. Martxoaren 18rako deitu dute eta askotariko ekintzak antolatu dituzte. Euskaraz bizitzeko hautuari bultzada emateko eguna izatea gura dute bultzatzaileek

**Larraitz Zeberio** ARRASATE

Adin eta giro guztietako euskaltzaleendako eguna prestatu dute Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz elkartekoek hilaren 18rako. Euskal Herri mailako deialdia da eta Arrasateko elkartean ez daude bakarrik ahalegin horretan. Aldarrikapenetik asko izango duen festa egunean, herriko hamalau eragileren babesa eta laguntza jaso ko dutela iragarri dute. Eragile horien artean daude: Dirty Brothers, Hans Blues Band, Jasan eta Txua musika taldeak; Portaloira eta Txorbela abesbatzak; Lore Gazteak eta Arrostaitz dantza taldeak; txalaparta eta alboka taldeak; txistulariak; Txatxilipurdi elkartea; AGAKO; buruhandien eta erraldoien konpartsak; Eskuartean artisau taldea eta trikitilariak...

## Egun osoko egitaraua Arrasaten

**Martxoak 18**

- **10:30** Txupinazoa.
- **11:00** Azoka Seber Altube plazan. Gainera, kilikien kalejira eta umeendako tailerrak.
- **12:30** *Euskaraz bizitzera goaz!* ekitaldi nazionala Kulturaten.
- **13:30** Girotutako bi ibilbide poteorako.
- **15:00** Herri bazkaria azoka plazan. Gero, The Hans Blues Band taldea.
- **18:00** Bertso saioa karpan + Jasan eta Txua taldeak Irati tabernan.
- **19:30** Kantujira Portaloia abesbatzarekin eta kalejira elektro-txarangarekin.
- **21:30** Dirty Brothers, Willis Drummond, eta Ezten Giro, karpan.

**Martxoak 19**

- **01:30** Kontzertua gaztetxean: DJ Jo Ta Txo.

Festaren bueltan ahalik eta jende gehien elkartzeko, bultzatzaileek askotariko ekintzak antolatu dituzte; adibidez, azoka plazan egingo duten herri bazkaria. Txartelak salgai daude, 15 eurotan, Jai Zale tabernan.

**Eguerdian, txostena**

Eguneko beste hitzordu esanguratsuenetako bat *Euskal Herri euskaldunari ateak ireki* izeneko txostenaren (ponentzia) aurkezpena izango da, 12:30ean, Kulturaten. "Euskal Herrian Euskaraz berria eta gaurkotua aurkezteko eguna izango da", adierazi du elkarteko kide Mikel Makazagak. Ildo beretik hitz egin du Aitor Juaristik: "Euskal Herrian Euskaraz taldeak hausnarketa prozesua egin du azken urte honetan eta denbora horretan egindako lanaren emaitza aurkeztuko dute Arrasaten. Hurrengo erronken berri ere emango dute".

**Aldarrikapena eta festa**

Goikobalun egindako txupinazoarekin emango diote hasiera Euskaraz Bizi Egunari, 10:30ean. Hortik aurrera, askotariko ekintzak daude iragarrita. Eguneko zenbait unetan, gainera, bat baino gehiago egongo dira martxan aldi berean; gehienbat, goiz partean eta bazkaldu ostean.

Antolatzaileen esanetan, lan handia izan da guztia prestatzea eta bereziki eskertu dute eragileengandik jasotzeko erantzuna.


L.Z.

## "Komunitatea ahalduntzea da helburua"

**AITOR JUARISTI**
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Prestaketa lanetako azken txanpan, Euskaraz Bizi Eguneko Arrasateko bultzatzaileak pozik daude herriko eragileengandik jasotako erantzunarekin.

**Ekintza asko eta askotarikoak antolatu dituzue hilaren 18rako.**

Bai. Lan gogorra izan da, baina ideia da giro desberdinetako jendea mugitzea, eta, horretarako, askotariko ibilbideak eta ekintzak antolatu ditugu. Eta ez ditugu guztiak kokapen bakar batean zentralizatuko.

**Nola eragin nahi duzue?**

Komunitatea elkartzea eta ahalduntzea da gure asmoa. Ikusi behar dugu ez garela txanpinoi bat hemen eta beste bat han, baizik eta komunitate handi bat garela. Euskaraz bizitzea posible da. Talde moduan ere eska dezakegu.

**Lan egin duzue antolatzen eta azken txanpa dator orain.**

Azaro amaieran hasi ginen lanean eta egunean bertan ere lan handia izango dugu. Zorionez, badago jendea laguntzeko prest eta oso pozik gaude.

**Herriko eragileen erantzuna ona izan da?**

Azken bileran 36 lagun elkartu ginen. Herriko eragileak mugitzea zaila izaten da eta lan handia eskatzen du. Oso-oso pozik gaude. Mila esker denei!

# 'Ireki', langileen bultzada presoak etxeratzeko

Langile mugimenduaren baitan, euskal preso eta iheslariak etxera ekartzeko ekimen bat sortu dute. Euskal Herrian 150.000 sinadura lortzeko erronka ezarri dute, orain arte batutako atxikimendu kopururik handiena izango litzatekeena

**Maite Txintxurreta** DEBAGOIENA

*Ireki* izena du langile mugimenduaren barruan sortu duten ekimen berriak. Euskal preso eta iheslarien etxeratzea lortu nahi dute kanpaina honen bitartez, eta, horretarako, orain arte Euskal Herrian izan den sinadura bilketarik handiena egin nahi dute. Ekainaren 17ra bitartean 150.000 pertsonaren atxikimendua lortu nahi dute.

Euskal Herri mailako mugimendua da, eta herriz herri ari dira taldetxoak sortzen, baita Debagoienean ere.

Bergarako Ireki ekimenaren bultzatzaileek azaldu dute gatazka bat izan den gainerako herrietan presoak eta iheslariak etxera itzuli direla, eta Euskal Herrian ere hori nahi dutela nabarmendu dute. Horretarako, esan dute historikoki aldaketa sakonak bultzatu dituen langile mugimendua aktibatu nahi dutela. "Alde batetik, ikusten da azken urteetan lan munduan ez garela gai izan afera honen inguruan dinamikak sortzeko, eta bestetik, badira bost urte baino ETA erakundeak jarduera behin betiko eten zuela, baina preso eta iheslarien gaian ez dugu horren ondoriorik ikusten", azaldu du ekimen honen bultzatzaileetako batek, Amagoia Aristegik.



Bergarako Aristegi eta Barrutia. M.T.

**Atxikimenduak lortzea**

Sinadurak batzeko, lantegi eta enpresetako batzordeekin eta norbanakoekin kontaktuan jartzen ari dira oraingoz, eta aurrerago mahai bat kalera ateratzeko asmoa ere erakutsi dute; ospakizun berezietan, esaterako. Ekainaren 17ko epemuga hori gainditzean hurrengo pausoak zeintzuk izango diren azaldu dute bultzatzaileek.

Ondoren, sinadura biltzea bukatzean, Euskal Herri mailako jai bat antolatzeko asmoa agertu dute, eta ondoren sinadurok erakundeetara bidaliko dituzte, "ahalik eta eraginik handiena" izan dezan ekimenak.

Bergarako taldeari dagokionez, herrian 2.000 sinadura –edo gehiago– lortzeko erronka ezarri dute, eta dagoeneko 600 inguru dituzte.



MAITE TXINTXURRETA

## Italiara bidaia irabazi dute

Amuebladora Mondragonesa taldeak 60. urteurrena ospatu zuen iaz, eta Italiara bidaia baten zozketa egin zuten bezeroen artean. Bada, zozketa horrek dagoeneko baditu saridunak: Maite Azurmendi eta Paco Bergaretxe izan dira zortedunak. Italia goitik behera ezagutzeko aukera izango dute jasotako sariari esker, eta pozik agertu dira, ez zuten-eta espero.

## Harrera familiak bilatzeko hitzaldia egingo dute Bergaran

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzaldia antolatu du datorren martitzenerako, martxoak 14, Bergarako Irizar jauregiko erabilera askotariko aretoan. 15:00etan hasiko da eta 16:30 aldera arte iraungo du.

Familia harreraren figura zabaldu nahi dute Gipuzkoan, eta, horretarako, hainbat hitzaldi informatibo antolatu dituzte. Kanpainaren izena *Benetako besarkadak* da. Babes beharrean dauden haurrak eta nerabeak etxean hartzeko prest dauden familiak topatzea dute helburu.

Gaur egun, Gipuzkoan 360 haur eta nerabe bizi dira harrera familiekin. Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden haur eta nerabe hauei harrera egiteko prest dauden pertsona gehiago behar dituzte. Izan ere, 60 ume eta nerabe daude gaur egun harrera familia baten zain.

Gipuzkoa ekintzailea

ekin Debagoienean

Ekintzaileentzat prestakuntza tailerrak

- Martxoak 22 - 09:30-12:30 (3 ordu)
  **Zer jakin behar dut nire negozioa martxan jartzeko?**
- Apirilak 3, 4 eta 7 - 09:30-13:30 (12 ordu)
  **Negozio Plana. CANVAS eredua.**
- Maiatzak 8 - 09:30-13:30 (4 ordu)
  **Tresnak nire negozioa kudeatzeko eta kontrolatzeko.**
- Maiatzak 10 - 09:30-13:30 (teoria) 15:00-17:00 (praktika) (6 ordu)
  **Betebehar fiskalak**
- Maiatzak 15 - 09:30-13:30 (4 ordu)
  **Nola posizionatu nire negozioaren webgunea?**

www.debagoiena.eus webgunean tailerren edukia kontsulta daiteke

- Tailerrak dohainik izango dira
- Tailer batean edo gehiagotan parte har dezakezu
- Plaza mugatuak, izen-ematea beharrezkoa
- Tailerrak egiteko, parte-hartzaile kopuru minimoa beharko da

Informazio gehiago eta izen-ematea:

**www.debagoiena.eus**
**DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA**
Nafarroa etorbidea 17 - behea - Arrasate
943-79 30 90 rgarcia@debagoiena.eus

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Bergarako Udal Gobernuan gehiengo dira emakumezkoak, talde argazkiak erakusten duen moduan –kide bat falta da–. JULEN IRIONDO

# Itxaropenerako erretratua

Martxoaren 8a pasa berri den honetan, parekidetasunerako bidean emandako aurrerapausoak ondo islatzen dira, besteak beste, Debagoieneko politikagintzan: bederatzi alkateetatik, lau dira emakumezkoak; orain arte izan den kopururik handiena



Oñatiko udalbatzan gehiengo dira emakumezkoak, 17 kideetatik 9. OIHANA ELORTZA

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Oraindik asko falta da. Emakume okupatuen erdiak 5 ordu edo gehiago ematen ditu umeak zaintzen eta gizon okupatuen kasuan, zifra hori 2 ordu edo gutxiago izatera pasatzen da. Diru kontuetan, EAEko emakumeek gizonek baino 9.706 euro gutxiagoko errenta dute. Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, helarazitako datuak dira horiek.

Gipuzkoako Foru Aldunditik helarazitako beste datu batzuk: 123 lan-egun gehiago behar ditu emakume batek gizon batek beste irabazteko. Beste modu batera begiratuta, emakumeen batez besteko soldata % 25 gutxiago da gizonena baino eta seme-alabak zaintzeko eszedentzien %5 bakarrik gizonek eskatuak dira. Datu horiek EHUtik, Emakunde institututik eta Foru Aldundiko Ogasun Departamentutik batutakoak dira.

Azken datu bat, Eudelen, Euskadiko Udalen Elkartearen, adierazpenean oinarrituta: "Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkatzen dute. 2015ean, alderdi politikoek %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere".

### Bederatzitik lau

Horiek datuak, objektiboak eta ilunak oraindik. Zorionez, baina, Debagoiena, beste esparru batzuetan moduan, aurrerago dabil esparru horretan ere.

Atzera ere datu objektiboetan oinarrituta, eskualdearen aurrerapen horren adierazleetako bat da eskualdeko agintarien artean emakumeek duten presentzia nabarmena: bederatzi udalerrien artean –Aramaio barne– lautan agintari gorenak, alkateak, emakumezkoak dira: Aramaion bertan –Lierni Altuna–, Leintz Gatzagan –Eneka Zankada–, Arrasaten –Maria Ubarretxena– eta Bergaran –Elena Lete–. Eta udalerri horietatik bitan –Oñatin eta Bergaran– oposizioko buruak ere emakumezkoak dira.

Are gehiago, azken bi udalerri horiek beste datu esanguratsu batzuk ere erakusten dituzte politikagintzan.

### Bergarako kasua

Bergaran, adibidez, bertako alkate Elena Letek dioen moduan, Bergarako Udal Gobernuak erakusten duen erretratua "oso argazki polita eta neurri batean itxaropentsua da gerora begira": alkatea emakumezkoa, Udal Gobernuan 9 kideetatik 5 dira emakumezkoak eta oposizioko burua bera ere emakumezkoa da –Agurne Barruso–.

Udalerri berean, azken alkateetatik hiru emakumezkoak izan dira –Agurne Barruso (lehena izan zen bera), Jaione Isazelaia eta Elena Lete–. Eta, oro har, azken urteotan emakumezkoek presentzia handia irabazi dute tokiko politikagintzan.

### Oñatiko kasua

Oñatik ere badu erakusteko moduko erretratua. Kasu horretan, udalbatza osatzen duten 17 kideetatik gehiengoa dira emakumeak: 9 zinegotzi. Udal Gobernuan, berriz, parekide dira: bosna emakume eta gizon. "Saiakera berezia egin izan dugu genero aldetik udal taldean oreka hori egon dadin", azaldu du bertako alkate Mikel Biainek.

Horrez gainera, Oñatiko oposizioko burua ere emakumezkoa da –Lourdes Idoiaga–. Eta azken hori bertako alkate ere izandakoa da legealdi pasan.

### Aurrera bai, baina…

Beraz, azken 20 urteotan, bereziki, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira. Baina… "politikan emakumeok jasaten dugu oraindik gurekiko jarrera ezberdina eta erasokorra", dio Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak.

Bergarako alkate izandako Agurne Barruso bat dator politikagintza "oso erasokorra" den irakurketa horretan: "%150eko dedikazioa eskatzen du; ez du aintzat hartzen ordutegien egokitasuna; familia azken planoan jartzea exijitzen dizu… oso erasokorra da alde horretatik eta horrek zailtasun handiagoak dakartza emakumearentzat. Emakumeok ez dugu hain jardun erasokorrean aritu nahi izaten,

**ALKATE ANDREAK ERE IZAN DIRA LEHENAGO: ANTZUOLAN, ARRASATEN, ARETXABALETAN…**

# "Zeharkako helburu izan behar du berdintasunak"

**ELENA LETE** BERGARAKO ALKATEA

Bergarako Udal Gobernuan emakumezkoak dira gehiengo –9 kideetatik 5–; eta udalbatzan bat gutxiago besterik ez –17 kideetatik 8 dira emakumeak–. Elena Lete alkateak dio hori "historikoa" dela: "Zalantzarik ez. Agian, ez gara konturatu noraino heldu garen, baina argazki moduan oso argazki polita eta neurri batean itxaropentsua da gerora begira".

**Ahaleginen baten emaitza da Bergarako Udalaren erretratua?**
Gizartea aldatzen doa eta gu gara gizartearen isla. Bestalde, berdintasuna zeharkako helburu moduan partidu guztiek dute, eta saiakera berezi bat egiten da hori ere kontuan hartzeko zerrenda egiterakoan. (…) Zergatik? Azken batean, era bat da esateko: "Politika hauetan sinistu egiten dugu eta gure hasierako puntua ere horrelakoa da: berdintasuna eramaten dugu gure zerrendetara".

**Igartzen da emakume gehiago izate horren eragina?**
Esango nuke baietz. Batzuetan, zaila da esatea zergatik garen desberdinak, baina desberdinak gara eta sentsibilitate desberdinak ditugu; hori portzentualki ondo islatuta egoteak lagundu egiten du politika beste era batean egiten, ez bakarrik gizonen ikuspuntutik. Zertan? Zeharkako helburu moduan hartu behar dugu eta hala hartzen dugu. Irakurri nuen Punset-en artikulu bat eta hark esaten zuen hirigintzan eragina handia dela gizona edo emakumea izatearena; baina, askotan, galdetzen dugunean, gizonei galdetzen zaie, gehienbat. Emakumeek nahiko luketela beste hiri mota bat non esparru libreak eta aisialdirakoak handiagoak diren, baina, askotan, ez zaie galdetzen. Hortaz, pentsatzen dut gure presentziak bermatzen duela berdintasun ikuspuntua zeharkako irizpide izatea gero eta gehiago. Egia da gero ematen diren pausoak neurri txikikoak direla, baina ematen dira; eta ematen dira zeharkako helburu moduan hartzen dugulako, eta ikusten dugu zelako eragina duen arlo guztietan (…) Orokortasun hori, neurri handi batean, emakumeok ematen dugu.


GOIENA

**"PAUSOAK POLIKI BAINA GELDITU BARIK EMATEA OSO INPORTANTEA DA ETA HORRETAN GAUDE"**

**Akaso, gehiago igarri beharko litzateke?**
Pausoak poliki baina gelditu barik ematea oso inportantea da, eta horretan gaude: arlo guztietan gure ikuspuntu txiki hori uztartzen; horrek eragin biderkatzailea du, arlo guztietan (…). Erakunde-administrazio moduan guri dagokiguna da –nik horrela ulertzen dut– arlo guztietan hori kontuan izatea, benetan zeharkakoa izatea, ze horrela ez da kokatzen aurrerapena arlo bakarrean, baizik eta gizarte mailan eta arlo desberdinetan.

**Emakume izatearren alkate izateko zailtasunik igarri duzu?**
Ez. Era berean, ni ez nengoen lehen postuan zerrendan; gero, egoera aldatu eta proposamena niri zuzendu zidaten, eta proposamena zuzena izan zen. Beraz, pentsatzen dut ez alderdiak ezta taldeak ere ez zuela inolako arazorik nik kargu hori hartzeko. Ez dut igarri kontrako jarrerarik, ez orain, ez gobernuan egon nintzenean, eta ezta nire lanbidean ere [aparejadorea da].

**Ahalegin bereziren bat egin beharra? Kontziliazioa…**
Ba, bai, egin behar dut. Baina pentsatzen dut gizonezkoa izanda ere ahalegin berezi hori egiteko beharrean egongo nintzatekeela. Eta neure kasuan, arlo pertsonalean laguntza jaso dut hori garatzeko. Hortaz, arlo pertsonal horrek lagundu egin dit erabakia hartzeko, berdintasunaren erabaki bat izan da.

# "Saiakera berezia egin dugu oreka egon dadin"

**MIKEL BIAIN** OÑATIKO ALKATEA

Oñatiko udalbatza osatzen duten udal ordezkarien artean emakumezkoak dira gehiengo –17 zinegotzietatik 9 dira emakumeak, hain zuzen ere–. Gainera, bertako Udal Gobernuan parekidetasuna dute bermatuta: bost dira emakumezkoak eta bost gizonezkoak. Mikel Biain Oñatiko alkateak adierazi du "urte luzez gizarte arazo honen aurrean ezikusiarena" egin dela, eta, egoera aldatzen doan arren, oraindik badagoela zeregina. "Gaur egun, oro har, gizartearen sentsibilizazioa areagotu egin da. Eta nahiz eta oraindik "kanpamendu basean" egon, behintzat, badakigu erronkari heldu eta tontorrera ahal bezain lasterren heldu behar dugula", gaineratu du Oñatiko alkateak.

**Ahaleginen baten emaitza da Oñatiko Udalak erakusten duen erretratua?**
Saiakera berezia egin izan dugu genero aldetik udal taldean generoen arteko oreka hori egon dadin. Hauteskunde zerrendak egiterakoan oso presente izan ohi dugun kontua da hori. Genero ikuspegitik harago ere, aniztasuna egotea garrantzitsua dela uste dut nik neuk. Adin tarte ezberdinak, lanbide eta ezagutza ezberdinak, aniztasun funtzionalak…


GOIENA

**"SINETSITA NAGO EMAKUME IZATEAK BADAKARRELA IKUSPEGI BEREZI BAT GIZARTEAREKIKO"**

**Igartzen da Oñatiko Udal Gobernuan duzuen parekidetasun horren eragina? Zertan? Akaso, gehiago igarri beharko litzateke?**
Ni neu berez ez naiz izaten orokorkeria-zale, baina sinetsita nago emakume izateak berez dakarrela, neurri handi batean, gizartearekiko ikuspegi berezi bat. Agian, halabeharrez garatu duena. Baina esan liteke emakumeak baduela ikuspegi, sentsibilitate zein inteligentzia berezi bat. Unibertsitatean irakasle batek irakatsi zigun emakumeek pentsamendu horizontala zutela, oro har –konponbide bila– eta gizonezkoek, berriz, bertikalagoa askoz –errudun bila–. Harrezkero, askotan gogoratu izan dudan ikasgaia da hori.

**Parekide izateko zaudeten tokian egoteko zailtasunik sumatu duzue (zerrendak osatzeko…)?**
Zerrendetan aniztasuna lortzea berez izaten da erronka eta genero parekidetasuna horietako bat da, bai.

**Eta zure kasuan, gizona izanda, ahalegin bereziren bat egin behar izan duzu zure karguan egon ahal izateko? Kontziliazioa, adibidez?**
Ni alkatea naiz eta ume txikien aita ere banaiz. Eta saiatzen naiz lan ardurak eta aita lanak ahal den neurrian orekatzen.

**Eta zurekin batera Udal Gobernua osatzen duten emakumezkoek?**
Zinegotzi eta ume txikien ama direnak ere izan dira eta badira gure artean. Emakume izateak askotan ama izatea dakarren neurrian, bada, ama izateak pisu handia duela esan beharrik ez dago; batez ere, umearen lehen hastapenetan. Bestalde, eta horrez gainera, etxeko pertsona nagusiekiko zaintza ardurak ere, zoritxarrez, ez daude ondo banatuta gaur egun, eta, zentzu horretan ere, emakumezkoak pisu berezia du. Errealitate hori ere badugu gure artean oraindik. Baina, gure kasuan, ahalegin berezia egiten dugu denok eta ondo moldatzen garela esango nuke.

ez gara eroso sentitzen eta horrek ere badakar esfortzua".

Aramaioko alkate Lierni Altunaren iritziz, gainera, "lotsagarria" da "emakume politikariei buruz esaten direnak, beraien gorpuzkera edo itxurarekin sartzen beraiek deskreditatzeko; hori, gizonen kasuan, ez da sekula pasatu. Zer esanik ez emakume guztiok gutxiesten gaituzten politikarien inguruan, Europar Batasuneko politikari poloniar hori bezala".

### Erantzukizunak partekatu

Aurrera egiteko zailtasunen artean erronka handietako bat erantzukizunak partekatzea da. "Kontziliazioa gobernu arloan eta nire bizitza pertsonalean –lana, ama, alaba, emaztea– zaila dabil izaten", dio, adibidez, Leintz Gatzagako alkate Eneka Zankadak.

Ildo beretik, Lourdes Idoiagak, Oñatiko alkate izandakoak, azpimarratu du "emakume askok bezala lanaldi bikoitza eta hirukoitza egitea tokatu" zaiola: "Baina, nire kasuan, familia-sarearen inplikazio osoa izan dut eta hori ezinbestekoa izan da".

Maria Ubarretxenaren esanetan, kuotak –politikan aplikatzen direnak– esparru guztietara zabaltzeak lagundu egingo luke oreka hobetzen.

### Irabazitakoari eutsi

Etorkizunerako begirada horretan, Oñatiko alkate Mikel Biainek, adierazi du "kanpamendu basean" gaudela orain, baina tontorrera begira: "Badakigu erronkari heldu eta tontorrera ahal bezain lasterren heldu behar dugula".

Eta Bergarako alkate Elena Letek irabazitakoari eutsi beharra azpimarratu du: "Hezkuntzaren bitartez saiatu behar dugu, bai edo bai, hori bermatzen, mantentzen, gordetzen eta aurrera joaten. (…) Gure gizartean aldaketa asko ari dira gertatzen; etorkinak etorri direlako, mugimendu asko daudelako, (…) Lehen, gizarteak askoz ere itxiagoak ziren, baina orain, kanpotik etorritako tendentzia asko dira eta ondo kudeatu behar dira, lortutako hori ez galtzeko eta etorri diren gauza onak bereganatzeko".

**POLITIKAGINTZA ORAINDIK ARLO ERASOKORRA DA, ETA EMAKUMEA EZ DA ERASO SENTITZEN**

# Ahalegin berezia egin behar izan duzu politikan lehen lerroan jarduteko?

**MARIA UBARRETXENA**
ARRASATEKO ALKATEA

**"Kuotek erraztu egiten dituzte aurrerapausoak"**

"Desberdinduko nituzke enpresa pribatua eta politika. Politikan kuotak ditugu eta horrek ahalbidetzen du emakumeok politikara iristeko erraztasun handiagoa izatea. Hala ere, enpresa pribatuetan zein instituzioetan gehiengoak gizonak dira, batez ere, postu gorenetan. Baina uste dut zerrenda parekatuak egin behar horrek erraztu egiten duela era naturalean urteak beharko genituzkeen egoera bat lehenago edukitzeko edo, behintzat, lehenago aurrerapauso batzuk egiteko. Kuoten gaia korapilatsua bada ere, politikatik harago enpresa pribatuetan ere nolabaiteko lege bat jarri beharko litzateke, pertsonaren balioaren arabera, noski, emakumeak zuzendaritza postuetara iristea ere ahalbidetzeko. Bestalde, politikan emakumeok jasaten dugu oraindik



gurekiko jarrera ezberdina eta erasokorra. Tamalez, ikusi izan ditut horrelako jarrerak berriki, politikan gizonak eta emakumeak ezberdin tratatzen dituzten gizakumeak. Hala ere, "emakumeak" gara, horrek dakarren inplikazio guztiekin: oraindik gizarteak esleitzen dizkizu, agian inkontzienteki, lan jakin batzuk –umeen zaintza, etxeko lanak...–; motxila askoz ere kargatuago daramagu. Nire kasuan, senarrak lanaldi murriztua du umeak eskolatik jasotzeko, baina etxera iristean –eta udaletxetik askotan berandu iristen naiz– normalean, nik prestatzen dut afaria, garbigailua ipini, etxeko-lanak egin, plantxa ere tokatzen zait… aitarekin edo aitaitarekin konparatuta, nire senarrak etxeko lan gehiago egiten ditu; hala ere, emakumeok etxean dugun karga askoz handiagoa da".

**LIERNI ALTUNA**
ARAMAIOKO ALKATEA

**"Oinarriak deseraiki eta berreraiki beharra dugu"**

"Politikagintza oso maskulinoa da. Zorionez, inork ez dit begirunea galdu emakumea izatearren, baina gai batzuetan, mendi edo hirigintza kontuetan kasu, nire iritziak gizon nagusiago batek baino pisu gutxiago du hasieran (…). Amorru handiena ematen didana da emakume gazte bat ikusi eta "paternalista" jartzen direnak. Emakumea edo gaztea izanda ere, edozein pertsonak errespetu bera merezi du, eta haren hitzei balio bera ematea, gutxienez (…) Sistema hauetako oinarriak deseraiki eta berreraiki beharra dugu. Teorian, gauza asko lortu dira, baina praktikan, gehiegi falta dira. Teorian, berdintasuna gehienok onartzea lortu da, baina praktikan, zergatik jasaten dituzte emakume askok tratu txarrak edo tratatzen dituzte haragi zati bat bezala? Edo lanbide feminizatuak dira



prekarioenak normalean? Hori da praktikan txikitatik barneratzen dugun jendartearen egituran aldaketa oso gutxi izan delako, alderdi emozionala eta botere harremanak ez direlako deseraiki (…) Egokitzen zaidan postutik, praktikotasunera joanez, postu publikoetan gaudenok arduraz jokatu behar dugu eta ezin dira onartu politiko askok emakumeekiko egiten dituzten errespetu faltak, horren aurkako lege bat atera beharko litzateke (…) Denon betebeharra da egunerokotasunean emakumea emakume izatearren gutxiesten duten edozein jarrera identifikatzen eta horren aurka borrokatzen jarraitzea. Zeren jendarte matxista hau jarrera horietan oinarritzen da, eta jendarte matxista honek hiltzen gaitu, gutxiesten gaitu, gizonen morroi bihurtzen gaitu…".

**ENEKA ZANKADA**
LEINTZ GATZAGAKO ALKATEA

**"Lortu dugunaren borroka hori gazteekin partekatuko nuke"**

"Nire burua ez dut ikusten lan politikoa egiten duen pertsona modura; ordezkatzen ditugun herritarren eskubideak defendatzeko eta haiendako onurak lortzeko talde batekin elkarlanean diharduen emakumea naiz. Gure kulturan emakumea indartsua da eta denera iristen da; batzuetan irudi hori eman behar izaten dugu, nahiz eta atzetik babesa badugun. Nire kasuan, egia da kontziliazioa gobernu arloan eta bizitza pertsonalean –lana, ama, alaba, emaztea– zaila dabilela izaten. Neurri handi batean, ardurei erantzuteko nork bere buruari jartzen dizkion exijentziak dira. Desberdintasuna ez dago generoan, baizik eta norberak hartzen duen konpromiso mailan. Neure kasuan, batzuetan, zailtasunak ditut nire burua aurkitzen: erizain nabilela udal kontuengatik deitzen



didatenean edo eskolak ematen nabilenean, familia kontuengatik. Hori uztartzea da zailena. Baina ikasten noa, berezko izaera hori galdu barik: esparru guztietan emakume izatea. Harrotasuna da emakume izatea, atzera begiratzea eta ikustea emakume izanda garatu dudan guztia. Amama ezkongabea izan zen eta hiru alaba hezi zituen. Amak –alaba nagusia– zeregin garrantzitsua izan zuen. Eta horregatik uste dut familiako emakumeek nigan eragin handia izan dutela. Bide luzea dugu egiteko, baina egin duguna oso garrantzitsua da. Gazteekin partekatuko nuke lortu dugun guztiaren aldeko borroka hori. Emakume izatea ez da ahula izatea, guztiz kontrakoa: bata bestearen ondoan gero eta indartsuagoak gara. Hurrengo belaunaldiei espiritu hori transmititzea tokatzen zaigu".

**AGURNE BARRUSO**
BERGARAKO OPOSIZIOKO BURU

**"Aldaketaren indarra jarri beharko genuke balioetan"**

"Ahalegin berezia egin behar izan dut politikako lehen lerroan jarduteko eta familia-kontziliazioa erdiesteko. Emakumeok espazio publikoak konkistatzen ari gara –oso poliki bada ere– eta hori oso positiboa da, baina ez gara neurri berean espazio pribatuko erantzukizunak partekatzen ari eta horrek ahalegin berezia badakar, nire ustez. Izan ere, jardun politikoa, oraindik orain, oso oinarri maskulinoetan garatzen da eta horrek eragin handia dauka. Hau da, ehuneko 150eko dedikazioa eskatzen du; ez du aintzat hartzen ordutegien egokitasuna; familia azken planoan jartzea exijitzen dizu, eta abar. Oso erasokorra da alde horretatik eta horrek zailtasun handiagoak dakartza emakumeentzat. Emakumeok ez dugu hain jardun erasokorrean



aritu nahi izaten, ez gara eroso sentitzen, eta horrek ere badakar esfortzua. Bestalde, balioak oso maskulinoak dira eta horri aurre egiteak ere ahalegin handia eskatzen du. Emakumeok, orokorrean –salbuespenak egon daitezkeen arren– eta, zorionez, beste balio batzuk ekartzen ditugu eta zaila da jardun politikoan balio femeninoekin aritzea, uraren kontra egin behar duzu igeri. Edozelan ere, uste dut emakumeok ekarpen handia egiten diogula jardun politikoari. Jardun politikoa feminizatu egin behar delakoan nago, eta ez bakarrik emakumeok erosoago ibil gaitezen, baizik eta bereziki jardun politikoa bera egokiagoa izan dadin. Hain zuzen ere, kontziliazioan eta balioetan jarri beharko genuke aldaketaren indarra, nire ustez".

**LOURDES IDOIAGA**
OÑATIKO OPOSIZIOKO BURU

**"Berdintasuna lortzea denon erantzukizuna da"**

"Nire adinagatik, garai oso ezberdinak bizi izan ditut. Emakume guztion moduan, oztopoak izan ditut, noski, baina lehengo garaiak askoz ere zailagoak ziren eta bilakaera horren testigu izan naiz. Garaien arteko desberdintasunak nabarmentzen dituen detaile txiki bat da lehen beti galdera topiko eta berdina egiten zidatela: 'Zer sentitzen duzu Oñatz kultur taldeko lehen emakume presidente izatearekin?'. Berdin Ikastolan edo enpresa mailan zuzendaria izan nintzenean ere, eta, noski, baita Oñatiko alkate izendatu nindutenean ere. Orain, galdera hau desagertzen doa, gizartea eraldatzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun bidean egiten ari diren ahalegin guztiengatik. Emakume askok bezala, lanaldi bikoitza eta



hirukoitza egitea tokatu zait, baina, nire kasuan, familia-sarearen inplikazio osoa izan dut, eta hori ezinbestekoa izan da. Lana eta herrigintza, edo lana eta politika eta familia kontziliatu egin ditut. Eta hau lortzeko, muinean dago kontziliazio erantzunkidetasuna sustatzea, ardurak eta lanak banatzeko orduan. Mezu argia gizarteratu behar dela uste dut, aldarrikatuz berdintasuna lortzea denon erantzukizuna dela: erakunde, politiko, mugimendu sozial, enpresa, familia, ikastetxe, komunikabide... guztiona. Eta pertsona bakoitzak sinetsi behar dugu gure eragin eremuan zerbait egin ahal dugula berdintasunaren alde, guraso, lagun, hezitzaile, enpresa bateko arduradun bezala. Kontzientzia hartu behar dugu".

## Baietz %80,19 gainditu! Kontzientziazioan inbertituz, ez errauskailuan

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Joan den urteko gaikako bilketa datua hona izan da, bai, baina hobetu egin daiteke.

Izan ere, ez dugu ahaztu behar helburu nagusia zabor kopurua murriztea dela, eta, horren ondoren, sortzen dugun zaborra %100 birziklatzea.

Horrenbestez, badugu non hobetu.

Ados, garrantzitsuena kontzientziazioa da, eta ez bilketa sistema.

Eta uste dut bide horretatik Gipuzkoako gizartea %100 birziklatzera helduko dela.

Horrenbestez, zertarako egin errauskailu bat?

Arrazoi ekonomikoa baino garrantzitsuagoa da Gipuzkoako gizartearen iritzia jakitea.

Nik neuk zalantzarik ez daukat inork ez duela bere etxe ondoan errauskailurik nahi.

Galdeketa egin eta emaitzak onartu behar dira.

Bestela, hurrengo foru hauteskundeetan frogatu daiteke errauskailuan gastatutako diruak alferrikakoak izan direla.

Hortaz, mesedez, gai gatazkatsuak direnean, galdeketa egin!

Izan ere, etorkizuneko belaunaldiak kontuan izan behar ditugu.

Noski, ezin diegu orain galdetu, baina, imajinazio pixka bat izanda, zer uste duzu pentsatuko dutela errefusa hondakin arriskutsu bihurtzen duen errauskailuari buruz?

## Sufrimenduak baditu hainbat aurpegi

**IOSU LIZARRALDE**
OÑATI

Gatazka politikoaren testuinguruan, giza eskubideen urraketa etengabeak tragedia handia (izan) dira milaka familiarentzat.

Tragedia hori aitortu, onartu eta erreparatu beharra dago, bere osotasunean; tragedia guztiak, inolako salbuespenik gabe.

Baina tragedia iraganeko zerbait izan dela adierazteko eta erreparazioari ekiteko, indarrean dauden sufrimendu zantzu guztiak amaitu beharra dago. Sufrimendua eragiten jarraitzen baita, baita Oñatin ere.

Sufrimenduaren aurpegi batzuk Alberto eta familiarenak dira. Martxoaren 10ean bete dira 2 urte Albertok Guardia Zibilaren atzaparretatik ihes egin eta herria utzi behar izan zuenetik. Ordutik, erbestean da Alberto, inguruko eta ia mendea bete duen aita Juanitorengandik urruti.

Joseba, Xabin, Xabier eta beraien familiarenak sufrimenduaren beste aurpegi batzuk dira. Hilaren 29an beteko dira 25 urte Joseba polizia frantsesak atxilotu zutenetik. Uztailean, aldiz, 20 urte beteko dira Xabier eta Xabin atxilo eraman zituztenetik. Hirurak ehunka kilometrotara daude.

Otsailean preso bat bisitatu ostean Sevillatik etxera bidean zela kotxe istripua izan zuen oñatiarrarena da beste aurpegi bat. Kotxean kalteak bakarrik jasan zituen; zorionekoa, beraz. Indarrean jarraitzen duen dispertsio politika kriminal hori besterik ez baita: zoria. Oraingo honetan, zoria onerako izan da, ez 2007 hartako abenduan bezala, zori txarrak Nati Junko herriko alaba eraman zuenekoa. Sufrimenduaren beste aurpegiak Nati eta familiarena.

Otsailaren 22an Angel Telleria oñatiko semea atxilotu zuten Mexikon eta Espainiaren esku utzi ostean Sotoko espetxean daukate preso. Beste aurpegi bat.

Oñatiko herritarren iritziak askotarikoak eta pluralak direla jakinik, guztion iritzia, guztion izaera eta guztion existentzia ere islatuko dituzten espazioak eta ekimenak sortzea ezinbestekoa da, Arantzazuko auzotarrek egin berri duten bezala, indarrean diren sufrimenduei amaiera ematea aldarrikatu eta etorkizuneko bake eszenatokia eraikitzeko bidean.

## Ezin ikusizkoak eta ezinbestekoak

**MARIJO ETXEGOIEN ARZUAGA**
OÑATIKO EAJ-PNV-REN BERDINTASUN BATZORDEKO ZINEGOTZIA
OÑATI

*Figuras ocultas* filmak, 60ko hamarkadan espazioko nagusitasuna lortzeko izandako norgehiagokan, NASAko hiru emakume matematikari beltzen historia kontatzen du.

Eta matematikari bikain haien kalkuluei esker lortu zuten amerikarrek espazioko lasterketan aurre hartzea.

Hala ere, beltzak eta emakumeak izateagatik, euren lanbide-karreran oztopo ugari izan zituzten; eta aitzindari izan arren, haien inguruko gertakizunak ezezagunak izan dira gaur arte.

Horixe izan da emakume askoren patua: historia-liburuetan ikusezin bihurtu dituzte.

Gaur egun, unibertsitateetako ikasleen artean emakumezkoak dira gehiengoa; hau da, graduatzen direnen % 65 inguru dira, hain zuzen ere.

Hala ere, emakumezkoen ehunekoak behera egiten du, karrera zientifikoan gora egin ahala.

Horrela, neskak zientzia arloan aritu diren emakume eredurik gabe aurkitzen dira.

Eta identifikazio eredu horren faltak emakumeak zientzia-arloetatik aldentzeko joera indartzen du.

Emakundek 2016ko Berdintasunerako Saria emango dio Marta Macho Stadler EHUko irakasleari, emakumeek zientzia-arloan egindako lanaren zabalkundean egindako ahalegina dela eta.

Ildo horretatik, nahitaezkoa da Adela Moyua Oñatin jaiotako emakume zientzialaria gogora ekartzea; EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko kide izan zen Adela eta Fakultate horretako Berdintasun Batzordeak Leioako Paraninfo ondoko gelari Adela Moyua izena ematea proposatu du.

2017an Txantxiku Ikastolak 50. urteurrena ospatzen duela eta, hasierako urte haietan lan handia egin zuten hainbat emakume gogoratu nahi ditut baita ere.

Ikastolaren sorreran dirua batzeko zabaldu zen tabernan makina bat oilasko, piper… prestatu zituzten emakumeak.

Oso borondate onez, isil-isilik, lan eta lan egin zuten emakume bikainak!

Haien lana ere agerian jarri behar da eta ezin da ahaztu, ezinbestekoa izan baitzen.

Bejondeiela!

**GUTUNAK:** Karakterak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





ZABALIK

JASONE ZABALA

# Ezin mila zatitan banatu...

Azkenaldian, lerro hauetan idatzi dudan bakoitzean, barru-barrutik ateratzen zaizkidan gaien inguruan egin izan ohi dut...

Zaila da hitzekin adieraztea sentitzen dena, sentiarazten dizuna, sentimendu asko barne-barnean sarturik eta ezin atera... edo bai... baina ez norberak nahi izaten duen bezala.

Barnea, askotan, penaz beteta izaten dut, ezintasunez, amore emateko gogoz...

Beste batzuetan, aldiz, pozik, baikortasunez, aurrera jarraitzeko ilusioz...

Dena nahaste handi bat balitz bezala, ikuzgailura sartu egunero barneko sentimendu horiek guztiak, eta bertatik ateratzen den nahasketa –argiketa edo garbiketa– batzuetan egunak argi ikusteko modukoak eta beste batzuetan ez hainbeste...

**ORAINDIK HITZ EGITEN EZ BADU ERE, OSO ONDO ULERTARAZTEN DU ZER NAHI ETA ZER EZ DUEN NAHI!**

Baina, eguna ilunago edo argiago ikusi, kalera irten behar da eta egunerokoari aurre egin: Inar 17 hilabeteko semea umezaintzara eraman, etxeko gauzak antolatu –arropa, jatorduak, garbiketak...–, etxez kanpoko lana egin, berriz bueltatu, bazkaldu, semea haurtzaindegitik atera, berarekin jolastu merienda jaten duen bitartean, etxera etorri, dutxatu, afaldu, jolastu eta ohera hurrengo egunera arte, atseden hartzera, ahal den neurrian, behintzat, semea gauak lo egiteko direla konturatzen den arte; hau guztia bikotekidearen laguntzarekin, nire kasuan; baina laguntza hori hor izan arren, batzuetan egunari ordu asko falta zaizkiola dirudi...

Semea asko maite dut, bizitza emango nuke beragatik, nire altxorra da, baina, askotan, badirudi bere beharrak ezin ase nabilela!

Ezin iritsi bere eskakizun guztietara; zeren eta, oraindik hitz egiten ez badu ere, oso ondo ulertarazten du zer nahi eta zer ez duen nahi!

Eta amatxo larri-larri, baina nahiak eta ez nahiak ulertzen saiatzen da.

Ezin mila zatitan banatu... baina ahalegin osoaren poza hortxe geratzen da.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA




HANDIK ETA HEMENDIK

## Lehen aldiz, pertsonaia esplizituki homosexuala izango du Disneyren film batek

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

HTTPS://LABUR.EUS/XCUQT

Disneyren pelikulak milioika haur eta helduk ikusten dituztela jakitun, aspaldiko eskaera da: pertsonaia homosexualak ere sar ditzatela filmetan. Kostatu zaio konpainiari, baina estreinatzear den *Piztia eta Ederra* obraren bertsio berriak pertsonaia esplizituki gaya izango du lehenengoz, eszena batek hala frogatzen duela aurreratu baitu zuzendariak.

Istorioko maltzurra da Gaston, eta haren laguntzailea Le Fou (irudian, elkarrekin): "Le Fouk gaur Gaston izan nahi du eta bihar Gaston musukatzea gustatuko litzaioke. Nahastuta dago, ez daki zer nahi duen. Sentimendu horiek dituela konturatzen hasi da. Eta bukaeran, momentu polit eta esklusiboki gaya izango du Disneyko film batek", azaldu du zuzendariak.

Bere aldetik, Emma Watson protagonistak azpimarratu du ukitu feminista gehitu diola Ederra pertsonaiari.

Frozen filmeko Elsa, lesbiana?

Disneyren arrakasta handietako bat eta ume askoren istorio kuttunetakoa da *Frozen*. Bada, iaz kanpaina abiatu zuten, hurrengo filmean Elsa erreginak neska-laguna izan dezan (kontrakanpaina ere izan du eskaerak). Izan ere, hainbaten ustez, protagonista lesbiana da, eta bere boterea ezkutatzeaz ari denean, benetan bere sexu-joera ezkutatzeaz ari da. "Armairutik ateratzen" den unea, pelikulako abestirik ezagunena, hartzen dute adibidetzat: "Ez duzu sentitu behar, besteek ezin dute jakin (...) Ezin diot gehiago eutsi, ez dio axola, deskubritu dute jada, utzi ezazu ateratzen (...) Aske naiz eta orain mugak gainditzen saiatuko naiz, azkenean ez dago arau gehiagorik niretzat, bukatu da fartsa".

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.
**Erredaktore burua**
Ubane Madera.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

# "Lanean jarraitzeko indarra ematen dute halako sariek"

**JOSE RAMON UNZURRUNZAGA** EAE-KO ONCE-KO SALTZAILE ONENA

**Larraitz Zeberio** OÑATI
Euskal Autonomia Erkidegoko saltzaile onenaren saria eman dio ONCE erakundeak Jose Ramon Unzurrunzaga oñatiarrari.

**Zorionak! Zer moduz sari banaketa ekitaldian?**
Aurreko aste bukaeran izan zen, oso polita. Nik uste baino gauza handiagoa, gainera. Oso pozik etorri naiz.

**Nolakoa izan zen ekitaldia?**
Ostiral eguerdian iritsi ginen Madrilera, eta bila etorri zitzaizkigun. Iluntzean, berriz, koktel bat genuen antolatuta elkar ezagutzeko. Kontuan hartu Espainia mailako sailtzaileak elkartu ginela. Afaria eta gala etorri ziren gero. Irrati batek zuzenean eman zuen eta banan-banan joan ginen oroigarriak jasotzen. Horrekin batera anekdotak kontatzeko eskatu ziguten; oso ondo egon zen.

**Zenbat saldu behar da EAEko saltzaile onena izateko?**
Ez da gehien saltzen duenari ematen zaion saria. Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko salmentak gainditu behar dituzu hainbat produktu kategoriatan. Bezeroari emandako tratua, erakundearekiko konpromisoa, eta egindako ekarpenak ere kontuan hartzen dituzte.


Jose Ramon Unzurrunzaga, Eskoriatzako salmenta puntuan, sariarekin. J. BEREZIARTUA

**Zenbat urte daramatzazu ONCEko saltzaile?**
Martxoaren 8an hemezortzi urte bete dira. Oñatin hasi nintzen, Zubillaga eta Arantzazu inguruetan. Gero, ordezkapenak egiten hasi nintzen. Uste dut bailarako puntu gehienak pasa nituela sasoi hartan. Ondoren, Arrasateko Laboral Kutxaren eta parrokiaren artean postua eman zidaten, eta bederatzi urte egin nituen han. Oso pozik egon nintzen. Eta gero, Eskoriatzara etorriko ote nintzen galdetu zidaten. Proba moduan etorri nintzen, eta zortzi urte daramatzat hemen.

**Gustura zaude Eskoriatzan?**
Oso gustura. Egia esan, bailara osoan hartu naute oso ondo, eta orain ere oso gustura etortzen naiz Eskoriatzara lanera.

**Zer saltzen duzu gehien?**
Gauza asko ditugu: pasiboak diren eguneroko, ostiraleko eta aste bukaerako kupoiak; aktiboak diren Super Once, Eurojackpot, 7/39 eta Triplexa; eta berehalako jokoak diren harraskatzeko guztiak. Denetik saltzen dut.

**Hemezortzi urteotan asko aldatu da saltzeko modua?**
Garaiak daude. Urtarrila eta otsaila motelak izaten dira, eta gero, egunak daude... Eguraldiak ere badu eragina. Uda partean mugimendu handiagoa egoten da, baina beste ordutegi batean. Norberak moldatu behar du dagoenera.

ITURRI ONETIK

## Gerra eta bakea hausnarketa-gai

Apirilaren 1ean, zapatua, Bergarako Orfeoiak kontzertu berezia eskainiko du: *The Armed Man* (2000), Karl Jenkins konpositore galestarrarena. Musika klasikoa, etnikoa eta eliza-musika bateratzen ditu obra horrek. Eta ikuskizunak, berriz, Bergarako Orfeoia, Bergarako Orfeoi gaztea, Intxorta 1937 elkartea, Candem Town dantza taldea eta zortzi musikoz osatutako ganbera-orkestra, besteak beste. Gerraren eta bakearen inguruko hausnarketa da. Emanaldia 20:30ean izango da Bergarako Udal Pilotalekuan.

GORA ETA BEHERA

## Santa Barbarako eskailerak konpondu dituzte

Arrasateko Santa Barbara parkean dauden eta ikastolara joateko horrenbeste neska-mutikok eta haien laguntzaileek erabiltzen dituzten eskailerak konpondu egin dituzte. GOIENA aldizkariaren sail honetan jaso zen, hain justu, eskailera horien egoera arriskutsuarekin lotuta guraso baten kexua, eta orain, pozik idatzi du, eskailerak konpondu dituztela jakinarazteko.


S.A.

HAU BE BADOGU!

## #Martxoak8 'trending topic' izan da sarean



Mezu ugari partekatu dituzte erabiltzaileek sarean Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira:

@*ainara_axpi*: "Gaur eta egunero M8 *#Martxoak8 #Feminismoa*".

@*Arniewest*: "Gaur martxoaren 8a, Emakumeen Eguna. Horrenbeste aldatzeko oraindik. Asko egiteko. Gora borroka feminista! *#gizonetafeministaposibleda*".

## Erresuma Batuko enbaxadorea, Arrasaten




Simon Manley, Erresuma Batuak Espainian duen enbaxadorea, Arrasaten izan da asteon:

@*SimonManleyFCO*: "*#GREATBusInSpain* autobusean Mondragoiko Unibertsitatea bisitatzen nago. Etorri ikustera! *#omgb #britisheduspain*".

@*SimonManleyFCO*: "Eskerrik asko, Arrasate, harrera beroagatik. Hurrengo geltokia: Santander" (itzulita).

## 'Euskalduna naiz eta zu' saioa berbetagai

Sare sozialak hankaz gora jarri ditu ETBko saioak, espainiarren estereotipoen inguruan pertsona ezagunek euren iritziak eman ondoren:

@*gmendiguren*: "*Euskalduna naiz eta zu* programa nahieran ikusi nahi dot. Zentsurak ez du tokirik @*eitbeus*-en".

@*juan16carlos*: "Pena da *#euskaldunanaizetazu*-ren umorea ez ulertzea. Polemika besterik ez dugu bilatzen...".

# Hiru radar jarriko dira gutxi barru

Ibilgailuen abiadura neurtuz, arrasatearren segurtasuna handitzea lortu nahi du Udal Gobernuak. 30 kilometro orduko abiadura gainditzen dutenek 100 eta 600 euro arteko isunak jasoko dituzte; kasurik larrienean, sei puntu galtzeko arriskuarekin

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Aste gutxi barru, radar bidez kontrolatuko da Arrasaten dabiltzan ibilgailuen abiadura. Helburua, garbia: 30 kilometro orduko abiadura errespetatzea eta, bide batez, auto harrapaketen eta istripuen kopurua gutxitzea. Isunak 100 eta 600 euro bitartekoak izango dira, eta, azken kasu horretan, gainera, sei puntu galtzeko arriskua ere izan daiteke.

**Hiru neurgailu**

Horietako bat Garibai etorbidean kokatuko da, garraio publikoak igarotzen diren errepide zatian, hain zuzen. Errepidetik oso gertu haurrek jolasteko parkea dago, eta hainbat herritarrek kexak eta salaketak jarri dituzte, autobusen abiadura gehiegizkoa dela ohartarazteko. Maria Ubarretxenak aurrekontuen zirriborroaren aurkezpenean aipatu zuenez, hainbat aldiz jakinarazi diote Lurraldebusi autobusak azkarregi igarotzen direla zona horretan. Hala ere, Udalaren abisuek ez dute fruiturik eman, eta radarren sistemari esker kexa horiek frogatzeko aukera izango du Udalak.

Gainontzeko bi neurgailuak Polmetasa zaharra zegoen tokian eta Garaia Gune inguruan jarriko dituzte, bertan izandako istripuek leku arriskutsuak direla frogatu dutelako. Errepidearen alde bakarrean kokatuta egon arren, bi noranzkotan igarotzen diren ibilgailuen abiadura neurtuko dute.

**Bakarra funtzionamenduan**

Hiru radarrek ez dute aldi berean funtzionatuko. Udalak gailu bakarra alokatuko du, eta leku batean edo bestean kokatuko du, txandaka. Ibilgailuetako gidariek ez dute martxan dagoen edo ez jakingo, baina ezjakintasun horren eraginez abiadura errespetatu egingo dutela espero da. Diru gutxiago erabiliz efektu bera lortzea izan da helburua.

**Dirua giza eragileentzako**

Gehiegizko abiaduragatik jasotako isunen dirua auto istripuak saihesteko eta horien biktimekin lanean dihardDuten erakundeetara bideratuko da bere osotasunean.

**Etorkizunean, bost radar**

Hiru radarrekin egingo dute proba, baina, aurrerago, beste bi jarriko dituzte, lekua oraindik zehaztuta ez dagoen arren.



Garibai kalea zeharkatzen duen errepidean kokatuko dute neurgailuetako bat. X.G.




Garaia Gunetik gertu radarra egongo da aurrerantzean. X.G.



San Andresen, Polmetasaren lehengo egoitzatik gertu, radarra jarriko dute. X.G.

## Zer iruditzen zaizu herrian radarrak jartzeko neurria?



**MAIDER MARTIN**
LANGILEA

"Neurria ondo dagoela iruditzen zait; batez ere, auto istripuak eta harrapaketak saihesteko lagungarria izango delako. Egia da hemen, Garibain, autobusak oso azkar pasatzen direla, eta kontuz ibili behar dela gurutzatzerakoan. Hala ere, 100 eta 600 euro arteko isunak gehiegizkoak direla uste dut".



**OMAR FERNANDEZ**
LANGILEA

"Ongi iruditzen zait radarrak jartzea, herri honetan autoarekin zoroaren pare aritzen garelako askotan. Hobe da ezbeharrak ez gertatzeko neurriak hartzea, istripu bat gertatu ondoren kezkatzea baino. Hala ere, Udalak lan informatiboa egin beharko lukeela uste dut, neurriaren xehetasunak emateko".



**MERTXE HERMOSEL**
LANGILEA

"San Andresko zati horretan 30 kilometro orduko abiadura motelegia iruditzen zait. Beste leku batzuetan, akaso, aproposagoa da 30ekoa, baina tarte horretan gehiegizkoa iruditzen zait. Hala ere, abiadura kontrolatzeko neurriak begi onez ikusten ditut, segurtasuna bermatzea garrantzitsua delako".



**ALBERTO LEJARRAGA**
LANGILEA

"Ondo iruditzen zait. Denok ibiltzen gara 30 kilometro orduko abiaduratik gora, eta, berez, debekatuta dago. Isunak jarri baino lehen, herritarrei abisua eman beharko ligukete, radarra ez errespetatzeagatik dauden isunak zehaztuta. Hori egin ezean, jende askok isuna jasoko du neurri horren berri izan gabe".



**EIDER DEL CAMPO**
LANGILEA

"Herri barruan autoak azkar ibiltzea arriskutsua iruditzen zait, eta, beraz, neurri horrek segurtasuna handituko duenez, ondo dagoela iruditzen zait. Era berean, gehienezko abiadura ez errespetatzeagatik 100 eurotik gorako isunak jartzea eta puntuak galtzeko aukera gehiegizkoak direla esango nuke".

# Mozioak protagonista martxoko osoko bilkuran

Bedoñara bidean dagoen Lanako lotunean biribilgunea egitea onartu zuten aho batez, eta, onartutako mozioen artean, Herri Eskolak transformadorea kentzeko jarritakoa, EH Bilduk dispertsioari buruz aurkeztutakoa eta frankismoaren biktimei justizia egitekoa

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Askorako eman zuen martitzeneko osoko bilkurak. Sei gai eta zortzi mozio zeuden mahai gainean, eta gehienek aurrera egin zuten.

Lehenik eta behin, Bedoñara bidean dagoen Lana lotunean biribilgunea egitea adostu zuten aho batez. Maria Ubarretxenak adierazitakoaren arabera, lanak ekainean edo uztailean hastea espero dute. "Segurtasuna handituko da, eta bertan inbertsioak egin behar dituzten enpresentzat erraztasun logistikoak ekarriko ditu".



Arrasateko udalbatzako kideak martitzeneko osoko bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA

## Askotariko mozioak

Hori eginda, Arrasateko Herri Eskolak Musakolako Herri Eskola handitzeko transformadorea kentzeko aurkeztutako mozioa onartu zuten aho batez. Eusko Jaurlaritzak duela 13 urte onartu zuen handitze prozesua, baina ezin izan da gauzatu, besteak beste, finantziazio arazoak izan direlako eta transformadorea dagoelako. Herri Eskolako Guraso Elkarteak kasua Arartekora eramateko hautua hartu zuen, Udalak eta Jaurlaritzak transformadorea kentzeko duten ezintasuna ikusita.

8. puntuan, frankismoaren biktimei justizia egiteko mozioa onartu zuten aho batez, testu bateratua irakurri ostean. Hala, Arrasateko Udalak kereila kriminala jarriko du, Buenos Airesen frankismoaren aurka abiarazitako prozesu judizialarekin bat eginez.

EH Bilduk dispertsioaren amaiera eskatzeko mozioa proposatu zuen. Orain dela gutxi Premin San Pedroren senideek jasandako auto istripuaren harira, elkartasuna adierazi nahi izan zuen Eneko Barberenak, eta jarraian, dispertsio politika amaitzeko neurriak eskatu zituen. Alderdi guztiek alde bozkatu zuten, sozialistek izan ezik; galde-eskeen tartean, Isaias Carrascoren heriotzaren 9. urteurrena izanda mozio horri bozkatzeari uko egin ziotela azaldu zuen Oscar Garciak.

## Hiru aldeko akordioa

Baleikek otsailaren 27an aurrekontu parte hartzaileagoak egiteko eskaria egin zuen. Osoko bilkuran mozio bezala joan behar zen, baina, Udal Gobernuarekin minimo batzuk adostu ondoren, kentzearen alde egin zuten.

# Herritarren txanda Ferixalekuko azoka biziberritzeko prozesuan

Astelehenean hasi eta martxoaren 19ra bitartean herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute

**X.G.** ARRASATE

Ferixalekuko azokako instalazioak berritzeko eta bertan ematen diren zerbitzuak herritarrentzat erakargarriak izateko parte hartze prozesua antolatu du Arrasateko Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak Sailak.

2016ko ekainean 500 pertsonari egindako inkestak argi utzi zuen azoka duela 40 urtetik dagoen toki berean mantentzearen alde zegoela arrasatearren lagin adierazgarri bat.

## Ekarpenak bi modutara

Behin hori jakinda, egutegi, zerbitzu eta baliabide alorrean zein aldaketa egin behar diren jasotzeko, parte hartze prozesua abiarazi dute, ekarpen zein inkesta bidez herritarrek euren iritzia helarazi dezaten.

Horretarako epea astelehenean hasi zen eta martxoaren 19ra arte iraungo du. Ekarpenak fisikoki egin daiteke, BAZen, Etxaluze egoitzan, Musakola kiroldegian edo Kulturaten jarritako buzoietan. Horretaz gain, udal webgunean dagoen inkesta betez ere eman daiteke iritzia.

Parte hartze prozesuko emaitzak pilatu ostean, mahai sektorial batean landuko dira bertan jasotakoak. Hainbat hankadun mahaia izango da, bertan izango baitira saltokien emakidadunak, baserritarrak, merkatariak, azokako komunitateko bizilagunak eta udal teknikaria, besteak beste.

Behin parte hartze prozesua amaituta, inkestako, parte hartze paneletako eta mahai sektorialeko ondorioak laburpen txosten batean laburbilduko dituzte.

Horren ondoren, Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak Sailak txosten hori aztertuko du. Asmoa da jasotako proposamenen artean onarpen handiena jaso dituztenak lehiaketaren xedeko Azoka Proiektuaren baldintzen agirietan gehitzea.

### Inkestako galderak

- Zer alderdi hobetu behar dira azokako instalazioetan?
- Gaur egun ditugunak baino azoka-egun gehiago behar al dira?
- Saltoki finkoak irekitzeko ordutegia nahikoa iruditzen al zaizu?
- Saltoki finko gehiago beharrezkoak al dira? Zein motatakoak?
- Azoka edo feria berezien mota eta eskaintza zabaltzea beharrezkoa al da?
- Beste zerbitzu batzuk eskaini beharko al lituzke azokak?

Kontxi Tamayo, doktorea.
Dermatologoa

DERMATOLOGIA
• Aknea, psoriasia, akne arrosa, ...
KIRURGIA DERMATOLOGIKOA
• Lunarrak, kisteak, garatxoak, azaleko minbizia, ...
DERMATOLOGIA ESTETIKOA
• Zimurrak, zuloak, zuzenketak azido hialuronikoarekin, peelingak
LASER
• Aurpegiko zaintxoak, gorritasunak, kouperosia, akne arrosa, eguzkiak eta adinak eragindako orbanak. Depilazioa.
DERMATOSKOPIA DIGITALA (FOTOFINDERRA)
• Lunarren kontrola eta azaleko minbiziaren diagnostiko goiztiarra.

Laser bidezko tratamenduak

AKNEA

LESIO BASKULARRAK

FOTOGAZTETZEA

ZUATZU KLINIKA Nafarroa etorbidea z/g, behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 18 / 620 12 48 43
Partikularrak • Aseguruak: *Lagun Aro, Sanitas, Previalia, Generali.*
RPS: 256/15

# Martxoaren 8ko ekintzak, 'asko eta askotarikoak'

Hori izan da aurtengo aldarrikapenetarako aukeratutako leloa, feminismoak kolore eta jatorri askotarikoak direla adierazteko. Garbiñe Biurrenen berbaldia eta zapatuko emakume artisau eta baserritarren azoka dira aurtengo ekintza nagusietako bi

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Emakume izatearen harrotasuna plazaratzeko eta berdintasunaren bidean pausoak ematea aldarrikatzeko eguna izan zen asteazkenekoa. "Guretzat, aldarrikapen eguna da, tamalez, oraindik asko dagoelako egiteko emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alorrean. Baina, era berean, festarako eta ondo ospatzeko eguna da guretzat", adierazi du Amets Beltran de Gebarak, Emakume Txokoko teknikariak.



Eguazteneko manifestazio jendetsua, Maala kalean zehar. ENEKO AZURMENDI

**'Asko eta askotarikoak'**

Aurtengo leloak argi adierazten du mugimendu feminista gero eta sendoagoa eta jendetsuagoa dela, eta horren adierazle da aurtengo Martxoaren 8ko egitaraua antolatzeko elkarlanean aritu diren erakundeen sare zabala. Udaleko Berdintasun Saila, Ekin Emakume Elkartea, Emakumeen Mundu Martxa eta Potto Gorriak aritu dira, besteak beste, aurtengo ekintza sorta prestatzen.

**Hamaika ekintza**

Pasa den zapatuko *Amodio erromantikoa* tailerrarekin hasi zuen bere ibilbidea aurtengo egitarauak, eta datorren zapatuan beste tailer bat egingo dute, autoestimu feminista lantzeko.

Bi erakusketa izan dira aste honetan ikusgai: *Artean. Hamaika Emakume Artista II* Kulturaten eta Martxoaren 8ko kartelen erakusketa Emakume Txokoan.

Eguaztenean manifestazio jendetsua abiatu zen Seber Altubetik, Sambamaña batukadak girotuta, eta gizon eta emakume ugarik bat egin zuten emakumeen eskubideak aldarrikatzeko.

**Bihar azoka berezia**

60 posturekin osatutako azokak Seber Altubeko bazterrak hartuko ditu bihar goizean, 11:00etatik 14:00ak arte. "Dozena bat izango dira Arrasateko artista eta baserritarrenak. Aipagarria da 100 eskaera inguru jaso ditugula azokarako, baina, tamalez, Seber Altubek ez du gehiagorako ematen, eta 60 lagunen muga daukagu. Pozgarria da hainbeste eskari jasotzea", adierazi du Beltran de Gebarak.

Datorren astean bi hitzordu izango dira: *Suerte* antzerki emanaldia 17an eta *Zinegoak* film laburren emanaldia 23an.



Biurrun, Santestebanen galderak erantzuten. AMETS BELTRAN DE GUEVARA

## Kulturate beteta Biurrun entzuteko

Martitzenean gizon eta emakume ugarik areto nagusia bete zuten, Arantza Santestebanek eta Garbiñe Biurrunek eskainitako berbaldia gertutik jarraitzeko. Indarkeria matxista, hezkuntzaren garrantzia eta egoera politikoa izan ziren jorratutako gai nagusiak.

ARRASATE IRRATIA

## Zozketak

Eguenean Izaro abeslariak Koltur Ostegunak barruan eskainiko duen zuzenekorako sarrerak zozketatu ditugu.

Egubakoitzean, berriz, Kataluniako Lagrimas de Sangre taldeak egun berean Oñatiko Gaztelekuan egingo duen kontzerturako sarrerak banatuko ditugu. Parte hartzeko, *irratia@goiena.eus* helbidera idatzi edo 943 25 05 05 telefonora deitu.

## Arrasaten bizi diren txantxikuarren bazkaria hilaren 18an

200 oñatiar inguru bizi dira Arrasaten, eta, azken urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere bazkaria egiteko elkartuko dira.

Datorren zapaturako, hilaren 18rako, jarri dute hitzordua, eta joan nahi dutenek Kajoi tabernan eman beharko dute izena martxoaren 12a baino lehen. Bazkariko txartelaren prezioa 40 euro da.

## Dunixe Royorekin apaingarriak egiten hasteko ikastaroa

*Zeuk egin!* da ikastaroaren izena eta Arrasateko Gazteria Sailak antolatu du. Besteak beste, feltrozko apaingarriak, eskuz pintatutako katiluak, kamiseta pertsonalizatuak eta poltsak egiten ikasteko lau saioko ikastaroa izango da.

Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dituzte saioak, astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa datorren astelehenean hasiko da, eta apirilaren 4an egingo dute azken saioa. 30 euroko kostua izango du, eta langabe zein ikasleentzat, aldiz, 20koa.

**Izen ematea zabalik**

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek Arrasateko Udalaren webgunean, Gazte Bulegoan, 943 25 20 65 telefonora deituta edo *gaztebulegoa@arrasate.eus* helbidera idatzita egin dezakete izen ematea.

## Interneten arriskuak gurasoekin lantzeko hitzaldia

Arrasateko Prebentzio Sailak gurasoei zuzendutako hitzaldi bat antolatu du martxoaren 14rako. Kulturateko areto nagusian egingo da, 18:00etan, eta izen ematea zabalik izango da martxoaren 13ra arte.

*Ziberbullying*-a, *grooming*-a, *sexting*-a, *sextortsioa* eta sare sozialen erabilerari buruzko gakoak landuko dituzte bertan.

## Gaztetxearen eskutik 'Alternatiben azoka' martxoaren 25erako

Eraldaketa soziala bultzatzen duten eragile ugari Seber Altuben plazan batuko dira hilaren 25ean.

11 hitzaldiz osatutako egitaraua prestatu dute, elkarteen helburu eta funtzionamenduen berri emateko, eta, horretaz gain, argitaratzaile ezberdinek fanzine, disko eta liburuak saltzeko postuak jarriko dituzte.

## Janari banaketa etenda, lokal faltaren eraginez

Arrasateko Eliza Ebanjeliko Pentekostala behartsuenen artean janari banaketa egiten aritu izan da azken urteetan.

Bertako kideek emandako datuen arabera, jatorri askotariko Arrasateko 400 familiari eman diote laguntza hori, guztira 1.147 pertsona izan dira. Hala ere, aktibitate solidario horrekin jarraitzeko borondatea izan arren, ezin izango dute aurrerantzean eskaini, horretarako lokalik gabe geratu direlako.

**Lokal eske**

Arazo horren aurrean, zera adierazi du Jairo Arevalok, Elizako kideak. "Urte hauetan guztietan euren laguntza eskaini digutenei eskerrak eman nahi dizkiegu, lehenik eta behin. Horrez gain, norbait lokal bat uzteko prest balego, jarri dadila gurekin kontaktuan". Kontakturako telefonoa hauxe da: 660 43 71 94.

# "Erreferente izan gura dugu moda intimoan"

**ESTIBALIZ ETXABURU** PROMISE KORTSETERIA ETA LENTZERIA DENDAKO UGAZABA

"Eder egoteko eta eroso sentitzeko" barruko jantziak, bainu-jantziak, lotarakoak eta beste diseinatzen dituen Promise markak saltokia zabaldu du Arrasaten

Promise Arrasate kortseteria eta lentzeria denda urrian zabaldu zuten. Ordutik hona, Estibaliz Etxaburu ugazaba Debagoieneko emakumeak janzteaz arduratu da produkturik onenak eta arretarik egokiena eskainita. Bada, denboraldi-aldaketa bete-betean, minutu batzuk eskaini dizkigu, eta, Promiseren gainean sekretutxo batzuk kontatzeaz gainera, udaberrian eta udan ze joera izango den ere azaldu digu.

**Pozik, Promisek izan duen harrerarekin?**

Oso pozik. Ia sei hilabete hauetan dendari egin dioten harrerarekin oso gustura nago. Arrasaten eta Debagoienean zegoen eskaintza osatu gura genuen marka desberdin batekin, orain arte nahiko ezezaguna izan dena gure inguruan, eta uste dut lortu dugula. Atsegin dut Promisera etortzen diren emakumeak eroso eta gustura ikustea, baita dendak euren behar guztiei erantzuna ematen sentitzea, adina edo neurria edozein dela ere. Horregatik, Promise bera eta ni neu geratzeko asmoz etorri gara; Debagoieneko emakumeendako erreferente izan gura dugu moda intimoan.

**Ze produktu mota eskaintzen du Promisek?**



Estibaliz Etxaburu, denboraldi berriko jantziekin, dendan.

Promise oso marka estimatua da Espainiako Mediterraneoan eta Levante aldean, baita Italian eta Frantzian ere, kalitate goreneko produktuak dituelako; izen handiko marken produktuen antzeko kalitatea edo hobea du, oso prezio onean. Bilduma zabala eskaintzen du kortseterian, lentzerian, lotarako arropan, loungewear delakoan eta bainurako arropan; neurriak, patroiak eta kopak erosotasunera bideratuta daude –kopa aukera handia dugu, gainera–, modari uko egin barik. Batez ere, emakumeendako arropa eskaintzen du, baina baita gizonezkoendako ere: pijamak, barruko kamisetak, slipak, eta abar. Hortaz, Promisek askotariko produktuak eskaintzen ditu, guztiondako.

**Zure ustez, garrantzitsua da barruko arropa egoki aukeratzea?**

Oso garrantzitsua da, nire ustez. Askotan, ez diogu erreparatzen ehunen erosotasunari edo gure neurri propioari; zerekin gauden eroso eta zerekin mugi gaitezkeen askatasun osoz. Horregatik, bezeroekin dudan harremana oso zuzena da, gustuko dut haiei aholkuak ematea, euren beharrak aseta eta zalantzak argituta. Barruko arropa oso garrantzitsua da emakumeondako, eta, gustura egonda jantzita daramagunarekin eta gure gorputzarekin, jarrera-aldaketa eragin dezake gure egunerokoan.

**Ze dakar Promisek denboraldi berrirako?**

Dendaren itxura bera aldatu egin dugu. Lentzeriari dagokionez, denboraldi honetan ehun leunetara jo du; mikrozuntza eta enkaje delikatua eskainita, adibidez. Pijamei, alkandora arinei eta etxe-jantziei dagokienez, kotoia eta modala. Look osoa eskaintzen du kortseteriarekin konbinatuta. Bainuko arropari dagokionez, gaur egungo emakumeendako jantzi dotoreak ditugu, eta freskoagoak eta alaiagoak espiritu gaztea dutenendako, patroi, forma, kolore eta estanpatuetan aukera zabala eskainita; izan ere, bero eta hondartza premia handia dago! Egia esatearren, oso aukera ona da jendea denda bisitatzera etor dadin. Debagoieneko emakume guztiei gonbita egiten diet dendara etor daitezen; Arrasate erdialdean gaude, Portaloi ondoan; etor daitezela Promise produktuak ezagutzera, uki ditzatela, senti ditzatela. Eder egoteko eta eroso sentitzeko diseinatuta daude moda intimoko Promise produktuak. Erosotasunera bideratuta daude, modari uko egin barik.

**"ATSEGIN DUT PROMISERA ETORTZEN DIREN EMAKUMEAK EROSO ETA GUSTURA IKUSTEA"**

**"PROMISE OSO MARKA ESTIMATUA DA ESPAINIAN, BAITA FRANTZIAN ETA ITALIAN ERE"**

**"JANTZITA DARAMAGUNAREKIN GUSTURA EGOTEAK JARRERA-ALDAKETA ERAGIN DEZAKE"**

PROMISE
Barruko arropa • Lentzeria
DENBORALDI BERRIA!!
Maisu Arano kalea, 8 Arrasate
Tel.: 943 79 72 59
promisearrasate@gmail.com
promisearrasate









Juan Antonio Irizar, ezkerretik bigarrena, domekan Dorletako Aman; zikloturistek hasi dute denboraldia. TXEMA ARANZABAL

# "Bizikletan ibiltzeko ez dago adin mugarik"

Debagoiena Txirrindulari Klubeko ordezkariek domekan egin zuten lehenengo irteera, Dorletako Amarengana; 70 bazkide dituzte klubean, eta udazkena bitartean bi mila kilometro baino gehiago egingo dituzte bizikleta gainean

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Debagoieneko Txirrindularitza Klubak hasi du –ofizialki– denboraldia, nahiz eta, seguruenik, bertako kideek asteak daramatzaten, isilpean, hanketan kilometroak pilatzen. Izan ere, garai batean zikloturistek atseden hartzen zuten neguko hilabeteetan, baina egun, askok eta askok urte osoan erabiltzen dute bizikleta.

Bada, joan den asteburuan egin zuten denboraldi hasiera, ohiturak agintzen duen moduan, Dorletara igo eta ama birjinari lore eskaintza eginda. Kuriosoa da: sinestuna izan edo ez, asko dira Dorletako Amarenganako –ziklisten zaintzailea– debozioa dutenak. "Eguraldi nahasi samarra izan genuen, baina taldetxo polita batu ginen; lore eskaintza egin eta gero, hamarretakoa egin genuen Uribarrin".

### Bi mila kilometrotik gora

Datozen hilabeteotan, bada, Debagoiena Txirrindulari Taldekoek domekero izango dute hitzordua: "Lehenengo irteerak motzak egiten ditugu, gorputza kilometroak egitera ohitzen joan behar delako. Luzeenak, berriz, ekain inguruan egiten ditugu; luzeenak 120 kilometro inguru izango ditu, eta irteera guztietatik ehuneko kopuru bat egiten duena saritu egiten dugu. Guztira, aurten 2.300 kilometro inguru egingo ditugu domekero".

### 70 lagun klubean

Debagoiena Txirrindulari Klubak 70 bazkide inguru ditu, eta batzuk adinez nagusiak: "Hori du ona kirol honek, nagusiek ere praktikatu dezaketela, ez dagoela adin mugarik. Hala, nagusiena Pedro Etxagibel (1932) izango da eta ondoren Joxe Menendez (1934). Horiek ohorezko bazkideak dira, baina Jesus Parra (1943), esaterako, bizikletan dabil, eta asko dira 70 urte inguru dituztenak: Arantzabal, Oregi, Larrañaga...".

**UDAZKENA BITARTEAN BIZIKLETA GAINEAN 2.300 KILOMETRO INGURU EGITEKO AURREIKUSPENA DUTE**

Zikloturista gazteak bai, baina emakumezkoak ere gerturatu gura dituzte klubera, geroago eta gehiago dira-eta bizikletan dabiltzanak: "Horrekin batera, Ignacio Zuloaga kalean dugun lokala dinamizatu gura dugu. Udalarena da lokala, eta bertan gimnasio txiki bat dugu. Bada, gaur egun, ez dugu askorik erabiltzen, materiala zaharkiturik dugu, eta buelta bat eman gura diogu horri".

### Ekainean Erronkarira

Domekero irteerak antolatzearekin batera, ekain erdi inguruan Erronkarira joango dira, urtero egiten dute-eta asteburu osoko irteera bat: "Larrau, Belagua... Mendate horiek igotzeko asmoz joango gara Pirinioetara".

# MUk EBA mailako liderra hartuko du Iturripen bihar

Larreategiren mutilek Estela Cantabria taldea izango dute aurrean; partidu bakarra galdu dute

**X.U.** ARRASATE

Ligako kontrario gogorrenetakoa izango dute aurrean bihar Mondragon Unibertsitateko ordezkariek, Estela Cantabria (Zapatua, 18:30, Iturripe). Egutegiaren zati gogorrenean dira Josu Larreategiren mutilak, joan den astean ere ezer gutxi egin ahal izan zuten-eta bigarren dagoen La Gallofaren kantxan (71-53). Hala, bistan da EBAko multzo honetan Kantabriako taldeak koska bat gorago daudela, eurak dira-eta sailkapenean agintzen dabiltzan taldeak.

### Porrot bakarra

Biharko kontrarioak partidu bakarra galdu du orain arte. Hain zuzen, kantabriarren arteko derbian La Gallofakoak gehiago izan ziren (62-74); gainera, Estelakoen kantxan.

Horrenbestez, biharko helburu nagusia laurden guztietan lehiakorrak izatea izango da, kontrarioa estutzea, jakinda liga amaierara arte geratuko zaizkien sei partiduetatik bi baino ez dituztela jokatuko etxean, Grupo Santiagoren eta Ulaciaren kontrakoak.

## Musakolako mendi bizikleta irteera, maiatzaren 10ean

Dagoeneko zabalik dago Musakolako mendi bizikleta martxarako izen-emate epea (*kirolprobak.com*). Urtero moduan, Musakolako jaien bueltan antolatuko dute irteera, baina aurtengoa berezia izango da, 10 urte beteko ditu eta. Hala, martxara doazen ziklistek maillota eramango dute etxera, opari.

## Laugarren postuan egonkortu da Ford Mugarri Arrasate

Basauriren, Izarraitz Muñozen eta Corazonistasen atzetik, laugarren postuan egonkortu da Ford Mugarri Arrasate, joan den astean Hondarribiari 29-24 irabazi eta gero. Zapatuan ligako 13. garaipena eskuratzera joango dira Zarautzera, atzealdean dagoen Txikipoliten kontra (19:15) jokatzera.



ARRASATE DRAGOI GIMNASIA TALDEA

# Gasteiztik eta Irundik, pozik

Joan den asteburuan Arrasate Dragoiko gimnastak Irunen eta Gasteizen lehiatu ziren. Lan aipagarria egin zuten denek, baina nabarmentzekoa da Gasteiz Hiria torneoan, taldeka, kadete mailako ordezkariek eta gazte mailakoek lortutako lehenengo postua.

# Argazki erakusketa Pako Manhattan-en eskutik

Karakterizazio ezberdinak azaltzen dituen argazki erakusketa da Pako Manhattan argazkilariak aurkeztu duena. Lan horretan, pertsona batez baliatu da, janzkera, orrazte, makillaje, eta abarrekin pertsonaia ezberdinak sortuta

**Ane Vitoria** ARRASATE

Erakusketa Hilbera tabernan izango da martxoaren 4tik apirilaren 4ra arte. Oraingoa argazkilari horren bigarren erakusketa da; izan ere, aurretik egina zuen monografiko bat. Lehenengoa duela bi urte aurkeztu zuen, zazpi argazki-lanez osatuta zegoena. Eta bigarren erakusketa horretan ere, zazpi argazki daude. Horietan guztietan hainbat eta hainbat gai azaldu nahi izan ditu, eta, horretarako, karakterizazio ezberdinez baliatu da. Dibertimendua, errepresalia, transgeneroa, zoramena, arrazartekotasuna... mota horretako gaiak lantzen ditu, baina denek ezaugarri garrantzitsu bat dute komunean: protagonista.

**Modelo "kamaleonikoa"**

Jose Luis Aguado da erakusketa horren protagonista. Duela bost urte, Manhattanek galdetu zion ea posible zen argazki bat ateratzea, eta hark erantzun zion 4 urte zituenetik ez zuela argazkirik atera. Manhattanek aitortu du argazkia atera eta ikusi zuenean, Aguadoren artista izateko kapazitateaz maitemindu zela. Horrela hasi zen bi artista horien arteko erlazioa. Geroztik, elkarlanean aritu dira eta bost urte hauetan asko izan dira atera dituzten argazkiak; izan ere, erakusketan zazpi argazki egon arren, hainbat eta hainbat dira argazkilari arrasatear horrek Aguadori ateratakoak. Manhattanen ustez: "Denborarekin pertsonen naturaltasuna ahultzen doa, eta izan daiteke behin eta berriz jartzen garelako ispiluaren aurrean. Aldiz, Aguadorekin ez da hori gertatzen, naturaltasuna mantentzen du edozein egoeratan egonda ere. Horregatik diot izaera *kamaleonikoa* duela. Eta honela lan egitea, niretako, behintzat, plazer bat dela aitortu behar dut".

**Transformazio prozesua**

Aipatutako pertsonaia horiek lortzea prozesu luzea izan dela onartu du Manhattanek. Izan ere, argazkilaritza ez da haren lanbidea; denbora librean egiten duen artea baizik. Hala ere, lan sakona egin du pertsonaia horiek guztiak lortzeko, eta, karakterizazio ezberdin horiek islatzeko, janzkeraz eta makillajeaz baliatu da, batik bat. Emaus-en laguntza izan du; hara joaten da, eta sortu nahi duen pertsonaiaren arabera arropak aukeratzen ditu. Makillajean ere laguntza izan du kasu batzuetan; hala ere, gehienetan, hura izan da makillatzailea. Elementu horiei guztiei esker lortu ditu Manhattanek pertsonai ezberdin horiek guztiak.



Pako Manhattan, erakusketan. ANE VITORIA

## Izaro abeslaria izango da Kooltur Ostegunetan

Kooltur Ostegunek musikaz blai betetzen dute Arrasateko gaztetxea ostegunero. Oraingoan, pop-rockaren erreferente gaztea den Izaro ikusteko aukera izango da, martxoaren 16an. Izaro Andres 24 urteko mallabitarra da Izaro, eta, oso gaztea izanda ere, arrakasta handia lortu du oso denbora laburrean; *Paradise* izeneko lehenengo singlea argitaratu zuenetik, hain zuzen. Musikari horren abestiak atseginak eta lasaiak dira, eta, pop estiloaz gain, beste musika estilo batzuk ere lantzen ditu; soula, esaterako. Kontzertua gaueko hamarretan izango da Arrasateko gaztetxean eta sarrera 5 euro da.

## Crap taldeak Arrasateko gaztetxean joko du

Aretxabaleta eta Arrasateko kidez osatutako punk-rock talde horrek kontzertua eskainiko du gaur gauean. Duela hilabete inguru, diskoa argitaratu zuten, binilo formatuan, hain zuzen, eta bertan, lau abesti berri daude entzungai. Diskoaren ekoizpena Capsula taldeko Martin Gueveraren eskutik etorri da. Kontzertuan, singlearen aurkezpena egingo dute eta beste talde batzuen bertsio ezberdinak ere joko dituzte. Crap taldeaz gain, beste bi musika taldek joko dute gaztetxean: Orreaga 778 eta Fred And The Perrys-ek. Kontzertua Arrasateko gaztetxean eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaueko hamarretan hasita.

## DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



### SONIA FLORESEN IBILBIDEA




Sonia Flores arrasatearrak ondo ezagutzen du Lanbide Heziketa; izan ere, 3. heziketa zikloa ikasten ari da, guztiak pertsonen osasun edo arretarekin lotutakoak. Egun, Osasun Larrialdiak erdi-mailako ziklo berria ikasten dabil Arizmendi Ikastolan.

**Zein izan da zure ibilbidea Lanbide Heziketan?**

Batxilergoa bukatuta, pertsonen arretarekin lotutako zerbait ikasi nahi nuen, eta Gizarteratzea goi-mailako zikloa ikasi nuen. Ondoren, Erizaintzako Zaintza Osagarriak erdi-mailakoa egin nuen, egoitza batean lanean ari nintzen bitartean.

**Osasun Larrialdiak zikloa berria da eskualdean. Zergatik aukeratu duzu?**

Sorospen ikastaro bat egin nuen Gurutze Gorrian, eta, ordutik hona, boluntario ibili naiz urte askoan, bertan, anbulantzietan lanean. Asko gustatzen zait pertsonei laguntzea, eta nire profila osatzeko hasi naiz berriz ere ikasten. Eskualdean eskainiko zela jakin nuenean, ez nuen zalantzarik izan, eta oso gustura nabil.

**Beraz, ikasten, lanean eta boluntario lanak egiten ibili zara batera?**

Bai; gogorra izan zen, baina gauza bat gustuko duzunean, badakizu, ez da hainbeste kostatzen....

**Zer iruditzen zaizkizu Lanbide Heziketako zikloetako ikasketak?**

Ikasten dituzun gauzak egunerokotasunean erabiltzen dituzu; gainera, egin ditudan zikloak osagarriak dira, eta anbulantzian noanean, Erizaintzako Zaintza Osagarrietan ikasitakoa ere erabiltzen dut. Uste dut lan-merkatuan eskaera handia dagoela pertsonen zaintzarekin lotutako zikloetan.

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka
GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten
goiazdebagoiena
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia



Herriko hainbat gaztetxo Gabonetako parkean. M.A.

# Gurasoen kezka diren gaiak lantzeko saioak

Komunikazioa indartzeko hiru saioko trebakuntza eskaini die Guraso Foroak nerabeen gurasoei, eta bihar, zapatua, hasiko dituzte. 12 urte arteko umeen gurasoendako, ostera, transexualitatearen eta bullyingaren gaineko hitzaldiak egongo dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Herriko gurasoei baliabideak emateko asmoarekin bi trebakuntza saio antolatu ditu Guraso Foroak. 12 eta 17 arteko seme-alabak dituztenendako hiru saio egingo dituzte, komunikazioa indartzeko, Ardatz formazio zentrokoen gidaritzapean. Lehenengo saioa zapatu honetan da (09:30-12:30), Arkupen, eta landuko duten gaia: *Komunikazioa hobetzeko jarraibideak*. Hurrengoa hilaren 25ean izango da –*Gatazken ebazpena eta negoziazioetarako teknikak*– eta hirugarrena apirilaren 1ean –*Familia sistema gisa lantzea: arauak, rolak*...–. "Gurasoen eta nerabeen arteko harremanak landuko ditugu, orokorrean", jakinarazi du Ardatzeko kide Mikel Makazagak.

**Transexualitatea martitzenean**

Bestetik, 12 urte arteko neska-mutikoak dituzten gurasoendako zeresan handia ematen dabiltzan bi gai hautatu dituzte lantzeko. *Haurren transexualitatea* izango du berbetarako gai martitzenean, hilak 14, Chrysalliseko – transexualitate egoeran dauden haur eta gazteen familien elkartea– Bea Sever adituak.

Eta martxoaren 28an eta apirilaren 4an *bullying*-aren gainean jardungo du Eli Moreno psikologoak: *Bullyinga, non dago muga?* "Besteak beste, landuko du *bullying* kasu bat zer den, zelan detektatzen den eta gurasoen sentimenduak zelan kudea daitezkeen gatazka batean", jakinarazi du Gazteria teknikari Maider Etxanizek. Hiru hitzaldiak Arkupen dira (18:00), euskaraz. Eta izena aurrez ematea komeni da, Arkupera joanda edo mezu bat bidalita: *gazteria@aretxabaleta.eus*.



**BEA SEVER**
CHRYSALLIS ELKARTEA

**"Beste haurrak bezalakoak dira transexualak"**

"Transexualitatea haurtzaroan ezagutzeko bidean laguntzeko argibideak emango ditut. Transexualitatearen inguruko ezagutza zabaldu da azkenaldian, eta, horren ondorioz, gero eta haur gehiago izan daitezke. Eta gurasoek transexualitate egoera baten aurrean daudela jakiten dutenean, izua dute nagusi ezjakintasunaren ondorioz. Baina beste haurrak bezalakoak dira gureak eta halaxe esango dut".



**ELI MORENO**
PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

**"Helburua da 'bullying'-a ze den jakitea eta bereiztea"**

"Gai konplikatua da, baina landu egin behar da; *bullying* kasuak gertatu egiten dira eta esku-hartzea beharrezkoa da; prebenitzea, are beharrezkoagoa. Helburua *bullying*-a zer den jakitea da, egoera ezberdinak bereiztea eta bakoitzak ditugun baliabideekin ahalik eta modu egokienean eragiten ikastea. Gaia larria dela badakigu, baina beldurrak ezin gaitu eraman kasu guztietan *bullying* egoera baten aurrean gaudela esatera".

## Ekitaldi mordoarekin girotuko dute Korrikaren etorrera

Kantu-poteoa, film eta musika emanaldiak, mendi irteera eta gehiago antolatu ditu Korrika batzordeak

**M.A.** ARETXABALETA

Korrikaren bueltako ekitaldi ugari antolatu ditu martitzenetan elkartzen den Korrika batzordeak. Hurrengo egubakoitzean, martxoaren 17an, hasiko dituzte Joxe Ramon Agirre *Marron* (Ataun, 1959) alpinista, mendizale eta bidaiari ezagunak *Bizitzaren bidea* filma aurkeztuta. Udaletxe zaharrean izango da hori, 19:00etan.

Korrikaren lekukoa, baina, apirilaren 8an, zapatua, 13:30 inguruan iritsiko da Aretxabaletara eta ekitaldiak aurreko aste bukaeran hasiko dituzte, kantu-poteoarekin. Apirilaren 1ean, zapatua, mendi martxa egingo dute Orkatzategira, eta argazkia aterako dute han, txalapartariek girotuta. Egitarau potoloa, ostera, apirilaren 8rako utzi dute. 10:00etan motorrak berotzen hasi eta gauera bitartean ekintza mordoa egingo dituzte; besteak beste, doke txapelketa, argazki erraldoia eta herri bazkaria.

Bien bitartean, Aretxarteko merkatariek Korrika kontuekin apainduko dituzte dendetako erakusleihoak.

### Egitaraua

**Martxoak 31**
- **Kantu-poteoa**.
- **22:00** Bertso Korrika eta *Erradikalak gara* emanaldia.

**Apirilak 1**
- **09:00** Mendi martxa Orkatzategira.
- **19:00** Pintxo-poteoa.

**Apirilak 7**
- **Kontzertua** Eñaut Zubizarreta.

**Apirilak 8**
- **10:00** Txistularien diana.
- **10:30** Doke txapelketa.
- **11:30** Dantzak...
- **14:30** Bazkaria *(Zuk ekarri zuk jan)* eta erromeria.

## 'Goza topera oporretan!' eskaintza gaztetxoendako

Aisialdi egitaraua gertatu die Lehen Hezkuntzakoei Gazteria Zerbitzuak apirilaren 10etik 12ra bitarterako

**M.A.** ARETXABALETA

Aste Santuko opor egunetarako *Goza topera oporretan!* aisialdi eskaintza egin die Udaleko Gazteria Zerbitzuak 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei. Natura, teknologia eta sukaldaritza uztartuko dituzte apirilaren 10etik 12ra artean. Izena emateko epea zabalik dute Arkupen, martxoaren 17a arte; prezioa 25 euro da.

Adinaren araberako hiru talde osatuko dituzte: 6 eta 8 urte artekoak; 9 eta 10 urte artekoak; eta 11 eta 12 urte artekoak. Eta bakoitzean, gehienez, hamabost lagun izango dira. Goizean plazan elkartuko dira guztiak eta han bukatuko dituzte ekintzak.

**Teknologia eta sukaldaritza**

Hainbat jarduera egingo dituzte hiru egunetan; besteak beste, musika laborategia, sukaldaritza, artea naturan eta hiru dimentsioko inprimaketa. "Teknologia berriak heziketarako tresnatzat erabiliko dituzte, arteak eguneroko bizitzan duen garrantziarekin jabetuko dira eta instrumentuen arteko harmonia landuko dute", jakinarazi dute.




Eguaztenean Herriko Plazan elkartutako herritarrak udal ordezkariekin batera. MIRARI ALTUBE

# Egunero lanean jarrai dadin aldarrikapena

Herritarrak udal ordezkarien inguruan elkartu ziren, eguaztenean, genero berdintasunaren alorrean oraindik asko dagoela egiteko aldarrikatzeko; Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldiek jarraipena izango dute domekan, Areskok antolatutako martxarekin

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Martxoaren 8ak aldarrikapena eta festa giroa egin ditu bat. Martxoaren 8a egunero izan behar dela aldarrikatzeko, topaleku izan zen Herriko Plaza eguaztenean, eta han elkartu ziren herritarrak eta udal ordezkariak. Ondoren, Cincomonos talde kataluniarraren antzezlana izan zuten Arkupen.

Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldiek jarraipena izango dute domekan, Aresko saskibaloi taldeak antolatutako Emakumeen Martxarekin. 11:00etan hasiko dituzte ekitaldiak Eskoriatzako plazan eta Jasone Diaz de Gereñu omenduko dute (11:45), eskubaloian ibilbide oparoa izan duen eskoriatzarra. Aretxabaletarantz abiatuko dira ondoren, batzuk oinez (4 kilometro) eta beste batzuk lasterka (7 kilometro). Herriko Plazara iritsitakoan Agurtzane Elkoro omenduko dute, saskibaloian lehenengo eta futbolean gero izandako ibilbideagatik eta azken urteotan UDAn egindako lanagatik.

## "Geuk eman behar ditugu pausoak"

**AGURTZANE ELKORO**
OMENDUA



IMANOL BELOKI

UDAko presidentea omenduko dute Areskoko kideek.

**Ezustekoa izan da?**
Bai, bai, eta ilusioa egin dit. Lanean jarraitzeko indarra ematen dute halakoek.

**Zelan ikusten duzu emakumea kirolean?**
Aurrerapausoak eman dira, baina, mutilekin alderatuz gero oraindik han nonbait gaude; eta, zeresanik ez, profesionaletara joz gero. Herrietan, ostera, poliki-poliki badoaz kontuak aldatzen. Nik hogei bat urte daramatzat emakumeen kirola bultzatu guran eta gero eta onarpen handiagoa du gizartean. Hala ere, oraindik mila pauso daude emateko eta emakumeok, geuk, eman beharrekoak dira asko.

**Halako ekimenak beharrezkoak dira?**
Zenbat eta gehiago antolatu, orduan eta oihartzun handiagoa izango du, eta indar handiagoa. Hemen garrantzitsuena da emakumeek kirola egitea eta halakoek lagundu egiten dute.

**Inor eskertu gurako zenuke?**
Aitari esker hasi nintzen kirolean eta hura izan zen nire jarraitzaile leialena: saskibaloian, futbolean… Hortaz, hura dut gogoan une honetan.



Gimnasia erritmikoko alebinak domekan estreinatuko dituzten jantziekin. UDA

# Gipuzkoako eskolarteko igoera fasea domekan kiroldegian

Gimnasta alebinek, infantilek eta gazteek jardungo dute nor baino nor gehiago eta UDAkoak ere izango dira

**M.A.** ARETXABALETA

Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako eskolarteko lehenengo igoera fasea jokatuko dute domekan, Ibarra kiroldegian, 10:00etan hasi eta 13:30ak bitartean. Alebinak, infantilak eta gazteak elkartuko dira, eta UDAko alebinak ere han izango dira.

### UDAko gimnastak

Esther Barcenilla entrenatzailearen gidaritzapean lanean diharduten hamabost gimnastek ordezkatuko dute Aretxabaleta kirol elkartea, bost laguneko hiru taldetan banatuta; hona hemen gimnasta horiek: Nahia Martinez, Nikole Gonzalez, Maialen Lasaga, Lierni Irusta, Naroa Fernandez de Arroiabe, Maddi Decesero, Ariane Caballero, Garazi Miguel, Uxue Astola, Garazi Mete, Jon Ander Urrutia, Maren Garai, Ainhoa Caballero, Nahia Vales eta Paule Meabe. "Gimnasta alebinek lehenengoz jokatuko dute txapelketa bat etxean eta ilusio handiarekin daude", jakinarazi du Barcenillak.

### Jantzi berriak

Aprobetxatuta halako txapelketa bat lehenengoz jokatzen dela Aretxabaletan, jantzi berriak estreinatuko dituzte: "Koloretsuak eta ikusgarriak dira. Ea ikusleek ere gustuko dituzten, geu oso gustura geratu gara eta", dio entrenatzaileak.

### 245 gimnasta

Guztira 245 gimnasta inguru elkartuko dira Ibarra kiroldegian, gehienak Donostialdetik etorritakoak: Oiartzun, Irun, Tolosa… Aretxabaletarrekin batera Arrasateko Dragoi gimnasia taldekoek ere jardungo dute.

## Osasuna hizpide gaur eta ipuin kontalaria bihar

*Osasuntsu bizi. Yoga meditazioa eta elikadura energetikoa* hitzaldia eskainiko dute Aritz Olano eta Naiara Uriarte –aretxabaletarra– hizlariek gaur, egubakoitza (18:30), Arkupen.

Bihar, ostera, Bazen Behin Clown Taldearen eskutik, *Pituxa clowntu kontalari* izango da, liburutegian (11:30); ipuinak, kantuak eta umorea landuko ditu.

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA


*Jatorriz Kalebarren* erakusketaren inaugurazioan hainbat herritar izan ziren Aretxabaletako artisten lanak ikusten. MIRARI ALTUBE

# Herriko bi artistaren erakusketa zabalik

'Jatorriz Kalebarren' erakusketa Nikasio Unanue eta Luis Jose Errasti artistek gauzatu dute. Unanuek koadroak eta Errastik zeramikazko lanak eraman ditu eta erakusketa ikusgai egongo da Arkupen martxoan

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Nikasio Unanue eta Luis Jose Errasti artista aretxabaletarrek *Jatorriz Kalebarren* erakusketa ireki zuten Arkupen martxoaren 3an, eta, hain zuzen ere, euren lanak martxo osoan izango dira ikusgai.

Nikasio Unanuek hainbat koadro eroan ditu erakusketara eta Luis Jose Errastik, berriz, zeramikazko lanak jarri ditu, baita berak idatzitako liburu bat ere. Irekiera egunean herritar asko gerturatu zen bertara, eta, bi artisten lanak ikusteaz batera, mokadutxo bat jateko aukera ere izan zen.

**Laguntzaile lanetan Urteaga**

Bi artisten lagun den Joaquin Urteaga erakusketaren irekiera egunean izan zen bi artistei babesa eskaintzen. "Manager lanetan ibili naiz biekin. Lan asko dituzte biek eginak, eta lotsati samar zeuden erakusketa egiteko. Nikasiok duela pare bat urte egin zuen koadro erakusketa, baina Luis Josek ez zuen egin gura. Hori ikusita, esan nien biak Kalebarrengoak zirela eta motibo ederra zutela erakusketa bat egiteko, eta, azkenean, egin dute...".

**Hainbat lanez gain, liburu bat**

Luis Jose Errastik, zeramikazko lanak eramateaz gain, liburu bat ere eraman du erakusketara: *Altruista*. "Lagun bat oporretan zihoan, eta nik esan nion: 'Hi haz parranderue!'. Eta berak erantzun: 'Borratxo, jugador y mujeriego'. Hortik etorri zitzaidan ideia. Gainera, beste liburu bat ere idazten ari naiz, irailerako amaituta egongo dena".

## "Plumillarekin asko egiten dut lan"

**NIKASIO UNANUE**
ARTISTA


MIRARI ALTUBE

Estilo askotariko 14 koadro eroan ditu Nikasio Unanue artistak erakusketara.

**Koadro guztiak ekarri dituzu?**
Pintura hauez gain, banituen beste hainbat lan, baina interesgarrienak hauek zirela pentsatu nuen.

**Nola lantzen dituzu?**
Arkatzarekin egiten dut lan aurrena, bozetoa egin, eta plumillarekin lantzen dut. Horren ostean, kolorea emateko koloretako lapitzak erabiltzen ditut.

**Estilo ezberdinetakoak?**
Interneten bilatzen dut, inprimatu, eta ostean, koadroa egiten dut, azken finean, kopiatuz.

***Gernika* koadroa ere baduzu, gainera?**
Alabak esan zidan beti tontokeriak margotzen nituela eta zergatik ez nuen zerbait ganorazkoa egiten, eta halaxe egitea erabaki nuen.

## "Zeramikak lasaitasuna eragiten dit"

**LUIS JOSE ERRASTI**
ARTISTA


MIRARI ALTUBE

Luis Josek zeramika lanak ekarri ditu erakusketara.

**Nola hasi zinen?**
Duela urtebete hasi nintzen, telebista ikusteko hartzen nuen denbora zeramikari emanez.

**Non egiten dituzu?**
Etxean egiten ditut, garajean. Gero, Udalak labea utzi zidan, eta bertan egiten ditut.

**Kolorea ere ematen diezu figurei?**
Niretako, zailena piezei kolorea ematea da.

**Zailtasuna areagotzen, betiere?**
Urtebeteren ostean, norbera hobetzen joaten da, eta, hala, lanak ere hobetzen joan beharra dago.

**Zer ematen dizu zeramikak?**
Lasaitasuna ematen dit, eta denbora konturatu gabe pasatzen zait.

**Erakusketa, arrakastatsua?**
Jendearen kuriositatea piztu du erakusketak, oso pozik nago.

## Basotxo elkartearen batzar orokorra gaur izango da, 16:00etan

Erretiratuen eta pentsiodunen Basotxo elkarteak batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza, egoitzako areto nagusian. Lehenengo deialdia 16:00etan da eta bigarrena, berriz, 17:00etan. Hala, Basotxoko bazkide guztiei bertaratzeko eskatu diete zuzendaritza batzordeko kideek.

Batzarra hasteko, iazko aktaren irakurketa, memoria eta diru kontuen irakurketa eta onarpena egingo da, kontrakorik izan ezean. Ondoren, 2017ko gestio plana azalduko zaie bertaratzen diren elkartekideei, eta batzorde zuzendaritzaren berrespen akordioak ere eskatuko dituzte.

Amaitzeko, zuzendaritza berriaren aukeraketa eta onarpena egingo da, eta, puntu guztiak landu ostean, azkenik, galde-eskeen tartea izango da, norbaitek zalantzaren bat edo eskaeraren bat egin nahiko balu.

## Espazioak "humanizatzea"

Herrietako espazioetan oinezkoek lehentasuna izan dezaten egin beharreko aldaketen gaineko argibideak eman zizkien Hodei Zenikaonandia arkitektoak EHBilgunean elkartutako 25 bat laguni. Mugikortasun iraunkorraren aldeko apustuari buruz jardun zuen ordu eta erdiz, eta Bizkai aldeko hainbat herritan hasi duten ibilbidearen berri eman zien.


MIRARI ALTUBE




Eskoriatzako plazan, emakumeen indarkeriaren aurkako pankartarekin batu ziren udal ordezkariak eta Amuska elkartekoak. I.B

# Berdintasunaren aldeko ekimen arrakastatsuak

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, hainbat ekintza izan ziren herrian, eta datozen egunetarako ere beste hainbat hitzordu prestatu dituzte. Besteak beste: 'Atzoko enborrak, gaurko ezpalak' dokumentalaren proiekzioa, Filmazpit zinema…

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Emakumeen Nazioarteko Egunean, Martxoaren 8an, ekintza ugari izan dira Eskoriatzan, eta datozen egunetan ere hainbat hitzordu izango dira. Eguaztenean emakumeen aurkako indarkeria baztertzeko kontzentrazioa izan zen Herriko Plazan, *Prevención de violencia contra la mujer* hitzaldia –astelehenean izan zen– eta emakumeentzako autodefentsa ikastaroa –atzo– izan ziren, besteak beste.

Eskoriatzako udalbatzak ere bat egin du Emakumeen Nazioarteko Egunarekin. "Otsailaren 21ean egindako ezohiko osoko bilkuran onartutako adierazpen instituzionalean adierazi bezala. Aho batez onartu zuten Martxoaren 8rako adierazpen instituzionala, ordezkaritza orekatu baterako zortzi printzipio jasotzen dituena, eta txosten europarreko gomendioak eta emakumeek eta gizonek tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako gutunetik eratorritako konpromisoak ere onartu zituzten".

**Kontzentrazioa, antzerkia…**

Amuska Emakume Taldeak deituta eguaztenean 18:30ean emakumeen eskubideen alde egindako elkarretaratzearekin bat egin zuen Udalak, eta bertan, Udaleko hainbat ordezkari batu ziren. Horren aurretik, Tortolis ludotekan hezkidetza jolasak eta nesken eta mutilen arteko berdintasunaren inguruan hausnarketa txikiak egin zituzten, asanblada bidez. Zaldibar antzokian, berriz, elkarretaratzea amaitu ostean, *Con fajas y a lo loco* antzerkia izan zen, Tdiferencia Produkzioak taldearen eskutik, eta jende dezente batu zen bertan, berdintasuna, gazteak, amodioa, umorea eta halako gaiak lantzen dituen ikuskizunaz gozatzeko.

**'EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA EZ' PANKARTAREKIN BATU ZIREN HERRITARRAK PLAZAN**

**Datozen egunetarako hitzorduak**

Emakumeen Nazioarteko Eguna Martxoaren 8an ospatu arren, datozen egunotan ere hainbat ekintza izango dira herrian. Esaterako, gaur, *Atzoko enborrak, gaurko ezpalak* dokumentala izango da ikusgai Zaldibar antzokian, 19:00etan. Domekan, martxoaren 12an, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko martxa egingo da, Aresko saskibaloi elkarteak antolatuta, eta hilaren 23an, berriz, Filmazpit zinema izango da, jatorrizko hizkuntzan, euskarazko azpitituluekin, antzokian. Bertan, gai hau jorratuko dute: emakumeari eragiten dizkioten arazoak. Eta 19:00etan hasita, *The Curse, Mobile Homes, Rae, What to bring to America* eta *Irene* filmak ikusteko aukera izango da.



## 'Hamaika kultura, eskubide berdinak'

Luiz Ezeizakoek eguaztenean esku erraldoi bat jarri zuten horma batean itsatsita, eta ikasleek, irakasleek eta gurasoek beraien eskuak –paperez egindakoak– lelo ezberdinekin itsatsi zituzten bertan. Ondoren, kafe-kapsula moreekin egindako emakumeen ikurra atera zuten, eta ikurraren inguruan hizkuntza ezberdinetan idatzita aurtengo leloa irakurri zuten –eskolako ikasleen eta familien hizkuntzak ziren: urdua, errumaniera, arabiera, ingelesa, poloniera…–. Keinu hizkuntzan ere aipatu zuten leloa: *Hamaika kultura, eskubide berdinak*. Ekitaldia amaitzeko, eskolako patioan emakumeen ikurra eginaz argazkia atera zuten, Mikel Markezen eta Aire Ahizpen *Konplize ditut eta* abestia abestuta.



## Jose Arana, emakumeen alde

Jose Aranakoek Emakumeen Eguna ospatu zuten eguaztenean. Genero ikuspegia oinarri izanda hainbat jolas egin zituzten eta egunaren esanahia transmititzen saiatu ziren irakasleak. Ostean, marrazkiak eta maskarak egin zituzten, eta talde argazkia egin zuten egoitzako patioan emakumearen ikurra eginda.

# Dena prest Aresko Emakume Martxarako

Jasone Diaz de Gereñu eta Agurtzane Elkoro izango dira Areskok antolatutako bigarren edizio honetan omenduko dituztenak. Bata, 11:45ean, Eskoriatzako plazan omenduko dute eta bestea, berriz, 13:00ak aldera, Aretxabaletako plazan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Aresko Emakume Martxaren bigarren edizioa domeka honetan izango da, eta emakumeek kirolean duten edo beharko luketen berdintasuna lortzeko helburuarekin antolatutako ekimena arrakastatsua izatea espero dute Aresko Saskibaloi Eskolako antolatzaileek.

Egunari hasiera emateko, 11:00etan, egunerako egin dituzten kamiseten banaketa egingo da Eskoriatzako Herriko Plazan. Hasiera batean, antolatzaileek Eskoriatzako eta Aretxabaletako kiroldegietan banatu behar zituztela esan zuten, baina, logistika arazoengatik, egunean bertan banatuko dituzte.

Bestalde, iaz bezala, emakumeen eta kirolaren bueltan egindako lanarengatik bi emakume omenduko dituzte, eta aurten, Eskoriatzako Jasone Diaz de Gereñu eta Aretxabaletako Agurtzane Elkoro izango dira omenduak. Diaz de Gereñu Eskoriatzan omenduko dute, 11:45ean, eskubaloian egin duen ibilbide luze eta oparoarengatik. Elkoro, berriz, 13:00 aldera, Aretxabaletan omenduko dute, saskibaloian eta futbolean jokalari eta entrenatzaile moduan egindako lanarengatik.

**Lasterketa eta martxa 12:00etan**

Martxa eta aurten berrikuntza moduan antolatu den lasterketa 12:00etan hasiko dira Eskoriatzako plazatik. Lasterketa egingo dutenak Leintz Gatzagarako bidea hartuko dute Zubia Pateak enpresaraino, eta bertan bidegorria hartuko dute Aretxabeltako plazaraino zazpi kilometroko bidea egiteko.

Martxa egingo dutenak, berriz, Eskoriatzatik Aretxabaletara joango dira *Emakumeon pausoa herriz herri doa* leloa duen pankartarekin. Beheranzko norabidean, Intxaurtxueta auzoan bidegorria hartuko dute, Portasol auzotik pasako dira, eta haiek ere Aretxabaletako Herriko Plazan bukatuko dute, lau kilometroko bidea eginda. Hasieran eta bukaeran animaziorik eta musikarik ez dela faltako adierazi dute antolatzaileek.



Azken prestaketa lanak egin ostean Areskoko kideak kiroldegian. I.B

**'EMAKUMEON PAUSOA HERRIZ HERRI DOA' LELOPEAN EGINGO DUTE AURTENGO MARTXA**

## Jasone Diaz de Gereñu omenduz



Jasone Diaz de Gereñu.

Eskoriatzako Jasone Diaz de Gereñu (1967) Almenen hasi zen eskubaloian, eta ibilbide oparoa izan du. 1985ean Hernani eskubaloi taldera joan zen, Ohorezko Mailan jokatzera. 1987tik 1992ra atezain titular aritu zen bertan, eta 1988an Gipuzkoako jokalari onena izendatua izan zen. Urte berean, lehenengo aldiz deitu zuen Espainiako selekzioak, eta Frantziako munduko txapelketan parte hartu zuen. Euskadiko selekzioarekin ere Bartzelonan torneoa jokatu zuen eta 1989an berriz izan zen Gipuzkoako jokalari onena izendatua. 1992an Bartzelonako Olinpiar Jokoetan hartu zuen parte, baita Lituaniako munduko txapelketan ere. Urte berean, Corteblanco taldeak fitxatu zuen Ohorezko Mailan jokatzeko, gaur egun Akaba Bera Bera dena. Bertan, hainbat titulu irabazi zituen, eta 1995ean eskubaloia utzi zuen.



Martitzenean, kanpainaren berri eman zuten prentsaurrekoan. I.B

# 'Instan1ean' kanpaina asteburuan abiaraziko da

Programak bi fase izango ditu: formazioa, batetik, guraso eta nerabeentzat; eta lehiaketa, bestetik, nerabeentzat

**I.B** ESKORIATZA

*Instant1ean* hiritartasun digitala nerabeekin lantzeko kanpaina bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztematika arloak, hainbat udalek eta gaztelekuk martxan jarri dutena; gazteengan teknologiaren erabilera sanoa sustatzeko helburua dauka.

Egitasmoa Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak eta Gipuzkoako hainbat udalek bultzatu dute elkarlanean. *Instant1ean* proiektuaren helburua da gazteek teknologiaren erabilerari dagozkion portaera eta jarrera egokiak barneratzea, Interneten ondo nola jokatu ikasi, eta sarean eskubideak eta betebeharrak zein diren argitzea. Programak hainbat alderdi ditu: gaiari buruzko tailerrak, hitzaldiak eta lehiaketa.

Kanpaina Eskoriatzara ekarriaz, ekintzak ez dira nerabeentzat soilik landuko, gurasoentzat ere zabalduko dira. Programak bi atal izango ditu: formazioa, batetik, tailer eta hitzaldiak izango dituena; eta lehiaketa, bestetik, nerabeentzat soilik izango dena (ikus beheko taula). Lehiaketarako, gaztelekuak bi ekintza antolatu ditu: argazki rallya eta *Hi selphie* lehiaketa.

**'Instant1ean' lehiaketa**

*Instant1ean* lehiaketa, aldiz, Gipuzkoa mailako lehiaketa da eta 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago. Lehiaketako erreminta nagusia Instagram izango da eta sari ugari izango dira. Lehiaketan zehar, gainera, zozketak izango dira parte-hartzaile guztien artean eta sari banaketa eta topaketa Tabakaleran egingo dute ekainaren 3an. Hain zuzen ere, lehiaketaren traolak *#instant1ean*, *#sareanONdo* eta *#eskoitzakogaztelekua* izango dira.

## Formazioa nerabe eta gurasoentzat

- **Martxoak 11-12** Sare sozialetako pribatutasuna lantzeko tailerrak nerabeentzat, gaztelekuan, 18:00etan.
- **Martxoak 15** Iban Garcia *youtuber*-a, Almenen eta Kurtzebarrin.
- **Martxoak 16** Sare sozialen inguruko saioa gurasoentzat, kultura etxean, 18:00etan.
- **Martxoak 18** Argazkiak txukuntzen ikasteko tailerra, 18:00etan, gaztelekuan.
- **Martxoak 25** Gaztelekuan antolatutako argazki rallya.
- **Apirilak 5** *Internet eta arriskuak* hitzaldia gurasoentzat, kultura etxean, 18:00etan.
- **Apirilak 25-26** *Hi selphie* lehiaketa 18:00etatik aurrera, gaztelekuan. Lehiaketa maiatzaren 7an amaituko da.



Jose Arana gunea lanak amaitu ostean. ARIZMENDI

# Ganuza bisitatuko dute Markel Olanok eta Cristina Uriartek

Arizmendiko Jose Arana gunean egin duten proiektu eraldatzailea ezagutuko dute, bide batez, bisita eginda

**Imanol Beloki** ESKORIATZA
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek eta Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok Eskoriatzako XVII. mendeko Ganuza jauregia –Arizmendiko Jose Arana gunea– bertatik bertara ezagutzera joango dira gaur.

10:30ean egingo diete harrera,; Haur Hezkuntza garatzeko prestatu eta egin berri duten proiektu eraldatzailea jarri dute martxan eraikin horretan, eta lanak nola geratu diren ikustera joango dira. 10:40 inguruan, Yagoba Larrañaga obren arduraduna (alde arkitektonikoa) eta diseinuaren zuzendaritza kudeatu duten Amaia Arrietak eta Aitor Elizaranek (alde pedagogikoa) eraikinaren ibilbide gidatua egingo diete agintariei.

11:15ean, berriz, Aitziber Arregi Arizmendi Ikastolako lehendakariak, Joserra Zubizarreta, Eskoriatzako alkateak, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak eta Joxean Alustiza Gizabidea Fundazioko lehendakariak adierazpenak egingo dituzte Ganuza jauregiko pintura gelan.

# Aste bukaeran eski irteera egingo dute, Panticosara

Gaur da izena emateko azken eguna; horretarako, Namaste belar-dendara joan behar da

**I.B** ESKORIATZA
Eskoriatzako Kirol Elkarteak antolatuta, Panticosara irteera egingo da asteburu honetan. Zapatuan irtengo da autobusa, 05:30ean, Akeitatik, eta buelta domekan izango da, gaueko bederatziak aldera.

Dagoeneko 22 lagunek eman dute izena, baina, hala ere, gaur aukera dago izena emateko. Bidaiak, pentsio erdiko egonaldia eta forfaita barne, 130 euroko kostua izango du; eta eskiak, snow taula, kaskoa... nork berea eraman beharko du. Hala ere, ez daukanak alokatzeko aukera ere izango du bertan.

Izena eman nahi duenak edo informazioa eskatu nahi duenak Namaste belar-dendan egin beharko du, edo *eskoriatzamt@gmail.com* helbidera idatzita edo 943 71 43 27 telefonora deituta. Adingabekoek heldu batekin joan behar dutela gaineratu dute antolatzaileek.



*Buen vivir* dokumentalaren ostean egindako luntxa eta solasaldia. M.T.

# Urtero legez, mahaiaren bueltan elkartuko dira emakumeak

Eguaztenean dokumental emanaldia izan zen, Sorginak taldeak antolatuta; bihar, Soran etxean bazkalduko dute

**Maite Txintxurreta** LEINTZ GATZAGA
Eguaztenean, Emakumeen Nazioarteko Egunean, *Buen vivir* dokumentalaren emanaldia izan zen kultura etxean, eta gero solasaldia egin zuten luntxaren bueltan. Dokumentalak Guatemalako komunitate indigenetako mugimendu feminista jorratzen du, eta bertako indigena talde batek egina da, hain zuzen.

Gainera, gaur, egubakoitza, Guatemalako indigena kooperatiba bati buruzko erakusketa jarriko dute Kultur Etxean, eta 12 egunez egongo da ikusgai.

Bihar, zapatua, Sorginak emakume taldeak bazkaria egingo du, urtero moduan. Soran Etxean izango da, 14:30ean. Bazkalaurretik txikiteoa egingo dute, ordu bata aldean elkartuta.

### Lagunarteko hitzordua

30 lagun inguru batuko dira mahaiaren bueltan, adin guztietakoak, gainera: bai 20 urteren bueltan daudenak, baita 96 urte beteta dituztenak ere.

"Herriko emakumeak elkartu, gertukoen kontuak entzun eta haiengandik ikasteko" egiten dute bazkaria. Sorginak taldearen urteroko hitzordu jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa izan ohi da, eta urte asko daramatzate ekimenarekin, taldearen sorreratik bertatik.

Bazkalostea Humberto disko jartzailearen musikak girotuko du, Soran Etxean bertan.

### Korrikako arropak salgai

Bestalde, egun berean, martxoak 11, aurtengo Korrika ekimeneko arropak saltzeko postua jarriko dute frontoiko arkupeetan, 11:00etatik aurrera. Materiala bertan probatu eta erosteko aukera bakarra izango da. Aurrerantzean, Internetez bakarrik erosi ahal izango da.

## 'Zazpiak oihal batetik' ipuin musikatua domekan

Domekan, Zaldibar antzokian, 19:00etan, ipuin kontaketa musikatua izango da, helduentzat, Amaia Elizagoien eta Olaia Inziarte kontalarien eskutik. Emakumeen alderdi ezberdinak eta euskal tradizioak dakartzan mugak jorratuko dituzte kontaketa honetan, besteak beste.

Baserri giroan murgilduko dituzte ikus-entzuleak *Zazpiak oihal batetik* istorioarekin. Zazpi ahizpari egokitutako bizitzan, baserrian sehaskan jaioak, jaio bezala oihal berarekin estaliak denak ere, baina, hala izanik ere, erabat ezberdinak elkarren artean. Sarrerak lau eurotan erosi ahal izango dira, kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.

## Elikadura eta dieta orekatua egiteko sukaldaritza tailerra

Domeka honetan, elikadura eta dieta orekatua egiteko sukaldaritza tailerra izango da kultura etxean, 18:00etan. Bertan, hainbat errezeta ikasiko dituzte bertaratzen direnek, eta, errezetak kozinatzen ikasteaz batera, hauek eskaintzen dituzten onurak ezagutzeko aukera ere izango da. Hauek izango dira ikastaroan egiten ikasiko diren errezetak: miso-zopa, azenario-kinpira laranjarekin, artatxikia barazkiekin eta tofu-nahaskia.

Bost euroko prezioa izango du sukaldaritza tailerrak, eta izena eman nahi duenak *kultura@eskoriatza.eus* helbidera idatzi edo 943 71 46 88 telefonora deitu beharko du.

## Aldaketa klimatikoa eta Lezetxiki hizpide Ibarraundin

Geografian eta Historian lizentziadun Mari Jose Iriarte ikertzaileak munduak izan dituen aldaketa klimatikoen inguruan hitz egingo du martxoaren 15ean, Ibarraundi museoan. Gazteleraz emango duen *La influencia de los cambios de la vida* hitzaldia 18:30ean hasiko da.

Bestalde, martxoaren 21ean, martitzena, Geografian eta Historian lizentziadun, Historian doktore, EHUko irakasle, Lezetxikiko indusketen zuzendari eta Labeko kobako ikertzaile Alvaro Arrizabalagak *Lezetxiki, altxor bat gure inguruan* izeneko hitzaldia eskainiko du, 18:30ean, eta euskaraz izango da.

## Zuhaitz Eguna domekan San Juanzar baserrian

Domekan, martxoak 12, Zuhaitz Eguna egingo dute, Gurel guraso elkarteak antolatuta.

Aurtengo zuhaitz landaketa San Juanzar baserrian egingo dute. 11:00etan hasiko dira, eta iazko landaketako hutsuneak betetzea izango da helburua. Lehenago, 10:30ean, nahiago dutenak herrian elkartuko dira, guztiak baserrirantz joateko. Landaketaz gain, Zuhaitz Egunean Fermin Lezeta basozainak parte hartzaileei egurrezko eskailerak nola egin erakutsiko die. Ekintzak bukatzean, hamaiketakoa egingo dute, parte hartzaile guztien artean eroandako jan-edanarekin.

Bestalde, domekan Gureleko kideek batzar orokorra egingo dute. Bertan, batzarkide berriez, iazko kontuez eta aurtengo aurreikuspenez arituko dira.

# Manex Agirre nagusi laugarren finalaurrekoan

Peru Abarrategi eta Iker Agirre herritarrak ere aritu ziren saioan eta hirugarren eta laugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren; lehenengo sailkatu arren, sentsazio "gazi-gozoa" duela azaldu du Agirrek, bere burua aurkitu ezinik eta lotuta sentitu zela

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Pasa den zapatuan jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren itzuliko lehenengo finalaurrekoa –laugarrena, guztira– eta parte hartu zuten hiru aramaioarrek saio txukuna egin zuten. Manex Agirrek saioa irabazi zuen, 248 puntu eskuratuta, Peru Abarrategi hirugarren sailkatu zen –235,5 puntu– eta Iker Agirre, berriz, laugarren –234 puntu–.

Manex Agirrek aitortu du sentsazio "gazi-gozoarekin" amaitu zuela saioa. "Ofiziotan oso lotuta ikusi nuen nire burua, neure burua aurkitu ezinik. Ez da sentsazio pertsonala bakarrik, ingurukoek ere hala adierazi didate", azaldu du. Urduritasun horretan sailkapenak eragin zezakeela aitortu du. Ondoren, ordea, bakarkakoan, hobeto sentitu zen. "Kartzelan larri hasi nintzen, baina buelta ematea lortu, eta nahiko ondo bukatu nuen", dio. Finalera begira, itxarotea besterik ez zaio gelditzen Agirreri: "Ez daukat oso puntuazio altua, eta ikusi egin beharko da. Oso lasai ere ez nago, egia esan", bukatu du.

Peru Abarrategi hirugarren postuan sailkatu zen Legution. "Saio polita egiten ari nintzen, baina azkeneko bertsoan poto egin nuen eta horrek izorratu egin ninduen. Puntuazioa nahiko txukuna izan zen eta poto egin izan ez banu, oraindik hobea izango zen. Horrek ematen dit pena", azaldu du Abarrategik.

Finalerako sailkatzeko aukera gutxi ikusten ditu Abarrategik, baina egin duen txapelketarekin oso gustura azaldu da. "Saihestu nezakeen huts batekin amaitu dut txapelketa, baina, orokorrean, oso gustura nago eman dudan mailarekin. Gaztea naiz oraindik, eta esperientzia irabazten noan heinean ikasiko dut halako akatsak ez egiten", azpimarratu du.

**BIHAR BOSGARREN KANPORAKETA JOKATUKO DA ETA IGOA ETA AMILBURU ARIKO DIRA, LAUDION**

Azkenik, Iker Agirrek laugarren bukatu zuen eta hark ere aukera gutxi ditu finalerako sailkatzeko. "Nire burua ondo ikusi dut, solte, eta egindako txapelketarekin oso gustura nago", azaldu du.

**Bihar, Igoa eta Amilburu**

Bihar, zapatua, bosgarren finalaurrekoa jokatuko da Laudion eta bertan Xabi Igoa eta Paula Amilburu arituko dira.

Igoa "gogotsu" dago eta lehenengo itzulian egindako lan ona "errematatzera" irtengo da. "Hau fondoko lasterketa bat da eta lanak ondo egin behar dira beti", azaldu du.

Amilburu, berriz, urduri dago. "Biharko saioan ez pentsatzen ahalegintzen nabil. Irregular nabil eta edozein gauza egin dezaket", nabarmendu du.



Manex Agirre, bertsotan, bere atzean Peru Abarrategi eta eskuin-eskuinean Iker Agirre. BERTSOZALE ELKARTEA



CRISTINA ETXENAUSIA

## 40. urteurrena gogoratuz

Irteera eta ekitaldiak eguraldi txarragatik bertan behera gelditu baziren ere, lagun kuadrilla bat Tellamendira gerturatu zen pasa den domekan, gurutzea berriz jarri zuteneko 40. urteurrena gogoratzera. *Belamendiko gurutzea* abestu zuten bertan, eta, Kultura zinegotzi Kristina Etxenausiaren esanetan, "oso pozik eta gustura" gelditu ziren bertaratutako guztiak.

## Zinegoak, nazioarteko zinema, gaur kultura etxean, 22:30ean

Bilboko gay-lesbo-trans nazioarteko zinemaren eta arte eszenikoen Zinegoak jaialdia urtero antolatzen da Bilbon eta ondoren inguruko herrietan zabaltzen da. Aramaiora ere helduko da eta gaur gauean kultura etxean sei lan hauek proiektatuko dituzte: *No es nada*; *Gabber Lover*; *#Not Guilty*; *Ana se intoarce*; *Grávido* eta *Oh-Be-Joyful*.

## Abeltzaintza eredua eztabaidagai izango dute gaur, Zuian

*Ohiko eredu intentsibotik bertako eredu ekologikora* izeneko jardunaldia izango da gaur, 18:30ean, Zuiako udaletxean. Helen Groome esnekien inguruan arituko da, Alfredo Alonsok baserri ekologikoari buruz hitz egingo du eta Jauregia esnekiak ganadutegiko Aitor eta Mikel Azkaratek abeltzaintza ekologikoa izango dute hizpide.

## 'Aramaixoko fauna' erakusketa ikusgai gaur, Sastiñan

*Aramaixoko fauna* bideo eta argazki erakusketa ikusgai egongo da gaur, egubakoitza, 19:00etan Sastiñan.

Mendi-ingurumen Sailak antolatutako erakusketa da. Hain zuzen, bertako herritar batek faunaren gaineko dokumental txiki bat proiektatuko du eta animalia ezberdinen argazki emanaldia ere egongo da.

## Ibilgailuen zergari erreklamazioak jartzeko epea zabalik

Interesa duenak martxoaren 15era bitartean izango du aukera ibilgailuen gaineko zergari erreklamazioa jartzeko. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onartuko da.

Bestalde, erreziboak ordaintzeko epea martxoaren 17tik maiatzaren 17ra arte izango da, biak barne.

# Olaizolak txapela buruan, Herrartek gutxigatik ezin

Julen Olaizolak Zizur Nagusiko lau t´erdiko finala irabazi du, infantil mailan, 16-14 emaitzarekin. Jon Herrartek, berriz, txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan du Arabako Binakako Trinket Txapelketan, 30-29 galdu ostean

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Olaizolak Zizur Nagusiko lau t'erdiko txapelketa irabazi zuen –Euskal Herrian ospe handia du–, 16-14 emaitzarekin, Ioritz Arbaiza orozkoarra mendean hartuta. Partidua ez zuen ondo hasi Olaizolak. "Hasiera kaxkarra eman nion partiduari, 3-9 galtzen hasi nintzen. Hala ere, partidua aurrera joan ahala, geroz eta hobeto sentitu nintzen eta 11-11 berdintzea lortu nuen", adierazi du. Berdinketa horren ostean, ordea, berriro ere aurreratu zen aurkaria –11-14–. Partidua horretan zela, aramaioarrak kolpea hartu zuen buruan, txokoko jokaldi batean. "Mozketa bat egin zidan. Ni kontrakantxatik nentorren, abiadura handian, eta hormaren kontra buruarekin jo nuen. Lepo aldean min hartu nuen, zaintiratu moduko bat sentitu nuen. Momentu batean erdi zorabiatuta ere banengoen", dio. Partidua eten egin zen momentu batean, eta, pomada bat eman ostean, kantxara itzuli zen Olaizola. Harrigarria bada ere, ondorengo bost tantoak segidan egin eta 16ra heltzea lortu zuen, partidua irabazita. "Badirudi kolpeak mesede egin zidala", aitortu du.

Hala, iazko errebantxa hartu ahal izan zuen Olaizolak. Izan ere, final bera izan zen iaz eta orozkoarrak 18-6 irabazi zion. "Aurten iaz baino askoz hobeto iritsi naiz finalera. Gainera, sakez min handia egin diot eta irabaztea lortu dut", azaldu du.

Bestalde, Bizkaiko eskuz banakako txapelketa hasi du Olaizolak, Galdakaon, hau ere garaipenarekin –18-6–.

**BATI "GOLPEA HARTZEAK" EGIN ZION MESEDE; BESTEARI, BERRIZ, POSTU ALDAKETAK**

### Herrarte, penaz

Jon Herrartek oso gertu izan zuen garaipena Arabako Binakako Trinket Txapelketako finalean, baina, azkenean, txapeldunorde izan zen, Laudioko bikotekidearekin. "Oso gaizki hasi genuen partidua, baina gero, buelta ematea lortu genuen eta oso partidu borrokatua izan zen", adierazi du Herrartek.

18-6 galtzen hasi ziren, baina 18-18 berdintzea lortu zuten. "Ni atzelari eta bikotekidea aurrelari hasi ginen. Ez ginen ondo moldatu eta postuz aldatu ginen. Hala, askoz hobeto moldatu ginen eta partiduan sartzea lortu genuen", onartu du. Hortik aurrera, partidua oso berdinduta joan zen, azken unera arte. "29-29 gindoazen eta sakea alde. Ez genuen tantoa bukatzea lortu eta, azkenean, goiko txapara joan zitzaigun pilota", aitortu du.

Hala ere, gustura azaldu da egindako txapelketarekin eta finalean emandako mailarekin.



Julen Olaizola, ezkerrean, txapela buruan duela. ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA




Jon Herrarte, ezkerretik hasita, lehena. ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA



NIRE USTEZ

**XABI IGOA**

## Autobus magikoa

Komunikazioa inoiz baino eskuragarri dagoen garai honetan, norberaren kontzientzia da galbahe garrantzitsuena, zaborra jan nahi ez badugu, behintzat…

Horren jakitun edo… Donald Trump hasi da galbaheak desegiten. Kazetariek berak dioena moldatuko dutelakoan eta audientziarekin harreman zuzena lortzeko asmotan, Twitter sutu du 140 karaktere baino gutxiago idatzi dituen bakoitzean.

Iturrian ez dago arazoa, amerikarren kasuan iturburuan egon litekeen arren. Arazoa edukia irentsi eta digeritze prozesu bat garatzeko ezgaitasunean dago.

La Sexta telebista kateko *El Intermedio* saioak ere autobus batean horrela jarri du: *Genero identitatea ez da hautatzen. Ez dezatela beste batzuk zugatik hautatu.*

**"EDUKIA IRENTSI ETA DIGERITZE PROZESU BAT GARATZEKO EZGAITASUNEAN DAGO ARAZOA"**

Andereño Kixkurneren autobus magikoa baino famatuago egin den autobus laranja bati erantzuteko margotu du berdez Wyoming-en saioak autobus hori esaldi horiekin.

Bi autobus, bi kolore, bi mezu, bi pentsamolde… hartzaileak: geu. Gure esku dago zein autobusetan igo eta zein geltokiraino joan.

Amets Arzallusek behin BECen bota zuen, Mohameden paperean: "Autobus baten barruan goaz, baina bide berean ez". Autobus laranjaren kasuan, autobusa ere ez dugu konpartitzen.

## Ganaduzaleen elkartea sortzeko deialdia egin du Udalak

Urkiolako parkean eta udal mendietan gertatzen diren kontuak kudeatzeko elkarte bat sortzea erabaki dute

**E.A.** ARAMAIO

Aramaioko Udal Gobernuak eta herriko zenbait ganaduzalek elkarte bat sortzea erabaki dute, Urkiolako parkean eta udal mendietan landatu, ez landatu edo non landatu eta beste hainbat kontu kudeatzeko helburuarekin.

"Udalak eta herriko ganaduzale batzuek ikusi dugu beharrezkoa dela ganaduzale elkarte bat sortzea herrian, ahalik eta ganaduzale gehien batuko lituzkeena. Horregatik, deialdia luzatzen dugu jendea elkarte honen parte izan dadin", adierazi du Lierni Altuna alkateak.

Elkartearen helburua izango da, alkatearen esanetan, ordezkari lanak egitea berari eragiten dioten kontuetan, "bai Urkiolako parkeko patronatuekin, Udalarekin edo dena delakoarekin".

Elkartea osatzeko beharrezko dokumentuak prest ditu Udalak. Elkarteko kide izateko, datu hauek eman behar dira udaletxean, apirilaren 12a baino lehen: izen-abizenak, NA zenbakia, haren fotokopia eta helbidea.



1942an, elkartea bera sortu zen urtean, mendizale talde bat Pol-Pol iturriaren bueltan. POL-POL FONDOA



Pol-Poleko gaztetxoak Aizkorrin, 1980an. POL-POL FONDOA



1976ko Urbasako kanpaldia. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA / M.A. ELKOROBEREZIBAR FONDOA

# Izena iturri bati zor, izana herriari

1942ko martxoaren 15ean 75 urte beteko dira Pol-Pol Mendizale Taldea sortu zela eta hilaren 19an mendi buelta eta bazkaria egingo dute ospakizunekin hasteko; mendi talde bat baino askoz gehiago izan da Pol-Pol urteotan, herrigintzaren adibide garbia

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Nekez lortuko du bailarako mendizale elkarte batek Pol-Pol Mendizale Taldeak Bergaran utzi duen arrastora hurbiltzea. Mendizaletasuna sustatzeaz harago, herrigintzaren erreferente ukaezina da Bergaran. Eta bost egun barru, martxoaren 15ean, beteko ditu 75 urte. 1942ko martxoaren 15ean egin zen sorrera batzarra, Migel Angel Elkorobeezibar idazle bergararrak gogora ekarri duenez: "Gerra ostean langile batailoietatik, kartzelatik edo soldadutzatik Bergarara bueltatu ziren gazte haien zaletasun handiena zen mendizaletasuna eta elkartzeko gogoa bat egin nahian zebiltzan".

1941ean hainbat bilera egin eta elkartea izango zena legeztatu ondoren, 1942ko martxoaren 15ean egin zuten sorrera batzarra. Luis Bikuña, Pedro Marko Gantxegi, Antonio Raizabal, Alberto Osinaga, Angel Jauregi, Ignacio Muruamendiaraz bergararrak eta Manolo Zubia eibartarra izan ziren sortzaile taldeko buruak, betiere, 30 edo 40 bat lagunen babesarekin. Martxan zen sortzaileek eurek horren emankorra izango zela espero ez zuten *iturria*. 1992an, elkarteak 50 urte bete eta sortzaileek omenaldia jaso bezperan [*Berrigara*-k gehigarri berezia kaleratu zuen orduan] Jauregik berak aitortu zuen ez zutela espero elkartea horrenbeste haziko zenik: "Gure denboran inoiz ez ginen 100 lagun baino gehiago ibiliko eta orain [1992an] 1.000 bazkide baino gehiago dira". Kopuruak kopuru, hasieratik jende asko erakarri zuen Pol-Polek. 1942 amaierarako 86 bazkide zituen eta horietatik 18 emakumezkoak ziren. Bazkideen kopurua gehitzen joan zen urtez urte: 1960ko hamarkada hasieran 370era igo bazen, 1990ko hamarkada hasieran 1.600 bazkide izateraino heldu zen. Gaur egun 700 bazkide ditu eta 350 federatu. 75 urte hauetan 20 lehendakari izan ditu elkarteak, guztiak gizonezkoak.

**1942AN 86 BAZKIDE, 90EKO HAMARKADAN 1.600 BAT ETA GAUR EGUN 700 BAZKIDE ETA 350 FEDERATU**

### Emankorra izenez zein izanez

Elosumendin kokatutako izen bereko iturriari zor dio izena Pol-Pol Mendizale Taldeak. Honela gogoratzen du Elkoroberezibarrek: "Elosumendi inguruko parajeetan askotan ibili ohi zirenez, Antonio Raizabalek izen hori proposatu zuen eta aho batez onartu zuten. Mahai gainean beste izen batzuk ere egon ziren; Goimendi, esaterako. Armarriaren lehen zirriborroa Alberto Osinagarena izan zen eta moja zaharrek bordatu zuten".

### Hasierakoak, oso garai zailak

Hasierak ez ziren batere errazak izan. Francoren garaian baimenik gabe batzarrik egitea debekatuta zegoen, eta, zer esanik ez, elkarte bat sortzea. Batzarra iragarri bezain laster, orduko alkate Rufino Beitiak kontu eske deitu zien udaletxera. Angel Jauregi joan zen azalpenak ematera eta kirol kontuez hitz egin behar zutela argudiatuz lortu zuten baimena. Lehendakariaren izendapenak ere gobernadorearen onespena behar zuen eta bizpahiru aukera aztertu ondoren Felix Iñarra izendatu zuten.

### Askotariko helburuak

Mendiko ibilaldiez gain, buzoiak jarri zituzten –1942an, esaterako, Azkonabietan, Irukurutzetan eta Aitzgorrin–, iturriak eraiki –1943an Gorlakoa, adibidez– edo konpondu, eta edateko urik ez zuten baserrietan ur instalazio lanak egin. Baserritarrekin harreman handia zuten, beti laguntzeko prest. "Domeketan lan egin behar izaten zuten eta horretarako ere baimena eskatu behar izaten zuten. San Donatoko ermita Luis Bikuñari eta Reyes Ortizi esker konpondu zuten. Oso estimatuak ziren Uharte Arakilen. Urterokoa zen Larraitzetik Aralarrera egiten zuten zeharkaldia. Makina bat aldiz joan zen Inazio Panaderoren *Txori urdina* furgonetan", azaldu du Elkoroberezibarrek.

**ELKOROBEREZIBAR: "BOST AUTOBUS BETETZERA ERE HELDU GINEN MENDIRA JOATEKO!"**

Garai hartan elkarteak ez zuen diru laguntzarik jasotzen eta 50 zentimoko kuotarekin egin zuten aurrera lehen urtean. 1943tik aurrera, 250, 500 eta 1.000 pezetako ekarpenak egiten hasi ziren mendi-aterpe bat eraikitzeko. 1947an gauzatu zen ametsa, Gorla eraikita.

### Mugarri izan ziren irteerak

Hainbat eta hainbat izan dira 75 urteotan antolatu diren irteerak: 1952an Ordesara motorrean joan zirenekoa; 1959an lau bazkidek Mont Blanc-en egin zuten balentria; 1971n Anetora antolatutakoa, mugarri izan zena lehen aldia izan zelako 30 bat bazkide batera igotzen zirena; 1972an Mont Blancera eta hurrengo urteetan Europako mendi esanguratsuenetara egindakoak; 1978an 13 bergararrek Andeetako Huascarango gailurra zapaldu zutenekoa, Dhaulagirira saiakera 1992an....

Sail ezberdinak sortu ziren elkartean: argazkigintza, miko-

logia, espeleologia, sokorrismoa... baita kantua eta txistua ere. Oraindik martxan dagoen beteranoen saila 1978an eratu zen. Gainera, ekitaldi asko antolatu ziren: estanpak, denetariko ikastaro zein hitzaldiak, zinema emanaldiak, erakusketak, eta abar. Baina arrakasta handiena izan zuen erabakia gaztetxoen saila sortzearena izan zen.

**Serafin Esnaola, pieza klabea**

Gaztetxoen saila sortzeko ezinbesteko pieza izan zen Serafin Esnaola apaiza. "Ekintzaile sutsua zen. Hari eta haren laguntzaileei esker 10 eta 14 urte arteko ume andana sartu zen. 1970eko Altzasuko kanpaldi hura izugarria izan zen. Gero etorri ziren Urbasa, Degurixa, Ugaztegi, Dexao… Eta gainerako sail guztietan buru-belarri nola genbiltzan! Komenio kaleko lokalean zegoen joan-etorria ere ez zen nolanahikoa. Bost autobus betetzera ere iritsi ginen mendira joateko! Gaztetxook autonomia osoa geneukan eta On Serafinek arduraz eta heldutasunez jokatzen erakutsi zigun", gogoratzen du Elkoroberezibarrek. 1980ko hamarkadan sortu ziren eski saila, eskalada eta Mendia Bizirik egitasmoa, besteak beste.

Egoitza ezberdinak ere izan ditu Pol-Polek. Txoko tabernan hasi ziren, baina berehala Barrenkaleko Ollagorra tabernako sotora pasatu ziren. 1950 inguruan Artekaleko Palday tabernako gela bat izan zen egoitza, 1965ean Komenio kaleko parrokiaren hirugarren solairura joan ziren arte. Serafin Esnaolari esker 1976an beheko lokala alokatzea lortu zen eta bertan egon ziren 2010era arte. Han egon zen Pol-Pol taberna, hainbat bergararrendako leku kuttuna izan zena. Handik azokara eta 2013az geroztik frontoiko lokaletan daude erosi berri duten San Pedro kaleko lokala egokitu arte.

**Liburua, urte amaierarako**

Elkoroberezibarrek liburu bat kaleratu gura du urte amaierarako: "75 urtek askorako ematen dute! Dokumentazioa eskuratu, argazkiak bildu eta bertan ageri direnak identifikatu, testigantzak jaso... Pol-Pol Mendizale Taldeak Bergaran eragin duen mendizaletasuna eta herrigintza azaltzen ahaleginduko naiz". Testigantzak, argazkiak edo filmerik partekatzeko: 606 526 810 telefono zenbakira deitu edo *maelkoro@gmail.com* helbidera idatzi.



1973an Altzasun egindako kanpaldia. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA / M.A. ELKOROBEREZIBAR FONDOA



Aralar eta Beriain arteko ibilaldia (1944). GIPUZKOAKO ARTXIBOA / INDALECIO OJANGUREN FONDOA



1976ra arteko lehendakariak Pol-Pol tabernaren irekieran. POL-POL FONDOA

## 75. urteurreneko Mendi Astea, ekitaldi interesgarriz lepo

Urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatuko dira urtean zehar. Martxorako, hasteko, Mendi Astea iragarri dute, bost ekintza interesgarrirekin. Ekintza guztiak Irizar jauregian izango dira, 19:00etan. Kamisetak eta zapiak salgai jarri dituzte.



Bittor Alberdi, Amaia Ostolaza, Aitor Eraña eta Felix Maiztegi. ANE VITORIA

- **Martxoaren 15ean:** Migel Angel Elkoroberezibarrek lehen urteetako argazkiak eta filmak aurkeztuko ditu. Amaia Aranzabal ere egongo da, zortzimilako bat igo zuen lehen emakume euskalduna.
- **Martxoaren 16an:** Ibon Santosen *Alpeetako ipar hormak* emanaldia.
- **Martxoaren 19an:** Mendi irteera Azkarate eta Bergara artean. Ondoren, bazkaria egingo dute Agorrosingo tabernan, musikaz girotuta. Izen-ematea itxita dago, 130 bat lagun batuko dira.
- **Martxoaren 21ean:** *Bolt Proyect* filmaren emanaldia Mikel Uribesalgo eskalatzailearen eskutik.
- **Martxoaren 23an:** Emanaldia: *Islandia, odisea y supervivencia* filma.
- **Martxoaren 26an:** Udal bandaren kontzertua frontoian (12:30). Pol-Polen ereserkia joko dute; letra Basarri bertsolariak egin zuen eta doinua Migel Gonzalez Bastidak.






Katearen ostean, San Martin plaza ikastetxe guztietako ikaslez bete zen mosaiko erraldoia egiteko. XABIER URZELAI

# Giza katea eta mosaikoa, berdintasunerako aldarri

Ikastetxe guztiek hartu zuten parte eguaztenean herria alde batetik bestera lotu zuen Berdinkatean; ekintzarekin oso pozik egonda ere, bost ikastetxeetako ordezkariek onartu dute parekidetasunaren bidean oraindik bide luzea dagoela egiteko

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Emakumeen Egunaren bueltan asteon egin diren ekitaldien artean Berdinkatea nabarmendu beharra dago. Ikasle gaztez osatutako giza katea egin zen herriko punta batetik bestera. San Martin Agirre eskolan hasi, Ipintzatik pasatu, Aranzadi ikastola, Migel Altuna Institutua, San Martin plaza eta Mariaren Lagundian bukatu zen.

Giza katea amaituta, ikastetxe guztietako ikasleek manifestu bat irakurri zuten udaletxeko balkoitik. Horren ostean, mosaikoa osatu zen plazan. Bertan egon zen Elena Lete alkatea ere; pozik, ekimenak izan zuen arrakastagatik: "Hezkuntza batzordean sortu zen ideia, partaidetzakoa. Ikastetxeekin garatu dugu ideia eta ekitaldi xumea izan behar bazen ere, jende asko mugitu da; bakarrik borobilean 350 bat ikasle batu dira. Oso polita izan da, inplikazio eta motibazio oso handiekin. Balorazio ezin hobea egiten dugu".

**Bide luzea egiteko oraindik**

Ikastetxeetako arduradunek uste dute egiteko asko dagoela. "Lantzen ez dena ez da ikasten. Horregatik txikitatik hasi beharra dago. Askotan gauza konplikatuekin aritzen gara; oso erraza izan beharko litzateke, adibidez, mezuak transmititzea", uste du Aranzadi Ikastolako Ane Barrusok. "Ikastetxeetan berdintasuna nahikoa bermatuta daukagu baina gizarteari begira, lanean edo familian, ikusten dugu desoreka dagoela", dio Ipintza Institutuko Arantxa Arrutik. "Txiki-txikitatik hasten dira umeak estereotipoak eta bereizketak jasotzen. Horregatik, oso garrantzitsua da ordutik hastea berdintasuna eta parekidetasuna lantzen, bereizketa horiei aurre egiteko", deritzo San Martin Agirreko Begoña Otsoa-Aizpuruak. "Batzuetan pentsatzen dut halako inboluzio bat egon ote den gazteengan, rolen onartzean. Mutilek ez dakite erratz bati nondik heldu ere, horrek kezkatu egiten nau", dio Mariaren Lagundiako Gotzon Iparragirrek. "Lan mundua oso lotua dago rolei, emakumezkoen lanak eta gizonezkoenak. Hori aldatu egin behar da; azken urteetan ikusten da ziklo teknikoetan gero eta emakume gehiago dagoela eta beste ziklo batzuetan gero eta gizonezko gehiago", azaldu du Migel Altuna Institutuko Josune Irazabalek.

**ELENA LETE: "OSO POLITA IZAN DA, INPLIKAZIOA ETA MOTIBAZIOA OSO HANDIAK IZAN DIRA"**

**Martxanteren performance-a**

Eguaztenean bertan, Martxanterek performance bat egin zuten San Martin plazan eta bihar, zapatua, festa feminista egingo dute gaztetxean. Shotokan taldeak autodefentsa ikastaroa egingo du bihar, Agorrosinen (11:00).



NIRE USTEZ

JAIONE CARPINTERO

## Ausardiaz betetako motxila

Duela gutxi motxila hartu eta Asiara bidaiatzea erabaki nuen. Hilabete pasa nuen Thailandian. Ni eta nire motxila. Bakarrik. Zergatik ez? Betidanik probatu nahi izan dudan zerbait izan da. Esperientzia ahaztezina. Norbere buruarekin denbora gehiago eman, pentsatu, ikasi, ezagutu, eta inguruko jendearekin harremanak egin. Zoriontsu izan, bizi garen estres mundutik, egun gutxi batzuetatik bada ere, distantzia hartuz. Begiak itxita berriz egingo nukeen zerbait izan da. Eta egingo dudana, ziur!

Ausarta? Abenturazalea? Ikasteko eta ezagutzeko grinaduna? Ez! Nire inguruko jende askok inkontziente baten modura ikusi naute. Are gehiago, emakume izanik.

Bakarrik bidaiatzeak ez du esan nahi lagunik, familiarik ez duzunik, ezta gutxiago ere. Bakarrik bidaiatzea nahi duzuna, nahi duzunarekin eta nahi duzunean egiteko askatasuna izatea da. Guztioi, baina bereziki emakumeei, motxila beldurrez hustea, ausardiaz betetzea eta munduan ibiltzea gomendatzen dizuet. Bizitzan behin bada ere, probatu!

## Brontzezko domina gure bi ikaslerentzat, 'Spainskills 2017'-an

Goiena komunitatea

Migel Altuna Institutua / BERGARA

Espainiako Hezkuntza ministerioak antolatuta martxoaren 1etik 3ra bitartean burutu diren *Spainskills 2017* lehiaketan Miguel Altuna Institutuko Automatizazioa eta Robotika Industriala deritzon Goi Mailako heziketa zikloko ikasle diren Izan Maillo eta Mikel Mengual mekatronika modalitatean brontzezko domina lortu zuten. Mekatronika alorrean 14 erkidegok hartu dugu parte eta horien artean MAIko ikasleak hirugarren gelditu dira, Kataluniaren eta Extremaduraren ondoren. Askotariko probak dizan dituzte: bi maketa muntatu, elkarrekin programatu eta mantenu lanak egiteaz gain, maketaren funtzionamendua optimizatzea lortu zuten. MAIren izenean Zorionak Izan, Mikel eta prestatzen lagundu dieten Beto eta Jon Mikel irakasleei ere!

## Bertako euskara lantzeko ikastaroak Udal Euskaltegian

Berba egiterakoan egiten diren akats ohikoenak lantzeko ikastaroa antolatu Udal Euskaltegiak. Helburuak dira guraso, zaintzaile, begirale, entrenatzaile, eta abarri euren hizkuntza akatsak zuzentzen laguntzea eta umeen akatsak zuzentzeko nagusiek erabil ditzaketen estrategia lagungarriak eskaintzea. 16 urtetik gorako edozeinek har dezake parte eta izena eman behar da martxoaren 17a baino lehen; saio guztiak Aste Santu aurretik izango dira. Izena emateko, Udal Euskaltegira deitu (943 764 453) edota izena emateko txartela bete eta Irizar jauregira eraman behar da. Ikastaroan parte hartzeko matrikula hamar euro da.

OHARRAK

## Ibilgailuen zerga

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epealdia martxoaren 1ean hasi zen eta maiatzaren 19an amaituko da. Ordutik aurrera errekarguarekin eskatuko da.

## Hitzaldia: Goienagusi

Goienagusi elkartearen eskutik, EHUko irakasle eta Donostia International Physics Center-eko kide Aitor Bergarak hitzaldia eskainiko du martxoaren 15ean udaletxeko osoko bilkuren aretoan –10:00etatik 12:15era–. *Grafeno, el material del futuro* du izenburu hitzaldiak; saio irekia izango da.



Lokatzako txirrindulariak eta elkarteko kideak, denboraldiaren aurkezpenean. IMANOL SORIANO

# Lokatzetan sartzeko prest denboraldi berrian

Lokatza Ziklismo Elkarteak antolatuko dituen proben egutegia ezagutzera eman du non hiru proba berri izango diren. Bestalde, elkarteko taldeak eta 18 txirrindulariak aurkeztu dituzte. Gorlako igoera, Peugeot Etormobil saria, hilaren 26an egingo dute

**E.Azurmendi /M.Txintxurreta** BERGARA

Lokatza ziklismo elkarteak asteburuan aurkeztu du 2017rako denboraldiaren egutegia eta urte honetan izango dituen taldeak. Adin eta kategoria desberdinetako 18 txirrindularik osatuko dute taldea.

Gorlako Igoera -Peugeot Etormobil saria-, martxoaren 26an egingo dute. Aurten 125 kilometro izango ditu lasterketak, eta lehenengoz aipamen berezia izango du: *Malatu* saria, Luis Mari Gabilondo zenaren omenez. Gorlako gainetik lehenengo pasatzen denari emango diote.

Aurtengo egutegian badira hiru hitzordu berri. Lehena apirilaren 1ean izango da, Antzuolan, eskola umeei bideratuta. Arratsaldez, gazte mailakoen Uzarragako igoera egingo dute.

San Martzial egunean, ekainaren 30ean. San Martzialera kronoigoera egingo dute, eta hainbat kategoriatako emakumezko txirrindulariek hartuko dute parte. "Herrian hasi, San Martzialerantz abiatu, eta Lamaino Etxeberri nekazari turismoan amaituko dute", azaldu du Lokatzako Xabier Arantzetak.

### Lasterketen egutegia

**Martxoak 26:** Gorlako Igoera, Peugeot Etormobil saria

**Apirilak 1:**
- Goizez: Eskolar mailako lasterketa Antzuolan
- Arratsaldez: Uzarragako igoera (Antzuolan).

**Apirilak 9:** Labegaraietako saria

**Maiatzak 1:** Eskola umeendako lasterketa Labegaraietan

**Ekainak 4:** Pentekoste saria

**Ekainak 10:** Gipuzkoako erlojupekoa San Antonion.

**Ekainak 30:** San Martzialera kronoigoera

**Uztailak 8:** Jaitsiera, Antzuolan

**Antzuolan jaitsiera**

Bestetik, aditzera eman zuten uztailaren 8an jaitsiera bat antolatzeko eskaera egin diotela antzuolar batzuek Lokatzari. "Haiek hobeto azalduko dute zertan datzan zehazki, baina hemendik iragarri nahi izan dugu", nabarmendu du Jon Unamuno presidenteak.

**Ohiko hitzorduak**

Nobedadeez gain, baina, elkarteak urtez urte antolatzen dituen probak ere ez dira faltako egutegian. Hor daude, esaterako, Uzarragako igoera, Labegaraietako saria eta San Antonio jaietako erlojupekoa.

**100 zikloturistatik gora**

Zikloturismo saila ere badu Lokatzak, eta 100 lizentziatik gora atera dituzte aurten.

## Soraluze lau t'erdiko pilota txapelketako finalak erabakita

Promes mailan Egiguren Alberdiren aurka arituko da eta nagusietan Labaka eta Santxo izango dira aurrez aurre

**M.T.** BERGARA

Erabakita daude martitzenean, hilak 14, Soraluze lau t'erdiko txapelketako finala (19:30) jokatuko duten pilotariak: promes mailan Egiguren-Alberdi eta nagusietan Labaka-Santxo.

Asteon jokatutako finalerdian, lehen partidua "laburra" izan zen, eta Alberdiren nagusitasuna nabarmena, Reyes Azkoitiak dioenez. Bigarrena, aldiz, "gogorra" izan zen. Zabala partidu osoan aurretik joan arren, 18an "trabatuta" geratu zen eta Santxok aurre hartu zion.

**Trinketean txapeldun**

Bestalde, Jon Larrañagak eta Eneko Muguruzak osatutako bikote bergarararra garaile izan da Gipuzkoako bigarren mailako trinket txapelketan, Hernaniri 40-33 irabazita.

**Asteburuko kartelera**

Gaur bi partidu izango dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita. Lehenengo, nagusi mailako eskuz binakako partidua, Bergara-Lagunak. Ondoren, gomazko paletan gazte mailako neskena, Bergara-Ataun.



JOXEAN IÑARRA

## Zortzi bergarar podiumean

Shotokan taldeko karatekak Gipuzkoako Kumite Txapelketan izan dira asteburuan Donostian. Nor bere kategorian, Markel Salgado, Unai Nogales, Naia Perez eta Saioa Leturia txapeldun izan ziren. Nahia Etxarri bigarren izan zen eta Aritz Sabalzak, Ainhoa Salillasek eta Nora Linazisorok podiumeko hirugarren postua eskuratu zuten.

### Futbol taldea animatzeko autobus eta guzti asteburuan

Kirol Elkarteko zuzendaritzak autobusa antolatu du Preferente Mailako futbol taldeak bihar 15:30ean Alegian Intxurre KE taldearen aurka jokatuko duen partidura joateko. Mahoneroek lider jarraitzen dute, bigarrenari sei puntu aterata. Zortzi jokalarirekin, etxean lehen partidua galdu zuten bergarararrek asteburuan Idiazabalen aurka.

### Saskibaloian eta eskubaloian, aurkari gogorrak etxean

Ezohikoa izan arren, gaur, egubakoitza, izango du partidua saskibaloiko Soraluce BKEk. 20:30ean izango da, Labegaraietan, STL Azkune liderraren aurka. Eskubaloian, mahoneroek Ereintza Beissier hartuko dute etxean, taulan hirugarren postuan dagoen taldea. 16:45ean izango da norgehiagoka, Labegaraietako kiroldegian.

# Herriarteko Bertso Txapelketa Artatsen

Gipuzkoako Herriarteko Bertso Txapelketaren baitan, Debagoiena taldearen eta Donostiako Aitziaren Gorraizia taldearen arteko saioa izango da bihar gauean. Bailarako bertso eskoletako kide debagoiendarrak animatzera etorriko dira

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Bertsozaleek hitzordua daukate bihar gauean Artatse elkartean. Izan ere, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren baitako saio bat jokatuko da bertan, Debagoieneko taldearen eta Aitziaren Gorraizia donostiarren artean.

21:00etan afaria izango da elkartean (sarrerak aurrez saldu dituzte), eta 22:30ean hasiko da saioa. Saioa bera doan izango da, eta afarira joaten ez direnak ere joan daitezke ikustera.

Debagoieneko ordezkarien artean, bergararrik ez da arituko bertsotan. Bai, ordea, gai jartzaile eta epaile lanetan. Gai jartzailea Ibon Leibar izango da eta epailea, berriz, Nerea Madariaga. Kantatuko dutenak, berriz, Ane Zuazubiskar arrasatearra, Oihana Arana eskoriatzarra eta Martin Berrizbeitia aretxabaletarra izango dira.

**Lehen saioan, galdu**

Debagoiena taldeak lehen saioa otsailaren 12an jokatu zuen, Anoetan, Tolosaldeko taldearen aurka. Etxekoek 14 puntu lortu zituzten eta kanpokoek, berriz, 10. Saio horretan Haizea Aranak, Oihana Aranak eta Marixe Ruiz de Austrik kantatu zuten.

Debagoiena lehen kanporaketan lau taldeko multzoan dago, eta donostiarrez eta Tolosaldekoez gain, Erniarraitz taldeak osatzen du multzoa. Multzo bakoitzeko lehenengoa igaroko da hurrengo fasera.

Lehen saioan galduta, debagoiendarrentzat zaila izango da aurrera egitea, baina Ane Zuazubiskarrek nabarmendu du "ondo pasatzea" dela haientzat garrantzitsuena. "Gogoz eta animatuta" daude taldekideak etxean kantatzeko, lagun eta ezagunez inguratuta. Gainera, azaldu du bailarako bertso eskola guztietako kideak joango direla bertso saioa ikustera, eta giro ona sortuko dela uste du.



Herriartekoan diharduen Debagoiena taldea. LEKAIXOKA BERTSO ESKOLA

## "Saiatu naiz gaiei umore ukitua jartzen, saio polita izan dadin"

**IBON LEIBAR 'TXINBO'** GAI JARTZAILEA

Ibon Leibar bergararra gai jartzailea izango da zapatuan.

**Prestatu dituzu gaiak? Nondik nora joango dira?**

Bai, prestatuta dauzkat. Saiatu naiz umore ukitua jartzen gaiei, ikusleendako saio polita eta arina izan dadin. Agurra ere puntuagarria izango da; orduan, zerbait prestatuta izango dute eta kanturen bat edo egongo da... Horrek ere lagunduko du saioa dibertigarria izan dadin.

**Nola gertatzen dituzu gaiak?**

Normalean, umoretik joatea gustatzen zait. Gai serioren bat ere sartzen dut, bakarka lantzeko-edo, bat edo beste egon behar delako. Baina, normalean, ez zait gustatzen txapelketa nagusietan bezala gai guztiak serioak izatea.

**Politak dira herriartekoa bezalako ekimenak?**



L.B.E.

Bai. Bertsolaritza gustatzen zaigu, eta halako ekimenetan parte hartu izaten dugu bergararrok ere. Esaterako, Bertsotruk-en. Iaz hasi zen, eta aurten ere Aretxabaletan izan gara eta Lasartera ere joango gara. Eta herriartekoa bezalako txapelketak, taldekakoak-eta, oso politak izaten dira. Bestelako txapelketak oso urruti geratzen zaizkigu, eta horrelakoak gazteek eta hasiberriek parte hartzeko aukera politak izaten dira.

## 'Futbolariak eta printzesak', gogoetarako antzezlana

Eidabek Zabalotegin taularatuko duen ikuskizunak hausnarketa bultzatu nahi du genero rolen inguruan

**M.T.** BERGARA

Domekan, martxoaren 12an, *Futbolariak eta printzesak* antzezlana izango da Zabalotegi aretoan, Eidabe antzerki taldearen eskutik, arratsaldeko seietan, eta sarrera lau euro kostako da.

Parekidetasunaren gaia jorratu eta nesken eta mutilen genero rolak zalantzan jartzen dituen antzezlana da honako hau.

**Hausnarketarako aitzakia**

Lur (Jon Zubiaga, *Osoron*) eta Odei (Olatz Pagaldai) dira *Futbolariak eta printzesak* istorioko bi protagonistak, eta biek elkar nola ezagutu duten kontatzen dute antzezlanean.

"Odei apur bat atzerakoiagoa-edo da, integratua sentitu nahi duelako, batez ere. Lur, aldiz, justu kontrakoa da", azaldu du Pagaldaik. Antzezlanean umore ukitua ez da falta, eta erritmo bizia du.

Olatz Pagaldaik dio berez 7-13 urte bitarteko umeendako ikuskizun bezala aurkezten duten arren, eurek gomendatzen dutela gurasoekin edo familian ikustera joatea. Izan ere, antzezlan hau "parekidetasunaren gaia jorratzeko erreminta" izan dadin nahi dute. Gai "gordina" izan arren, antzezlanaren bidez "pisua kendu" nahi diote, antzezlana bera umeen eta gurasoen artean ere horretaz berba egiteko aitzakia izan dadin.

**Antzezlan arrakastatsua**

Urtebete baino gehiago daramatzate Eidabekoek antzezlan honekin, eta harrera "oso ona" izaten ari da. "Zorion pila bat jasotzen ari gara, eta aste honetan, esaterako, egunero funtzio bat daukagu", dio Pagaldaik.

## Laskurainen eta Olearen kontzertua organoaren alde

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Aldeko Lagunak Elkarteak kontzertua antolatu du domeka honetarako, hilak 12, Santa Marina elizan (19:00). Jose Migel Laskurain eibartarrak, egungo Bergarako Txistulari Bandako zuzendari denak, txistua joko du, eta Aitor Oleak, berriz, organoa. Bien artean, Tomas Garbizu Salaberria konpositorearen piezekin osatutako errepertorioa joko dute.

Sarreratik batutako dirua San Pedro parrokian dagoen 1889. urteko Stoltz-Freres etxeko organoaren berriztatze lanetara bideratuko dute. Sarreraren prezioa bost euro da.

Dohaintza ekonomikoa egin nahi dutenek ere badute horretarako aukera, Kutxabankeko ES90 2095 5070 7091 1532 9753 kontuaren bitartez.

## Borroka feminista eta jaia bat eginda bihar, zapatua, gaztetxean

Martxanterak talde feministak antolatuta, festa feminista egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean. Iluntzeko zazpietan abiatuta, *zumba* poteoa egingo dute. Gauean, 22:30ean, Serpiente taldeak kontzertua emango du. Bilbotik datoz eta post punka egiten dute.Gero, *Martxanterak VJ*-rekin jarraituko du festak. Sarrera: 3 euro.

## Ipuin kontaketa saioa Etxegarairen eta Rodriguezen eskutik

Kartzela zaharreko haur eta guraso asanbladak antolatuta, ipuin kontaketa saioa izango da gaur arratsaldean, egubakoitza (18:00), gaztetxean. Eneko Etxegarai idazlea eta Eduardo Rodriguez ilustratzailea izango dira ipuin kontalariak, eta, beraz, ahozko kontaketa eta irudiak uztartuko dituzte. Sarrera: 2 euro.



# KULTURRIZKETAK

**GOIENA TELEBISTA, 'KULTURRIZKETAK'**
EGUENEAN, MARTXOAREN 16AN, 21:30EAN
**ALAIA MARTIN ETA MANEX AGIRRE AURREZ AURRE**

goiena"
ZU HEMEN ZAUDE



Eguaztenean egindako elkarretaratzea Herriko Plazan. ANTZUOLAKO UDALA

# Emakumeen eskubideak egunero aldarrikatzeko

Eguaztenean, Martxoaren 8a, antzuolarrek emakumeen eskubideak aldarrikatu zituzten; asteburuarako, baina, ekintza gehiago antolatu ditu Gizarte Ongizate Sailak: "Emakumeen eskubideak eta berdintasuna egunero landu behar dira"

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Martxoaren 8a egunero dela aldarrikatu zuten eguazten iluntzean Antzuolako Herriko Plazan batu ziren herritarrek.

Elkarretaratzean, Olaranen asteburuan zabalduko duten erakusketako argazkiak proiektatu zituzten. Herriko hainbat emakumeren ogibideak gertutik ezagutzeko aukera izan zen.

Berdintasuna, emakumeen eskubideak eta parekidetasuna ez da soilik Martxoaren 8ko kontua. Gizartean eta norbanakoan oraindik ere lan asko egin beharra dagoela dio Gizarte Ongizate zinegotzi Alaitz Igartzabalek: "Egunero jarraitu behar da lanean; eta norberarengandik hasita. Parekidetasuna lortzeko bi dimentsiotan egin behar dugu lan, gizarte mailan eta norbanakoan. Azken honetan, gure pentsamenduak, praktikak eta jarrera sartzen dira jokoan. Gizartea aldatzeko geure burua ere aldatu behar dugu".

**'Berdinbidean' programa**

Igartzabalek dio berdintasuna arlo guztietako zeregina dela, eta, horregatik, hasi Udaletik hasi direla. Hala, berdintasuna lanean txertatzeko, idazkariek eta kontu-hartzaileek formazio bat egin dute; baita udal zinegotziek ere. "*Berdinbidean* programaren barruan jarraituko dugu aurreko urtean finkatutako hiru lan ildorekin. Lehena: *mainstreaming* eta Gobernantza –berdintasun politikak zeharkakotasunez lantzeko estrategia dira, baina Udaletik hasitakoa izango da–. Bigarrena: balioen aldaketa eta emakumeen jabetza. Eta hirugarrena: indarkeria sexistarik gabeko Gipuzkoa", argitu du.

**Emakumeak protagonista**

Aste bukaeran, Olaranen, herriko emakume langileen argazki erakusketa izango da ikusgai –zapatuan eta domekan, 18:30-20:30–. "Gure asmoa emakumeek jorratzen dituzten lan-arlo guztiak edo gehienak irudikatzea izan da, ez etxetik kanpo bakarrik, baita etxe barruan ere".

**Olatu Morea, bihar**

Oinez edo korrika parte hartu dezakete antzuolarrek bihar egingo den Olatu Morea lasterketan –lau kilometro korrika edo bi kilometro oinez egin dezakete–.

"Adin guztietako emakumezko zein gizonezkoak animatu daitezke emakumeen eskubideen aldeko lasterketan parte hartzera. Iazko harrera ikusita, aurten ere nork bere mezua idazteko aukera izango du aurrez banatutako zaien globoan. Eta bukaeran, denak askatuko ditugu, mezuak zabalduz. Azken mezua irakurriko dugu udaletxeko balkoitik", azaldu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak.


Iazko Olatu Morea, Herriko Plazan. GOIENA

## Kirola eta aldarrikapena, zapatuan

10:15ean *zumba* saioa egingo dute pilotalekuan bihar, zapatua. Arratsaldean, aldiz, 17:30ean, Olatu Morea lasterketa. 17:00etan globoak banatuko dituzte, nork bere mezua idatz dezan, eta lasterketa 17:30ean hasiko da. Nahi duenak oinez egin dezake.

## Ahozko transmisioaren garrantzia azpimarratuko dute

'Ahotik bihotzera' ipuin maratoiaren laugarren edizioa apirilaren 2an, domekan, egingo da Antzuolan

**M. A.** ANTZUOLA

"Ahozko tradizioak pertsona izaten erakusten digu, mundu justuagoa irudikatzen, balioetan hezten gaitu, itxaropena dakarkigu... ipuinik gabeko herriak bere nortasuna galtzen du". Horrelaxe, ahozkotasunaren garrantzia aldarrikatu gura dute aurtengo *Ahotik bihotzera* ipuin maratoian ere.

Eta, horregatik, apirilaren 2an, domekan, ahozko tradizioaren festan parte hartzera animatu gura dituzte herritarrak. "Asko poztuko ginateke kontatzera etorriko bazinete!". Animatzen denari laguntzeko prest gaude, gainera", kontatu du Virginia Imaz antolatzaileak. "Guri esatea besterik ez dauka interesa duenak, eta lagunduko diogu".

Baina, zer kontatu? Nola parte har daiteke? "Nahi dena kontatu daiteke; baldintza bakarra da ezin dela irakurri: ipuinak, istorioak, garai bateko bizimoduaren pasarteak, bertsoak, kantuak... nahi dena kontatu daiteke ipuin maratoian", argitu dute antolatzaileek.

Egun osoko festa izango da, gainera: 13:00etatik 14:30era bitartean ipuin eta bertso-poteoa egingo da herriko tabernetan barrena. 18:30etik aurrera, aldiz, ipuin eta bertso maratoia egingo da Torresoroan.

Izena emateko, harremanetan jarri beharko dute interesa dutenek Udaleko Kultura Sailarekin, 943 76 62 46 telefonora deituta edo *kultura@antzuola.eus* helbidera mezua idatzita.

## Ipuin kontalaria gaztetxoendako domekan

*Behinola* taldeko ipuin kontalariak etorriko dira domekan, martxoaren 12an. Ipuin kontalari tradizionalen tekniketatik abiatuta, jauzi bat eman nahi izan diote ipuinak kontatzeko moduari, askoz hurbilagoak eta parte hartzaileak izan daitezen. 4 eta 10 urte arteko umeendako saioa 18:30ean Torresoroan izango da domekan.

# Eskola handitzeko lehen urratsak egin dituzte

Asmoa da 2017rako Herri Eskola handitzeko proiektua eginda eta esleituta egotea; hala, 2018ko lehen sei hilabetean hasiko lirateke eraikinaren obrak eta urtebeteko epean amaituta egotea aurreikusten du Antzuolako Udalak

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Udalaren eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetza hitzarmena onartu zen aho batez martitzeneko osoko bilkuran. Modu horretan, Haur Eskolen Partzuergoak Antzuolako eskolak duen eraikina erabiliko du beste bost urtetan.

Baina Antzuolako Herri Eskola txiki geratu da, eta behar hori asetzeko bestelako urratsak egiten hasia da Udala. "Otsail hasieran Jaurlaritzako Hezkuntzako Eraikuntza Saileko teknikariak egun duten proiektua aurkeztera etorri ziren. Oraindik guztiz amaituta ez egon arren eta oraindik aldaketa batzuk izango dituen arren, proiektua aurreratuta daukate eta uda baino lehen proiektu-base bat egina izango zutela esan ziguten –xehetasunak gorabehera, behin betikoa gertu izango duen proiektua–", azaldu du Hezkuntza zinegotzi Mikel Bargielak. Izan ere, leku arazo honi irtenbidea emateko asmoa da egun gela aurrefabrikatuak dauden lekuan bi pisuko eraikin bat egitea. "Eskolako eraikin osoari lauki forma emango dion bi pisuko eraikina egitea da asmoa".



Antzuolako Herri Eskola. MAIDER ARREGI

**2018an handitze lanak**

2017an proiektua bukatu eta eraikuntza lanak esleitzea aurreikusten du Antzuolako Udalak. "2017an ere, Udalak eraikitzeko behar diren arau aldaketak egin eta onartu behar ditu", argitu du Bargielak. Hala, eraikuntzako obrak 2018an hasiko lirateke. "Lehenengo seihilekoan hasiko lirateke eta urtebete ingurukoak izatea espero dugu –dena ondo badoa–".

**Arau aldaketa**

Esan bezala, eskola handitzeak egun gela aurrefabrikatuak dauden espaloi gunean eraikitzea eskatuko du –Sagasti aldean–. Horregatik, arau aldaketa onartu beharrekoa da gune horretan eraiki ahal izateko. "Aldaketa egiteko obraren proiektu guztiz definitiboa behar ez bada ere, proiektu-basea edo, nolabait esateko, neurri perimetralak, behintzat, ezagutu behar dira, aldaketa nolakoa den ezagutu eta gunearen kudeaketa zehazteko".

**Metodologiari jarraipena**

Eskolak duen irakaskuntza metodologiaren jarraipena bermatu gura dutela ere azaldu du. "Kontuan hartu behar da metodologia hau ezarri eta landu zuten –eta lantzen ari diren– irakasle asko erretiratu direla. Egin duten lan hau guztia ez galtzea da helburua, eta metodologiari jarraipena ematea".

## Gela aurrefabrikatuak

Hemendik 2 edo 3 urteren bueltan eskolan izango den ikasle kopurua kontuan hartuta, Hezkuntza zinegotziak dio "beharrezkoa" izango dela bi pisuko eraikina egitea Sagasti inguruko gunean.



Sagasti aldean dauden gela aurrefabrikatuak. M. A.



NIRE USTEZ

**OIER PEÑAGARIKANO** OIERNAIZ@GMAIL.COM

## Gizonak

Martxuan 8xa pasau jakun honetan, beste batzutan entzun bihar izan dittudan afirmaziño hutsak entzutia tokatu jat berriz be. "Feminismua eta matxismua berdinak dia, hemen berdintasuna". Igual oin arte ez ziñan pentsatzen jarriko, baina matxismua eta feminismua ez dia berdinak. Matxismuak gizonen nagusikeria bilatzen dau eta feminismuak nagusikeria honekin bukatzia.

Hezkuntza sistemak –hortik ihes egin nahian dabilen arren– eta gizartiak antolaketa sozial horren egonkortasuna bermatzen dabe, horri heteropatriarkatua deitzen jako. Mugimendu feminista desbirtuau eta kriminalizatzen dau egunero. Horren adibide dira txiste matxista eta nesken gorputzen erabilera materiala.

Aldizkari bat zabaldu edo Antzuolan edozein tabernatan belarrixa fintzia nahiko izengozu topatzeko. Antzuola be herri matxista da, bai, gure herrixa ez dago gizarte hontatik kanpo, eta bertako mutilok be rol horrek errepikatzen dittu. Gizonok etxeko lan ugari dauku berdintasunian, feminismuan, oinarritutako gizarte baten bidian. Zure aukeria da astotik jeistia edo zure etxekuak eta ingurukuak zapaltzen jarraitzia. Ze bide aukeratzen dozu?



Antzuolako erregional taldea. AKE

## Ibai Zabalo: "Gure esku dago helburua, finala jokatu gura dugu"

Partidu "gogorra" jokatuko dute lider dagoen Billabonaren aurka bihar, zapatua, 16:30ean, Eztalan

**M.A.** ANTZUOLA

Sailkapeneko lehen postutik puntu bakarrera dago Antzuolako taldea, 21 punturekin. Lehena Billabona da, 22 punturekin. Eta, hain justu ere, bihar, zapatuan, Eztalan neurtuko dituzte indarrak, 16:30ean.

Partidu lehiatua izango dela aitortu du Ibai Zabalok, Antzuola taldeko kapitainak: "Partidua gogorra izango dela badakigu. Futbol zelaia, behintzat, gure aldekoa izango da. Billabona taldea teknikoa da; gu, aldiz, fisikoki indartsuagoak gara, eta ea hortik jota garaipena lortzerik daukagun. Etxekoen berotasuna ere izango dugu eta".

**Helburuak betetzear**

Taldeak argi dauka lehen postuetan geratu beharra daukala igoera lortzeko: "Hirugarrenarengandik bost puntura gaude. Helburua lehen postuetan egotea da; gure esku dago eta argi dugu finala jokatu nahi dugula igoera lortzeko". Zabalok gaineratu du lan egin dutela helburu hori lortzeko. "Denboraldi hasieratik bagenekien talde indartsuagoa eta polita geneukala gauza politak egiteko", kontatu du.




Martxoaren 8an emakumeen eskubideak aldarrikatzeko Elgetan egindako elkarretaratzea. L.Z.



Eskolako ikasleak eta irakasleak eguazten eguerdian lore moreak eskuan. L.Z.



Alabak lore morea opari. L.Z.



Altxorra topatzeko pista irakurtzen. L.Z.

# Berdintasuna eskatzeko, leloak, jokoak eta loreak

Emakumeen lana eta indarra ikusarazteko eguna izan zen Martxoaren 8a, baita gizarte patriarkalaren desorekak nabarmentzekoa ere. Aldarrikapen eguna ez zen oharkabean pasatu Elgetako neska-mutikoendako. Eta helduendako ere ez...

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Kolore morea nabarmendu zen Elgetan Martxoaren 8an. Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko, morez janzteko eskaera jaso zuten Herri Eskolako ikasleek, eta gaiarekin lotutako ekintzak egin zituzten egun osoan. Arratsaldean, eskuz egindako paperezko lore banarekin irten ziren eskolatik, maite duten emakume bati oparitzeko. 17:30ean bestelako eragileek hartu zuten lekukoa. Gaztelekuko neska-mutikoek egindako pankarta zintzilikatu zuten udaletxeko balkoitik, eta pista bila ipini zituzten hainbat ume *Altxorraren bila* jokoaren bitartez. Topatutako esaldi zatiekin esaldi osoak osatu behar izan zituzten, eta elkarretaratzerako prestatutako pankartan ipini zituzten. Hiru izan ziren: *Berdintasunaren bidean atzerapausorik ez!; Jaiotzaz ez gara arrazistak, matxistak, homofoboak edo sexistak. Zer gertatzen zaie batzuei gero?;* eta *Kalean aske ibiltzea dut helburu, ez ausart!* Horrela egin zuten elkarretaratzea. Txalo artean eman zioten amaiera ekitaldiari.




Gaztelekuan egindako pankarta udaletxeko balkoian ipintzeko prest. L.Z.



Osatutako esaldiekin elkarretaratzea egiteko pankarta apaintzen. L.Z.

## Nazien esku hildako Pascual Askasibarren ondorengoak

Udalak Bilbon aurkitu ditu arreba Mariaren alabaordea eta biloba. Gerrako beste hobi baten berri ere izan dute

**L.Z.** ELGETA

Alemaniako Wöbbelinen hil zuten naziek Pascual Askasibar elgetarra, 1945ean. Tomas Rebollori eta biei omenaldia egin zieten Elgetan urtarrilaren 27an, Holokaustoaren Biktimen Egunean. Askasibarren kasuan, ordea, ez zen senitartekorik bertaratu, ez baitzegoen haien arrastorik. Turismo teknikari Ainhoa Bernabek ikertzen jarraitu du eta Askasibarren arreba Mariaren alabaordearen eta haren semearen berri izan du orain. Lagungarria izan da baita ere Galarraga baserrian sortutako Julian Azkarragaren testigantza.

Denen artean argitu dute Galarraga Etxetxoko sendiaren nondik norakoak. Ama —Andresa Iriondo— eta bost seme-alaba ziren —Pascual, Maximiliano, Valentin, Maria eta Justa—. Pascual Frantziara joan zen, Maximiliano Argentinara, Valentin oso gazte hil zen Derion, eta Justa serora sartu zen. "Anai-arrebak Pascualen patuaren berri izan barik hilko ziren, ziurrenik", esan du Bernabek.

### Gerrako beste hobi bat

Galarraga baserriko Julian Azkarraga Eibarren bizi da gaur egun, eta 88 urte ditu. Gogoan ditu askasibartarrak, eta, haien inguruko berri ematearekin batera, gerra garaiko hobi baten kokalekua ere eman du. 1936ko urriaren 5ean amarekin eta hiru anai-arrebekin batera Elorriora ihesi zihoala hildako bi milizianorekin egin zuen topo familiak etxetik oso gertu. Galarragak adierazi du aitak eta beste auzotar batek lurperatu zituztela gorpuzkiak baserritik ehun bat metrora dagoen Garaibia izeneko zelaian. "Kokapen zehatza eman du eta lekua markatuta dago orain", adierazi du Bernabek. "Inguru hori Bergara da orain, eta Bergarako Udalaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen esku ipiniko dugu daukagun informazioa". Bada, Elgetan antzerako hobi ugari dagoela esan du Bernabek.

# Korrikaren inguruko lehen ekintzak, gaur

Bi urtean behin egiten den lasterketa ez da aurten herritik pasako. Hala ere, Korrika batzordea sortu du Udalak eta hainbat ekintza prestatu ditu giroa sortu eta herritarrek ekimenarekin bat egin dezaten. Goibekok, berriz, Nafarroan hartuko du lekukoa

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Badator Korrika eta oraingoan Elgeta zapalduko ez badu ere euskararen aldeko lasterketarekin bat egiteko hainbat aukera izango dituzte herritarrek. Gaurko, martxoak 10, iragarri ditu Elgetako Korrika batzordeak lehenengo ekintzak. Buztin gelan burututuko dituzte eta izango dira erakusketa bat, ikus-entzunezko baten emanaldia eta Korrika materialaren salmenta. Erakusketa 18:30etik 20:30era egongo da zabalik eta Korrikaren aurreko edizioen errepaso historikoa egiten du. Ikus-entzunezkoak, berriz, *Euskararen lau aurpegi* du izenburua eta lau lagunen bizipenak ditu ardatz. Euskaraz bizi den jendea, euskarara hurbildu dena, kolore eta ñabardura askotakoa dela erakusten du. Korrika materialaren salmenta 19:00etan hasiko da, hori ere buztin gelan.



Herri Eskolako bi ikasle orain bi urteko Korrikako lekukoarekin, Elgetan. L.Z.

**Korrika egiteko aukera**

Elgetarrek hainbat aukera izango dituzte Korrikan parte hartzeko. Apirilaren 1erako egun osoko irteera antolatu du Goibeko euskaltzaleen topaguneak Nafarroan kilometroa egiteko.

Herri Eskolak, berriz, apirilaren 7rako iragarri du Korrika Txikia eta, gauzak ondo bidean, 15:00etan abiatuko da ikastetxetik herrian zehar itzulia egiteko.

Apirilaren 8an ere Korrikan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Udalak autobusa antolatu du lasterketa Oñatitik zein Arrasatetik igarotzen den unerako. Joan-etorria egiteko autobusa doan izango da.

Apirilaren 9ko amaiera ekitaldirako ere autobusa egongo da. Debagoieneko Korrika batzordeak ipiniko du. Ikusteko dago oraindik autobus hori herritik pasako den edo elgetarrek Bergarara jaitsi beharko duten.

## Korrika kulturala

**Martxoak 10**
- **18:30** *Euskararen lau aurpegi* dokumentala eta Korrikaren errepaso historikoa egiten duen erakusketa, buztin gelan.
- **19:00** Korrika materialaren salmenta.

**Apirilak 1**
- **10:00** Eguneko irteera Eslabara (Nafarroa).

**Apirilak 7**
- **15:00** Korrika Txikia eskolak antolatuta.

**Apirilak 8**
- **10:30** Autobusa Oñatira eta Arrasatera Korrika egiteko. Itzulera 15:00etan (Udalak)

**Apirilak 9**
- Autobusa Iruñara Korrikaren amaierara. Ordutegia zehazteke.

## Goibekok Eslaba herrian kilometroa

Nafarroan hartuko du lekukoa Goibeko euskaltzaleen topaguneak. Eslaba herrian egokitu zaio eta egun osoko irteera antolatu dute apirilaren 1erako. 10:00etan abiatuko da autobusa Elgetatik. 12:00etan txikiteoa egingo dute Oibar herrian, eta 13:00etan Frontoia tabernan bazkaltzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Prezioak dira: 15 euro helduek eta 12 euro umeek. 14:30ean irtengo da autobusa Oibartik Eslabara. Kilometroa egin ostean Zangotzara egingo du taldeak 17:00etan pasatzen da-eta Korrika bertatik. Itzulera Elgetara 18:30ean izango da. Autobusaren prezioa da: helduak 7 euro eta umeak 3 —bazkideendako helduak 3 euro eta umeak doan—. Izen-ematea martxoaren 30era arte da *elgetakogoibeko@gmail.com* helbidean.


L.Z.

## Zortzi intxaurrondo berri

Udaleko Ingurumen batzordeak antolatuta, Zuhaitz Eguna egin zuten, atzo, Elgetan. Eskolako neska-mutikoek zortzi intxaurrondo landatu zituzten Zabala Hermanos lantegi zaharraren eta saihesbidearen artean dagoen belardian. Prest aurkitu zituzten zuloak landaketak egiteko. Orain intxaurrondoen bilakaeraren jarraipena egiteko aukera izango dute.

### Bertso afaria eta FaltA taldea aste bukaeran Spaloian

Gaur, barikua, Amets Arzallusek, Igor Elortzak eta Unai Iturriagak Spaloia kafe antzokian egingo dute bertsotan. 21:30ean emango diote hasiera afariari.

Eta bihar, zapatua, musika izango da protagonista kafe antzokian. FaltA taldeko hirukoteak egingo du emanaldia, 19:30ean. Hazparneko taldea da eta musikalki post rockaren inguruan kokatzen dira. Hirukote moduan taularatzen dira: Manu Etxegarai da bateria-jotzailea, Beñadin Lohiague gitarra-jotzailea eta Seb Delaporte baxu-jotzailea. Sarrera doan izango da.

Hurrengo hilabeteetako programazioari dagokionean hainbat musikariren etorrera iragarri dute kafe antzokiko arduradunek. Horien artean daude Ibai Marin, The Riff Truckers, Sumission City Blues, Mikel Urdangarin, Izaro eta Lauroba taldea.

### Mendizale ugariren topalekua izango da Elgeta domekan

Euskal Mendizale Federazioak Elgetako Udalarekin elkarlanean antolatuta Euskal Herrikoiraupen luzeko ibilaldien zirkuitua egingo dute, etzi, herrian. Urtero moduan 25 kilometroko mendi ibilaldiarekin emango diote hasiera egunari, eta hainbat tontor egingo dituzte: Intxorta, Erdella, Egoarbitza, eta Azkonabitza. Lerrook idazterakoan 113 lagun zeuden izena emanda. Mendi ibilaldiaren amaieran, 14:00ak aldera, 2016ko finalisten diploma banaketa egingo dute. Bazkaria ere antolatu dute. Prezioa 26 euro da. Gaur, barikua, da bai ibilaldian bai bazkarian izena emateko azken eguna. Argibideak, udaletxean.

## OHARRAK

### Erretiratuen batzarra

Erretiratuen Xalbadorpe elkarteko kideek urteko batzar orokorra deitu dute barikurako, hilak 10, 17:30ean, Ozkarbi elkartean.

### Irteera gaztelekutik

Gaztelekuko neska-mutikoek Elgetako auzoak ezagutzeko irteera egingo dute domekan, 16:00etan.

### Frontenis txapelketa

Frontenis txapelketa ez antolatzea erabaki dute bultzatzaileek. Jakinarazi dutenez, ez du inork izenik eman horretarako ipinitako epemugan. Hala, oraingoz, txapelketa bertan behera uztea erabaki dute.




Sare feministakoez gain, Lagun Lekukoak ere izan ziren eguaztenean Foruen plazan egin zen elkarretaratzean. MAIDER ARREGI

# Asko dagoelako egiteko, feminismora batzeko deia

Emakumeen Nazioarteko Egunean elkarretaratzea egin zuten Foruen plazan sare feministak deituta eta Lagun Leku elkartekoek ere bat egin zuten; ekitaldiari amaiera emateko, biodantzako zapi koloretsuen dantza bat egin zuten dozena bat emakumek

**O.E. / A.T.** OÑATI

Martxoaren 8aren bueltan, hainbat ekitaldi egin dira egunotan. Jendetsuena Emakumeen Egunean Foruen plazan egin zen elkarretaratzea izan zen, sare feministak deitutakoa. Herritar ugari elkartu ziren bertan eta "borroka" egun bat dela ozen aldarrikatu zuten. *Asko dagoelako egiteko eta ari garelako, batu feminismora* lelodun pankarta erakutsi zuten feministek, emakumeen eguneroko borrokaren adierazle. "Feministak izan behar gara egunero, orduro eta minuturo. Eta hemendik feminismora batzeko dei egiten dugu, denon artean mantenduko eta lortuko ditugulako emakumeon eskubideak", azaldu zuen Andraitz talde feministako Lourdes Arregik. Izan ere, oraindik lan asko dago egiteko.

Eguazten arratsaldean egin zen elkarretaratze horretara batu ziren baita ere Lagun Leku elkartekoak. Eguerdian, euren kabuz beste elkarretaratze bat egin zuten Olakua auzoan, eta, egunean bertan egin zuten bazkarian 22 lagun elkartu ostean, Foruen plazan egin zen elkarretaratzean ere izan ziren euren pankartarekin. *Eraildako emakume gehiagorik ez!* zioen, eta hauxe adierazi zuen elkarteko kide Nieves Barrenak: "Berdintasunaren alde aldarrikatzeko ehunka kontu daude, baina guk erailketen gaia ekarri nahi izan dugu gogora gaurkoan".

Sorpresa bat ere izan zen elkarretaratzearen amaieran. Biodantza saio baten erakusketa txiki bat egin zuten dozena bat emakumek zapi koloretsuekin, eta ondoren, bertaratutako herritarrak dantzara animatu zituzten.

**MARTXOAREN 8A ALDARRIKAPEN EGUNA DELA GOGORA EKARRI ZUTEN SARE FEMINISTAKOEK**

**Bihar, bazkari feminista**

Antixeneko gaztetxean 14:30ean egingo da bazkari feminista bihar, zapatua. Txartelak salgai daude Arranon eta Onan, 6 eurotan langabeendako eta 12an lanean dabiltzanendako.

**Selma Huxley beka**

Oñatiko Udaleko Berdintasun Sailak lehendabizikoz emango du ikerketa beka eta hori Emakumeen Eguna ospatzeko antolatu diren gainerako ekitaldiekin batera sartu dute egitarauan. Selma Huxley izena darama eta aurkezpena martxoaren 29an egingo dute. Ekitaldia borobilduz, gerra eta emakumeen memoria historikoaz mahai ingurua egingo da Irantzu Mendia eta Amagoia Gurrutxagarekin.

Selma Huxley bekaren helburua da Oñatiko emakumeek historian zehar egindako ekarpenak (lanean, bizitza sozialean, ekonomian, politikan, kulturan...) aztertzea eta plazaratzea. 12.000 euroko diru laguntza da.



Lehenengo aldiz egingo da martxoan Berdintxiketan. MU

## Berdintasuna, 'Lekaixoka!' ere bai

Berritasunekin egingo da gaur, egubakoitza, zazpigarren Berdintxiketan lasterketa. Mezua, hori bai, betiko bera izango da: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

Batetik, bi lasterketa egingo dituzte gaur: umeena eta nagusiena. "Umeena 17:00etan hasiko da Foruen plazan eta udaletxeari emango diote buelta. Nagusienean 16 urtetik gorakoek hartuko dute parte. 18:30ean hasiko da Enpresagintza Fakultate parean eta bost kilometroko ibilaldia egingo dute herri barruan. Foruen plazan bukatuko da. Musika egongo da lasterketa girotzeko eta bukaeran sariak banatuko ditugu. Umeen zein nagusien lasterketetan helburua da jendeak bikoteka parte hartzea; neska-mutiko bikoteak badira, hobeto. Helburua da berdintasunaren mezua zabaltzea", adierazi du Mireia Igartzabalek, lasterketa antolatzen ibili den Enpresagintza Fakultateko ordezkariak.

Bestetik, Kilometroak 2017ko lantalde baten laguntza ere izan dute ekitaldia antolatzeko eta *Lekaixoka!* egingo dute korrika parte-hartzaileek. *"Lekaixoka!*-ren irudia egongo da Foruen plazan eta sari banaketan ere hartuko dugu parte. Banatuko diren sarietako batzuk Kilometroak 2017ko produktuak izango dira", adierazi du Txantxiku ikastolako Edurne Retegik.



Nerea Zubia, Europako Parlamentuan egindako topaketan. N.Z.

## Bruselako jardunaldi feministetan

Europako Parlamentuan alderdi ezkertiarrak biltzen dituen GUE/NGL taldeak jardunaldi feministak antolatu ditu aste honetan Bruselan eta han parte hartu dute EH Bilduko talde batek eta Euskal Herriko mugimendu feministako kide batzuek. "Abortua, prostituzioa, errefuxiatuak, gatazka armatuan eta bake prozesuan emakumeak jokatu duen papera eta beste gai asko jorratu ditugu. Esperientzia aberasgarria izan da oso", esan du Nerea Zubiak.

# "Bigarren inplantera ere ondo ari naiz moldatzen"

**MIKEL KORKOSTEGI** SENDATUTAKO GORRA

Donostiako ospitalean belarrian inplante bat jarri zioten EAEko lehendabiziko herritarra izan zen Korkostegi duela 25 urte. Urtarrilean beste belarrian egin zioten inplantea

**Oihana Elortza** OÑATI

Medikuek egin zioten bigarren belarrian ere inplantea jartzeko eskaintza. Asko pentsatu ondoren eman zien baiezkoa, duela 25 urteko ebakuntza ahaztu barik.

**Nola moldatzen zara? Ohitu zara bigarren aparatura ere?**

Horretan ari naiz, bai. Duela 25 urte jarri zidatena oraindik ondo dabil, martxan. Horri esker hitz egin dezaket telefonoz, adibidez. Bigarrenarekin askoz hobeto entzungo dut, baina entzuten ikasten ari naiz oraindik.

**Logopedek laguntzen dizute prozesu horretan?**

Bai. Eskumako alde hori lo egon da urte askotan eta orain esnatzen ari da poliki-poliki. Hasieratik ozen entzungo banu, zoratu egingo nintzateke, mina sortuko lidake bolumen horrek. Eta ari naiz gutxitik askora entzuten. Orain arteko azterketetan ikusi dugu ondo doala dena, eta pozik nago.

**Nolakoa izan zen ebakuntza?**

Lehenengotik oso ezberdina. Duela 25 urtekoak bost ordu pasa iraun zuen eta hamar egun egon nintzen ospitalean. Oraingoak ordu eta erdi inguru iraun du eta hurrengo egunean etorri nintzen etxera. Ondorengo egunak ere askoz lasaiagoak izan dira. Ez dut minik izan. Asko aurreratu du kirurgiak eta teknologiak.

**Ebakuntza oso mediatikoa izan zen lehendabizikoa. Kamerekin grabatu zuten.**

Orduan, ni bezalako euskal herritarrak ez ezik, Kantabriakoak eta Errioxakoak ere, esaterako, Donostiako ospitalera joaten ziren. Ni izan nintzen inplantea jarri zioten lehendabizikoa, eta ikusmin handia sortu zuen, bai. Elkarrizketa asko egin zizkidaten. Gogoan dut ni operatu ninduen medikuarendako ere gisa horretako lehen ebakuntza zela, eta Alemaniako beste mediku bat etorri zen laguntzera.



Mikel Korkostegi oñatiarra San Lorentzo auzoan. O.E.

**"ENTZUTEN DA BELARRIETAN URA BAZENU BEZALA, ETA LOGOPEDEN LAGUNTZA DUT"**

**Orduan ere logopeden laguntza izango zenuen, ezta?**

Bai. Operatu eta hilabetera hasi ginen aparatua programatzen. Inplantearekin entzuten diren tonuak ez dira arazorik ez dutenek entzuten dituzten modukoak. Entzuten da belarri barruan ura izango bazenu bezala. Sei hilabetez egunero joan nintzen ospitaleko logopedarengana, sei orduz. Negar ere egin nuen batzuetan, ez nuelako nik gura nuen moduan ulertzen, baina ulertu gura nuen, eta jarraitzea erabaki nuen. Egia da nik badakidala zer den ondo entzutea; hau da, nik entzuten nuen txikitan, gero galdu nuen entzumena. Eta hori alde izan dut.

**Noiztik izan duzu entzumen arazoa?**

Txikitan, lauzpabost urte nituela, ia erabat galdu nuen entzumena gaixotasun baten ondorioz. Hamabi urte nituenerako, hobeto entzuteko aparatu bat jarri zidaten belarrian. Gehiago ere izan ditut, baina heldu zen momentu bat ikusten nuena ez nuela hobeto entzungo. Horregatik erabaki nuen operatzea.

**Bigarren ebakuntza egiteko asko pentsatu zenuen?**

Etxekoek nire gain utzi zuten erabakia, neuk pentsatzeko. Ekainean jaso nuen medikuen proposamena eta irailean baietz esan nien. Egia esan, inork ez zekien lehendabiziko aparatuak ze iraupen izango zuen. Oraindik funtzionatzen du, baina ez genuen uste horrenbeste iraungo zuenik, eta zenbat denbora gelditzen zaion ere ez dakigu. Hala, urtarrilaren 12an operatu ninduten. Buruko -minak, nerbioak, zalantzak... izan ditut, baina askoz handiagoa da ebakuntzek emandakoa.

**Horrelako zenbat ebakuntza egiten dituzte urtean ospitale horretan?**

370 operazio inguru egin dituzte; duela 25 urte, 35 bat urtean. Ni operatu ninduten egunean Zumarragako mutil bat ere operatu zuten. Normalean, umeak operatzen dituzte. Donostiako ospitalean belarri bietan inplanteak jarri dizkioten EAEko lehenengoa naiz.



NIRE USTEZ

**MAITE IRIZAR**

## Izenaren izana

Sailkapenak ezinbesteko diren gizarte honetan dagozkigun etiketak bilatzea funtsezkoa da. Jaio eta berehala, bi hemisferiotan banatzen gaitu munduak: mutila edo neska. Bi sexuen arteko marra garbi marraztea gustuko dugu mendebaldeko kulturetan. Euskaltzaindiak ere pertsona izenak sexu bakarrari lotzen dizkio. Izena omen duen guztia etiketatu eta dagozkion ezaugarriak erreproduzitzen hasten gara. Zuzentasunaren logikak onartzen ez duena azkar zuzentzen digute. Markatutako estereotipoarekin identifikatu ez eta sufritzen hasten gara. Orduan beste etiketarako bidea hasi beharra izaten da.

Horregatik, definizio berriak egiteari ekin behar diogu. Sailkatzea beharrezkoa delako eta izena ez duenak urduri jartzen gaituelako.

Sailkapenak ezinbesteko zaizkigun gizarte honetan, aukeratzea iraultza da. Horregatik maite ditut hainbeste ausartak diren emakumeak, negar egiten duten gizonak, indartsu izateaz lotsatzen ez diren neskak eta goxotasuna ezkutatzen ez duten mutilak. Maite ditut neska edo mutil diren ez dakitenak, eta, nola ez, izateko izenik behar ez duten guztiak.

## Zumarrak landatuko dituzte domeka goizean Iturrigorrin

Natur Eskolako zuhaitz landaketa egunak eta Aloñako Lagunak elkarteak urtero egiten duenak bat egin dute aurten, joan den domekako hitzordua eguraldiagatik bertan behera gelditu zelako. Hori horrela, domekan egingo dute zuhaitz landaketa.

Natur Eskolako Idoia Bollarrek azaldu duen moduan, zumarrak landatuko dituzte aurten, landare gehienak, Iturrigorrin landatu ere: *"W zuria* izeneko tximeleta mota zumarrean elikatzen da eta hori da arrazoia zuhaitz hori aukeratu izana landaketarako". 80 bat landare dituzte; gehienak Iturrigorriko lurretan sartuko dituzte eta bakan batzuk, Unaimendin.

Foruen plazan elkartuko dira, 10:00etan, eta, azalpen batzuk entzun ondoren, Iturrigorrira abiatuko dira.

## Pako tabernan lehiatuko da etzi Txinparta 2 taldea

Gipuzkoako herriarteko bertsolari txapelketan, lehen faseko bigarren eta azken saioa egingo du Txinparta 2 taldeak domekan. Herriko taberna batean egingo du saioa, Pako tabernan, hain zuzen ere, 18:00etan. Maider Arregi, Urko Arregi eta Gontzal Belategi izango dira bertsotan. Talde aurkaria Asteasu-Zizurkilgo Karidadeko Benta taldea izango da.

Txinparta 1 taldeak bihar, zapatua, du saioa Zumarraga-Urretxuko Amalur elkartean hango Photoshop taldearen kontra. Joseba Lasagabasterrek, Urko Egañak eta Andoni Goitiak osatuko dute Oñatiko talde hori.

## Uztaileko udaleku irekietarako izen ematea zabalik dago

Uztailaren 3tik 28ra bitartean izango dira aurtengo udaleku irekiak, goizez, eta bertan parte hartzeko izen ematea zabalik dago; martxoaren 24ra arte egongo da epea zabalik.

Uraren eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak, kanpaldia eta gehiago egingo dituzte aurten ere umeek. 4 eta 12 urte bitarteko umeak hartuko dituzte eta aurten ere gaztelekua izango da topalekua. Zaintza zerbitzua ere egongo da. Matrikularen prezioa da: lehenengo haurra 70 euro, bigarrena 60 euro, hirugarrena 50 euro eta laugarrena doan. Zaintza 50 euro izango da.

Aurten ere Txatxilipurdi izango da antolatzailea.

# Shotokan txapelketa izango da bihar

Aloña Mendiren karate sailak urtero shotokan txapelketa antolatzen du eta aurtengoa bihar izango da Zubikoa kiroldegian arratsaldeko lauretan. Ehun gaztetxo inguruk parte hartuko dute lehia horretan, kata modalitatean, hain zuzen

**Ane Vitoria** OÑATI

Kata modalitateko txapelketa horretan, hainbat kategoriatako gazteek parte hartuko dute: aurre-benjaminek, benjaminek, alebinek eta infantilek. Karate mota hori ariketa zehatz batzuen jarraipenean datza. Horietako bakoitzak izen zehatz bat dauka eta jasotako kolpeen nondik norakoen arabera babes mota ezberdinak lantzen dira. Euskadiko Karate Txapelketa eta entrenamenduak direla eta, zaila izaten da Shotokan txapelketa gehiagotan egitea; horregatik, urtean behin antolatzen da



Karate saileko ordezkariak. MIREIA BIKUÑA

**Aloña Karate taldea**

Oñatiko kata saila 7 eta 13 urte bitarteko gaztez osatuta dago eta guztira 70 ikasle dira. Aloñaren karateko zuzendaritza batzordekide Izaskun Plazaolaren esanetan: "Zuzendaritza lanetan bost gaude soilik, eta, beraz, denon artean, zuzendari zein ikasle, 80 pertsonako taldea sortu dugu. Familia handi bat gara, nagusienek txikiak zaintzen dituzte, txapelketetan epaileak ere izaten dira eta askotan *coach* lanetan ere badihardute. Denon elkarlanari esker aurrera egitea lortu dugu".

**NAGUSIENEK TXIKIAK ZAINTZEN DITUZTE ETA 'COACH' LANETAN ERE BADIHARDUTE**

## "Oso grinatsua izan naiz gerriko beltza lortu ahal izateko"

**IMANOL ASTUDILLO** KARATE IKASLE ETA IRAKASLE LAGUNTZAILEA

Karate ikasle horrek gerriko beltza lortu du jada, eta orain, ikasten jarraitzeaz gain, irakasle laguntzailea ere bada.

**Noiz hasi zinen kirol hau praktikan jartzen?**
Orain dela urte dezente hasi nintzen karatea egiten. Lau lagunekin batera eman nuen izena, eta nahiz eta garai hartan gazte askok kirol honetara jotzen zuen, gu izan gara denborak aurrera egin ahala karatean jarraitu dugunak. Orain, gainera, ikasten jarraitzeaz gain, irakasle laguntzailea ere banaiz.



MIREIA BIKUÑA

**Gerriko kolore aldaketa lortzea asko kostatzen da?**
Egia esan, bai. Gainera, ni oso grinatsua izan naiz gerriko beltza lortzeko. Kolore guztietatik pasatzea kosta egiten da eta puntu honetara heltzeko lan asko egin behar da.

**Zeintzuk dira kirol honen zailtasun handienak?**
Jendea ez dago ohituta kirol mota honetara eta besteekiko erabat ezberdina da. Alderdi asko landu behar dira karatean. Gainera, ez da momentuan ikasten. Horrez gain, teknikoki eta psikologikoki asko ematen duen kirola da. Baina, era berean, lan asko dauka atzetik.

**Gerriko beltzaren barruan maila ezberdinak daude?**
Bai, eta bide oso luzea da maila ezberdin horiek gainditzea. Kirol honek exijentzia maila oso altua eskatzen du, eta, honez gain, denbora tarte bat igarotzera behartuta zaude maila batetik bestera salto egiteko. Merituhandiko kirola da Karatea.



Muñoz Izarraitz Aloña eskubaloi taldea garaipena ospatzen. GOIENA

# Liga txapelketa irabaztea da Muñoz Izarraitz Aloñaren xedea

Joan den asteburuan, eskubaloi taldeak Gipuzkoako Lehengo Mailan jokatzeko txartela lortu zuen

**Ane Vitoria** OÑATI

Oñatiko eskubaloi taldeak Ordiziaren kontra 17-29 irabazi zuen joan den asteburuan. Eta, horri esker, liga amaitzeko bi partiduren faltan, Gipuzkoako Lehenengo Mailan jokatzeko txartela lortu dute. Izan ere, Gipuzkoako Lurraldeko Bigarren Mailako kategorian aritu dira denboraldi honetan. Behin igoera lortuta, hurrengo jomuga euren kategoriako liga txapelketa irabaztea da.

**Esfortzuaren emaitza**

Orain arte eginiko lanak emaitza oso onak izan dituela aitortu du Muñoz Izarraitz Aloña eskubaloi taldeko Aitor Biainek: "Bi partidu falta dira liga amaitzeko, eta, egia esan, orain arte oso ondo jokatu dugu. Izan ere, urte osoan partidu bakarra galdu dugu". Hala ere, denboraldiaren hasiera ez zela batere samurra izan aitortu zuen eskubaloi jokalariak: "Egia esan, esfortzu handia egin behar izan genuen liga hasieran. Baina denboraldi honetan asko hobetu dugu eta poliki-poliki talde polita sortzea lortu da". Ligan garaile izateko bat edo bi puntu besterik ez dute behar izango, eta, beraz, oso gertu daudela uste dute. Baina, Biainen arabera, euren hasierako helburua erabat ezberdina zen: "Gure hasierako helburua ez zen liga irabaztea, baizik eta partiduez disfrutatzea. Gutxika, ordea, lehenengo postuetara gerturatu gara partiduetan lortutako emaitza onei esker, eta, horregatik, ligako irabazle bilakatzeko xede hori geroz eta gertuago sentitu dugu". Hurrengo partidua Oñatiko Zubikoan jokatuko dute Munttarpe taldearen kontra, eta horretan lortu dezakete ligan garaipena.

## Jaialdi berezia izango da datorren astean Zubikoa pilotalekuan

Datorren ostiralean, martxoren 17an, pilota partidua izango da Zubikoa pilotalekuan (22:00). Aloña Mendiren pilota sailaren 50. urteurrenaren ospakizunaren harira, hainbat ekintza antolati dituzte eta horietako bat da datorren barikuan izango den pilota partidua. Partidu horretan, promozio txapelketako finalerdiak izango dira. Baita Altuna-Barriola eta Ezkurdia-Merino pilotarien arteko lehia ikusteko aukera ere. Horretan, Altunak lehenengoz jokatuko du Oñatin eta Barriola azkenekoz ikusteko aukera izango da. Sarrerak Aloñamendi, Izarraitz eta Arrrano tabernetan zein Txokolategian izango dira salgai. Erreserbak egin nahi dituenak telefonoz egin nahi dituenak telefono zenbaki honetara deitu dezake: 607 44 89 51.



Miren Gojenola eta Itziar Ituño, *Koadernoa zuri* antzezlanean. KULTURKLIK

# 'Koadernoa zuri' antzezlana Santa Anan

Hika Teatroa taldearen eskutik dator 'Koadernoa zuri' antzezlana. Obraren protagonistak bi emakume dira, euren amak utzi duen arrastoari aurre egingo diotenak. Antzezlana Santa Ana antzokian izango da martxoaren 12an

**Ane Vitoria** OÑATI
Korrikako egitarauaren barruan dagoen antzezlana da *Koadernoa zuri*. Izan ere, biek gauza bat dute komunean: hizkuntza, hain zuzen. Korrikako antolatzaileetako bat den Josu Zubiaren esanetan: "Ez du lotura zuzenik, baina biek, bai Korrika, bai antzezlana ere, menpeko ikuspegi baten ingurukoak dira. Eta Korrikarekin bat datorren antzezlan egokia izan zitekeela ikusi dugu; bada, horregatik sartzen da Korrikako egitarauaren barruan".

### Antzezlanaren barrenak

Agurtzane Intxaurraga da antzezlan horren zuzendaria. Eta istorioaren protagonista antzezten duten aktoreak hiru dira: Itziar Ituño, Nagore Aranburu eta Miren Gojenola. *Koadernoa zuri* obrak lotura du Lorcaren *Bernarda Alba* obrarekin. Horretan ere, bi emakume eta euren amarekiko duten lotura edota menpekotasuna dira ardatza. Hala ere, Intxaurragak emakume horien izenean istorio propioa eraiki nahi izan du. Betiere, modurik berritzaileenean eta gaurkotuenean eraikita dagoena. Arrate eta Begoña dira obra horren protagonistak, eta, biek ere, amak eurengan utzitako arrastoei aurre egingo diete. Bakoitzaren jokaera, aldiz, ezberdina izango da.

### Emozioa, poetika eta umorea

Hiru ildo nagusitzen dira lan honetan: lehenik, konfliktoa eta emozioa; protagonistak ausartak edota koldarrak dira, borrokaren bidea hartzen dutenak, eta, era berean, obedientziaren aldekoak. Aurrez aurre dauden bi ahizparen arteko erlazioa azaltzen du. Bigarren ildoa poetika da; poetikaren bitartez gai unibertsalei garrantzia ematen zaie obra honetan, hala nola familiaren pisua, bakardadea, maitasun nahia, askatasuna, eta abar. Azken ildoa umorea da; ikuskizunak, tarteka, tragikomedia lantzen du. Izan ere, pertsonaien barnea hausten den bitartean, egoera barregarriak aurkitu daitezke. Ikuskizuna martxoaren 12an, domeka, izango da, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Santa Ana antzokian, eta sarrerak 10 euro balio du.

Debagoieneko
**GREMIOAK**

**AROZTEGIAK**

**AZKARATE AROZTEGIA**
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*blogak.goiena.net/azkarate*

**HONDEAKETAK**

**EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
*e.arrasate@gmail.com*

**ITURGINTZA**

**EGIA ITURGINTZA**
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

**LEIHOAK**

**ARGI-PLASTIK**
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

**LOREZAINTZA**

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.




Iazko lasterketan, emakumezkoen irteera unea; aurten ere gizonezkoak baino 10 minutu lehenago irtengo dira. EKAITZ FILARMENDI

# Domeka goiza, meza, orlixa eta... duatloia

**DUATLOIA** Urtetan lasterketa zapatu arratsaldean antolatzen ibili eta gero, oraingoan domeka goizean izango da hitzordua (10:30); Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketa egongo da jokoan, distantzia motzean, eta 190 atletak eman dute izena

**Xabier Urzelai** OÑATI

Hirurogei taldetako 192 atleta izango dira domekan Oñatiko duatloiko irteera puntuan: "Pozik gaude atleta kopuruarekin, egia da azken urteotan beherakada egon dela lasterkari kopuruan, besteak beste, konpetentzia izugarria dagoelako. Galizian Espainiako Txapelketa jokatuko dute, taldeka, Iruñean beste duatloi bat egongo da, Izaban neguko triatloia jokatuko dute... Dena dela, 100 lagun etorri, 200 edo 300, lasterketa txukuna antolatu gura dugu".

**Hainbat faborito**

Emakumezkoen kategorian 15 lagunek eman dute izena: "Eta hor aurrean ibiliko dira, besteak beste, Helene Alberdi edo Lurdes Oiartzabal moduko atletak". Eta gizonezkoetan faboritoen artean dago joan den astean Basaurin irabazi zuen Hossain Kaanache: "Baina Tolosalde taldeko Aitor Egillaga ere irteera puntuan izango da, eta, bailarara etorrita, Beñat Arnaiz, gure kartel-burua dena, lasterketan izango da; Lanzaroteko ironmana du buruan, baina saltsan ibiliko da".

## "Guk parte hartu gurako genukeen lasterketa antolatzen saiatzen gara"

**IBAN PEREZ** OÑATIKO TRIATLOI TALDEKO KIDEA

Gipuzkoako Triatloi Federazioko presidente izatearekin batera, Iban Perez Oñatiko duatloiko antolaketa taldeko kidea da. Etzi lasterketako puntu erabakigarrietako bat izango den tokian egin du GOIENAk hitzordua Oñatikoarekin, Lamiategiko maldan.

**Azken urteotan aldapa hau lasterketaren ezaugarri bilakatu da.**

Hala da, bai. Aurten hirugarren aldiz pasako da lasterketa malda honetatik –birritan– eta oraingoan ere lasterketako puntu beroetako bat izango da. Azken edizioetan ikusi dugu malda gogor hau ez dela erabakigarria izan, ondoren korrikako sektorea datorrelako, baina ikusgarritasuna ematen dio lasterketari, eta zaleak batuko dira bertan.



X.U.

**Lasterketa eguna zapatutik domekara aldatu behar izan duzue, baina domeka eguerdian giro paregabea egongo da Oñatin.**

Baietz uste dugu. Oñatiko lasterketaren ezaugarrietako bat da zale asko egoten dela proba jarraitzen, eta domeka goizean giroa egoten da Oñatin. Aldaketa ez dugu gurata egin, Trafiko Departamentuak baldintzatutakoa izan da, eta horretara moldatu behar izan dugu. Baina bai, ez Oñatin bakarrik, bizikletako sektorean, Etxeaundi inguruan hasi eta Torreauzorantz jende asko ibiltzen da domeketan paseatzen, hor ere giro polita izango da.

**Ze eragin izango du horrek zuengan?**

Zapatuan egiten genuenean goizetik hasten ginen lanean, eta iluntzean amaitu. Boxak antolatu, zirkuitua... Lan handia da. Oraingoan, lan batzuk zapatu arratsaldetik aurreratu beharko ditugu, baina domekan bazkalordurako amaituta izan gura dugu dena. Alde horretatik, domekan laguntzen ibiliko diren lagun guztiei eskerrak eman gura dizkiet, eurak gabe ezinezkoa delako halako lasterketa bat antolatzea.

**Distantzia motzeko duatloia izango da.**

Bai, pena da, baina martxa honetan Oñatikoa izango da distantzia hori izango duen lasterketa bakarra, besteek esprint distantziaren alde egin dute eta. Guk edizio batean ere esprint distantziakoa antolatu genuen, gaur egun errepidean zirkulazioa eteteko zailtasun handiak egoten direlako, eta orain distantzia motzera bueltatuko gara ostera ere, historikoki distantzia hori izan du-eta Oñatiko lasterketak (10 kilometro korrika, 36 bizikletan, eta 5 kilometro korrika).

## PILOTA Rezustak Eibarren hasiko ditu finalerdiak

Asteburuan hasiko dute Eskuz Binakako finalerdien ligaxka –hiru jardunaldi izango dira guztira–, eta Irribarriak eta Rezusta bergarararrak Eibarren izango dute lehenengo hitzordua, domeka arratsaldean (17:00). Hala, lehenengo partidurako enpresa bereko ordezkariak izango dituzte aurrean, Elezkano II.a eta Zabaleta.

**Hainbat faborito**

Lehenengo fasean ezker jotzaileek erakutsi dute gainontzekoak baino koska bat gorago egon direla, baina finalerdietan hutsetik hasiko dira denak, eta ez dute larregiko konfiantzarik gura. Jakinda, esaterako, Aimar Olaizola geroago eta sasoi puntu hobean dagoela. Finalerdietan hiru jardunaldi jokatuko dituzte, eta Iruñeko Labrit izango da aparteko protagonismoa izango duen pilotalekua. Ibarrean ez dute partidurik jokatuko.

## ARETO FUTBOLA Ondo eusten dio lidergoari Aretxabaleta UDAk

Elorrietakoren kontra 2-1 irabazi ostean Aretxabaleta UDA taldeak tinko eusten dio lehenengo postuari, eta bost puntuko aldea du bigarren sailkatuarekiko. Bihar, (17:00), Gasteizen jokatuko dute Batzarreren kontra. Etxean jokatuko duena sailkapenaren erdian dagoen Eskoriatza da, Mirandaren kontra, bihar (17:50)

## ERRUGBIA Igoera faseko bigarrena Txingudiren kontra

Igoera fasea oso ondo hasi duten Zaisa Txingudi eta Kanpanzar ART taldeek neurtuko dituzte indarrak asteburuan (zapatua, 16:00, Irun). Joan den astean arrasatearrek jipoi galanta eman zieten Elorriokoei (77-7), eta Txingudikoek Uribealdea hartu zuten mendean. Hala, asteburuan erabakiko da nork hartuko duen fase berrian lidergoa.

## ESKUBALOIA Aloña Mendiko neskek etxean dute hitzortua

Laugarren postuan dagoen Jarrilleras taldearen kontra jokatuko dute Euskadiko Txapelketan lehian dabiltzan Aloña Mendikoek (Zapatua, 19:00, Zubikoa). Liga amaitzeko bost jardunaldi geratzen zaizkie, baina joan den asteko garaipenarekin –28-35 Zuazoren kontra– erakutsi dute ez dutela amorerik emateko asmorik.

# "Atxabalpen egiten den lanean dago sekretua"

**ANDONI AZKARGORTA** EIBARKO TEKNIKARI TALDEKO KIDEA

**FUTBOLA** Antzuolakoak hirugarren urtea du Eibarren, eta gustura dabil: "Zortea izan dut Garitanorekin lehen, eta Mendilibarrekin orain, plazera da eurekin jardutea"

**M. Bikuña / X. Urzelai** ARRASATE

Azken urteotan moduan, kategoriari eusteko helburuarekin hasi zuen abuztuan liga Eibarrek, eta, 26 jardunaldi geroago, Europako postuengatik borrokan dabil talde armagina. *Errudun* asko daude atzean, eta Andoni Azkargorta (Antzuola, 1978) da horietako bat.

**Taldeak kanpora begira ematen duen sentsazio ona duzue barruan?**

Bai. Azken bi urteotan, bigarren itzulian joko mailan beherakada izan dugu, eta lehenengo itzulian garbi genuen, jasotzen genituen sentsazioengatik, aurten egoera bestelakoa izan behar zela.

**Eta, non dago sekretua? Ze, futbolean kasualitate gutxi egoten da.**

Batetik, talde oso orekatua dugula, eta jokalarien euren maila ere oso ona dela. Eta bestetik, Atxabalpen egiten dugun lanean dago sekretua, ez dago besterik.

**Eibar talde errespetatua da aurten.**

Hala da, bai. Aurreko urteetan Eibarren gainean berba egiten zutenean, gehiago zen esateko taldeak 27.000 biztanle dituen herri bat ordezkatzen duela, eta merituzkoa zela hor egotea. Hori, jada, atzean utzi dugu, eta jendearen ahotan taldearen emaitzak daude orain.

**Eguneroko lanerako lasaitasun handia izaten duzue Atxabalpen.**

Hori dugu gure alde. Talde handien kontra jokatzen dugunean zarata mediatiko handiagoa egoten da, baina, normalean, lasai egoten gara, telebista kamera gutxi izaten da aste barruan gurean. Emaitza txarrak ditugunean, hori mesedegarria da, baina baita onak ditugunean ere, horiek ere normaltasunez barneratzeko.

**Klub txikia izatearen abantaila...**

Bai, eta jokalariek asko eskertzen dute lasaitasun hori. Ni ez naiz beste futbol talde batzuetan egon, baina jokalariek garbi esaten dute gurea familia txiki bat dela, eta asko eskertzen dutela hori. Entrenatzaile taldea, marketin edo prentsakoak, bulegoetakoak... Lantalde txikia gara, egunerokoan elkarrekin bazkaltzen dugu denok, eta giro ona dugu taldean.



Azkargorta, Atxabalpen. M.BIKUÑA

### "MENDILIBAR ZORROTZA DA LANEAN, BAINA OSO TIPO GERTUKOA DA, NORMALA"

**Ekainean hauteskundeak izango dituzue Eibarren.**

Bai, lehenengoz egingo dituzte, gainera. Normala da, eta sistema demokratikoa da klubaren agintea nork hartu behar duen erabakitzeko. Guk, teknikari taldeak, ekain amaierara arte dugu kontratua, eta lasai gaude.

**Hiru urte jada Ligako taldeak aztertzen. Badago, oraindik, harritzen zaituen ezer?**

Esango nuke ia asteburuero ikasten dudala zerbait. Jose Luisek [Mendilibar] berak harrituta utzi izan nau futbola ulertzeko duen moduagatik; gure taldeak presionatzeko duen moduagatik, esaterako. Edo Realak, estilo oso definitua bilatu duelako, edo baita Athleticeko entrenatzaile Valverdek ere, partidu bakarrean joko estilo ezberdinak praktikan jartzeko duen gaitasunagatik.

**Bartzelona, Madrila, Simeone bera... Talde handiak ez dituzu aipatu.**

Simeoneren meritua dago, dituen izarrak izanda ere, jokalariak lanerako konbentzitzen dituela. Beste bi taldeak... dituzten jokalariak onenak dira, indartsuenak, azkarrenak... Horrenbestez, egiten dutenak ez nau horrenbeste harritzen.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

OHOREZKO ERREG.

**Mutriku-Mondra**
Zapatua. 16:30. San Mig.
**Vasconia-Aretxabaleta**
Zapatua. 17:30. Donostia.
**Aloña M.-Beti Gazte**
Domeka. 16:30. Azkoaga.

ERREGIONAL PREFERE.

**Lagun Onak-Mondra**
Zapatua. 16:00. Azpeitia.
**Soraluze-Aretxabaleta**
Zapatua. 16:00. Ezozia.
**Intxurre-Bergara**
Zapatua. 15:30. Alegia.

ERREGIONALA, IGOERA

**Antzuola-Billabona**
Zapatua. 16:30. Estala.

EMAKUMEZKO. IGOERA

**Touring-Arizmendi**
Zapatua. 17:00. Errenter.

EMAKUMEZKOAK,KOPA

**Mondra.**
(atsedena)
**Bergara-Eibar**
Domekan. 18:30. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

EUSKADIKO TXAP.

**Batzarre-Aretxabaleta**
Zapatua. 17:00. Gasteiz.
**Eskoriatza-Tudanca**
Zapatua. 17:50. M.Muñoz

GIPUZKOAKO TXAP.

**Mondrate-Egarri Tab.**
Zapatua. 18:00. Musako.

SENIOR EMAKUMEZK.

**Eskoriatza-Atletico SS**
Zapatua. 20:00. Manuel.

**SASKIBALOIA**

EBA

**MU-Cantabria Estela**
Zapatua. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO BIG. MAILA

**Tabirako-Natra Oñati**
Zapatua. 16:00. Durango.

EUSKADIKO GAZTE M.

**Tabirako-MU A**
Domeka. 10:00. Durango.

EUSKADIKO KADETE N.

**MU A-La Salle**
Domeka. 18:00. Iturripe.

GIP. SENIOR MAILA

**Alde Zaharra-MU**
Zapatua. 20:00. Donostia.

GIP. BIGARREN MAILA

**Soraluce BKE-STL Azk.**
Gaur. 20:30. Labegaraieta

SENIOR EMAKUMEZKO.

**Eskoriatza-Atletico**
Zapatua. 20:00. Donostia.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAP.

**Txikipolit-Ford Mugar.**
Zapatua. 19:15. Zarautz.
**Escolapios-Izarraitz M.**
Zapatua. 20:00. Bilbo.

EUSKADIKO EMAKUME.

**Aloña Mendi-Jarriller.**
Zapatua. 19:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO SENIOR.

**Soraluce BKE-Ereintza**
Zapatua. 16:45. Labega.

GIP. BIG. SENIOR M.

**Arrasate-Saieko**
Domeka. 11:30. Iturripe.
**Muñoz Iza.-Munttarpe**
Domeka. 10:00. Zubikoa.

**ERRUGBIA**

EUSKADIKO TXAPELKET.

**Txingudi-Kanpan. ART**
Zapatua. 16:00. Irun.

**PILOTA**

**Oñatin, gaur, 18:45:** Eskuz binakako hiru partidu, gazte mailan.

**Bergaran, gaur, 19:30:** Eskuz bina nagusiak, eta paleta gomazko partidu bat..

**DUATLOIA**

OÑATIKO LASTERKETA

**Domekan, 10:30:** emakumezkoak; **10:40:** gizonezkoak.

# Ostera ere lider izateko aukera paregabea du Antzuolak bihar

**FUTBOLA** Igoera fasea jokatzen dabiltza antzuolarrak; Billabonari lehen postua kendu gura diote bihar, etxean

**Xabier Urzelai** BERGARA

Lehen erregional mailako igoera fasean lehenengoa eta bigarrena izango dira zein baino zein gehiago bihar Estalan (16:30, Goiena telebista). Joan den astean Eibartarraki 5-0 irabazita, moralez beteta daude Antzuolakoak –Billabonan 2-0 galdu zuten–.

**Aloña Mendik, etxean**

Ohorezko erregional mailan Aloña Mendi da etxean jokatuko duen bakarra, eta oñatiarrendako liga amaiera honetako finaletako bat izango da, gainera. Urzelairen mutilek 13. postuan dagoen Beti Gazte izango dute aurrean (domeka, 16:30).

Erregional preferentean, joan den astean jaso zuen Bergarak ligako lehen porrota etxean. Hala ere, lider jarraitzen dute sei puntuko aldearekin, eta bihar Alegian zaleen babesa izango dute, klubak autobusa antolatu du eta. Emakumezkoen igoera fasean, azkenik, Arizmendik lehen garaipenaren bila egingo du bidaia Errenteriara (zapatua, 17:00).



Antzuolakoak gola ospatzen. GOIENA



*Emakumeen etxea* erakusketan parte hartuko duten sortzaileak. BERGARAKO MARTXANTERAK

# Emakume sortzaileen lanak Aroztegi aretoan

Margoak, argazkiak, bideo instalazioak, eskulturak... horiek eta gehiago batu dituzte Martxanterak talde feministak Aroztegi aretoan gaur, egubakoitza, zabalduko duen 'Emakumeen etxea' erakusketan. 19:00etan egingo dute inaugurazio ekitaldia

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA

Emakumeen sormen lanak eta, orokorrean, emakumeek egiten dituzten lanak bistaratzea du *Emakumeen etxea* erakusketak helburu. Martxanterak talde feministak antolatu du Beart margo taldeko emakume kideen eta Udalaren laguntzarekin. Aroztegi aretoan zabalduko dute gaur, egubakoitza, eta apirilaren 2ra bitartean izango da ikusgai. Inaugurazio ekitaldia 19:00etan izango da, eta luntxa eta bestelako sorpresak iragarri dituzte.

**Etxebizitza bat irudikatuta**

Adin eta profil ezberdinetako 30 sortzaileren lanak batu dituzte. "Bi izan ezik, gainontzekoak bergararrak edo Bergaran jaiotakoak gara. Eskaintza zabala da oso; margolan asko daude, baina badira argazkiak, bideo instalazioak, collageak, zeramika, eskulturak, marrazkiak... Anitza da, era berean, erabilitako teknika, material eta koloreei begiratuta. Horiei guztiei lotura eman nahian, etxebizitza bilakatu dugu aretoa. Hortxe daude: sukaldea, logela, egongela, komuna eta lorategi txiki bat, eta banaketa horrek markatu du artelanen kokapena", azaldu dute Martxanterek.

**Elkarlanaren emaitza**

Emaitzarekin gustura daudela diote: "Arteari eta, orokorrean, bizitzari buruz ikuspegi oso ezberdina dugun emakumeak garen arren, oso erraza izan da guztia antolatzea. Jarrera oso ona izan da guztion partetik, eta ideia asko partekatu ditugu".

## Erakusketako artistak

- Aintzane Conde
- Amaia Santamaria
- Ana Abajo Lazkano
- Ana Orgaz
- Angelita Agirrebeña
- Arantzazu Arregi
- Edurne Eraña
- Idoia Etxarri
- Itziar Murgizu
- Jone Albeniz Pedrejon
- Jone Bengoa
- Julia Pajares Gil
- Justina Elexpuru Arregi
- Kontxi Idigoras Ostolaza
- Lierni Narbaiza
- Maria Jesus Manzisidor Agirre
- Maialen Lopez
- Maite Azkagorta
- Maite Eraña
- Maitena Arana Harbustan
- Mari Carmen Laskurain Loidi
- Mari Sanvicente Ubera
- Mari Kruz Andueza Aranburu
- Marilu Unzurrunzaga
- Mari Paz Alustiza Larrañaga
- Matilde Sainz Osinaga
- Mayra Jimenez
- Mertxe Ruiz de Egino
- Pili Azkarate
- Selena Lizarburu Gallastegi

# Kepa Junkera & Sorginak Amaia antzokian izango dira domekan

Korrika Kulturala egitarauaren barruan 'Maletak' ikuskizuna eskainiko dute, martxoaren 12an, 19:00etan

**A. A.** ARRASATE

Orain dela lau urte abiatu zuen Kepa Junkerak Euskal Herriko hainbat trikiti eskolatako ikasleekin Sorginak egitasmoa. Debagoieneko bost lagunek hartzen dute parte: hasieratik dauden Arrasateko Amets Ormaetxea, Leire Etxezarreta eta Irati Gutierrez; eta geroago batu zaizkien Maddi eta Olatz Alberdi ahizpa bergararrak. Junkeraren trikiti doinuen gainean askotariko panderoak eta bestelako perkusio tresnak jotzen dituzte, eta dantzan ere egiten dute.

**Diskotik ikuskizunera**

2014an kaleratu zuten *Trikitixaren historia txiki bat* lana, eta irailean aurkeztu zuten Getxoko Folk jaialdian bigarrena: *Maletak*. "Oso ezberdinak dira; aurreko lanetako kantuek euskal kopla tradizionaletik asko zuten, baina oraingoak etnikoagoak dira, Keparen marka handia dute", azaldu du Amets Ormaetxeak, Arrasateko *sorginak*.

Diskoa grabatu zuten eta hilabete batzuetara sortu zuten ikuskizuna. "Penintsula osoko koplak daude gure maletan, bidean aurkitzen joan garenak. Sorginak-en ibilbidean ezagutu ditugun askotariko musikariak omendu gura ditugu, eta, era berean, gure arbasoei edo kulturari ere keinua egin", dio Leire Etxezarretak, eta zera gaineratu du: "Herri kirolak eta musika uztartzen ditu; izan ere, taularen gainean, musikariokin batera, Karmele Gisasola harri -jasotzailea eta Aitzol Atutxa aizkolaria ere badaude".

**Sarrerak, hamabost eurotan**

*Arrasate.eus*-en eta Amaiako leihatilan eskura daitezke.



Kepa Junkera eta Sorginak, Getxoko Folk jaialdian. GAIZKA PEÑAFIEL

## Kimuak 2017 egitasmorako deialdia zabalik

Aurten hogei urte bete ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Etxepare Euskal Institutuaren bitartez antolatutako eta Euskadiko Filmategia Fundazioak kudeatzen duen Kimuak egitasmoak. Helburua euskal film laburrak sustatu eta banatzea da, eta parte hartzeko epea maiatzaren 31n bukatzen da.

Askotariko gai eta generoetako film laburrak aurkez daitezke; edozein hizkuntza eta formatutan grabatutakoak. Hala ere, parte hartzeko hainbat baldintza daude; besteak beste: zuzendaria Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea, lanak gehienez 30 minutuko iraupena izatea eta 2016ko ekainaren 1etik aurrera ekoitzitako lana izatea. Deialdiaren oinarriak eta informazio osagarria eskuratzeko: *Kimuak.com* ataria.

# Telebistako platoa, bertso eskola itxura hartuta

Arizmendi Ikastolako Almen guneko Oihana Aranak, Haizea Aranak eta Ane Gayk egin zituzten kazetari lanak hirugarren 'Galdegazte' saioan. Bertsozaleak dira, eta Miren Amuriza gonbidatu zuten. Martxoaren 15ean, eguaztena, 09:30ean izango da ikusgai

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Bertsozaleak eta bertso eskolako ikasleak ere badira Arizmendi Ikastolako Almen guneko Haizea Arana, Oihana Arana eta Ane Gay ikasleak; eta bertsogintzaz duten egarria asetzeko asmoarekin proposatu zuten Jokin Bereziartua aurkezlearekin batera gidatu zuten *Galdegazte* saioan Miren Amuriza elkarrizketatzea.



Oihana Arana, Haizea Arana, Miren Amuriza eta Ane Gay. JAGOBA DOMINGO

**Bertsolari rolaz harago ere bai**

Bertso kontuek hartu zituzten, bada, solasaldiko minutu gehienak; hala ere, Amurizaren beste alderdi batzuk haren ahotik ezagutzeko aukera ere aprobetxatu zuten. Berrizko bertso eskolan irakasle jarduteaz gainera, enkarguzko askotariko idazlanak egiten dituela kontatu zien Amurizak. Pirritx eta Porrotx pailazoendako kantuak idazten dituela, baita *Berria* egunkarian egunero iritzi-zutabe bat ere. "Eguneroko gertakariak adi jarraitzea ezinbestekoa dut eta horregatik eramaten dut poltsan beti koaderno txiki bat, ikusten eta entzuten dudan guztia apuntatzen dut han".

Abizenaren zamaz galdetuta, honako hau erantzun zien Amurizak: "Adinarekin asko ikasi dut; hala ere, ezer badaukat nire abizenari buruz, eskertzekoa da guztia. Plazetan hasi nintzenean sarritan deitzen ziguten aitari eta bioi elkarrekin saioa egiteko. Horrek bidea zabaldu zidan, baina sentitu dut batzuetan nire jarduna gogor defenditu beharra".

**Profesionalari aholku eskean**

Oholtzaren gaineko sentimenduez eta bertsolaritzan dituen helburuez galdetzeaz gainera, aholku praktikoak emateko eskatu zizkioten: "Gure buruan dago epailerik handiena eta urduritasunari aurre egiteko beharrezkoa da hori isilaraztea. Hasiberri direnei esango nieke pentsatzeko une horretan dituzten beldurrak profesionaltzat dituzten bertsolariek ere sentitu izan dituztela. Horiek bezala, denborarekin, hasiberriek ere gaindituko dituzue. Aurrera!".

## Manex Agirre eta Alaia Martin hurrengo 'Kulturrizketak' saioan

Bi bertsolari aurrez aurre martxoaren 16an, eguena, 21:30ean, Goiena telebistan eskainiko den solasaldian

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Belaunaldi bereko bertsolariak dira Aramaioko Manex Agirre eta Oiartzungo Alaia Martin; elkar ezagutzen zuten, beraz, *Kulturrizketak* saioko platoan sartu aurretik.

**Hastapenez eta beldurrez**

Hasieratik sumatzen zen solasaldi osoan izango zuten elkarren arteko *feeling*-a. Hastapenen inguruan hasi ziren berbetan. Euskal kulturaren erreferentziak txikitatik etxetik jaso zituela kontatu zuen Agirrek, eta kontsumitzaile moduan bizi izan zuela bertsozaletasuna 15 urte bete zituen arte. "Gasteizko Oihane Perea bertsolaria etorri zen herrira bertso eskola sortzera, eta haren bitartez murgildu nintzen serioago bertso kontuetan". Martinek anaia bertso-eskolan zuela kontatu zion. "Ondo pasatzeko lagunarte moduan ikusten nuen bertso eskola. Bertsotan jarduteak baino inbidia handiagoa ematen zidaten asteroko patata-tortilla jatorduek. 12 urte nituela, baina, ikastetxean bertsogintza lantzen hasi ginen, eta bertsoek zuten adierazteko moduak harrapatu ninduen orduan".

Bertsoekin sentitzen duten emozioez, dituzten beldurrez eta egiten dituzten akatsengatik nork bere burua larregi ez zigortzeari buruz ere eman zuten iritzia. Emozioez berbetan, biek ala biek aipatu zuten Donostiako Belodromoan 2001n izan zen finala: "Lujanbiok Himalaiako irudi batzuei buruz bota zituen bertsoek engantxatu egin ninduten", zioen Martinek. Eta zera gaineratu zuen Agirrek: "Asko hunkitu nintzen ni ere, eta gerora ere gauza gutxik emozionatu naute bertsoek beste".

**Saioak 'on line' ere ikusgai**

Hirugarrena da honako hau, baina aurreko saioak *Goiena.eus/telebista/kulturrizketak* atarian daude ikusgai.


Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubean, hilero sariak!**




**BASKONIA – CSKA MOSKU**
**partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu.**
Martxoaren 17an, 21:00etan Buesa Arenan jokatuko den partidurako.

**PARTE HARTZEKO:**
**E-postaz:** *kluba@goiena.eus* **WhatsApp:** KLUBA "*baskonia*" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.eus*

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Oñatiko Gaztelekuari esker**
*'Lagrimas de sangre' taldearen kontzerturako sarrerak ditugu.*
**Gaztelekuan, Oñatin | Martxoaren 17an, 22:00etan**

**Ozenki Elkarteari esker**
*L´Elisir D´Amore opera ikusteko sarrerak ditugu.*
**Amaia antzokian, Arrasaten | Martxoaren 22an, 20:00etan**

**PARTE HARTZEKO:**
**E-postaz:** *kluba@goiena.eus* **WhatsApp:** KLUBA "*opera/musika*" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.eus*

**Irabazi bi lagunendako otordua**

MAIALDE JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*

*KLUBA Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...




Bazkidetu zaitez: 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: **943 25 05 05**. *goienakluba.com*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

# IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**UBERA**
Olañeta baserria eta 15 hektareako lursaila salgai (pinuak eta zelaiak).
943 76 35 09
677 21 46 82

**Laredo.** Apartamentua salgai EVEReko gunean. Bigarren solairua da eta igogailua dauka. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Guztiz jantzia dago. 615 09 36 82

### 102. EROSI

**Bergara.** Etxebizitza erosiko genuke. Hiru logelakoa, igogailu eta garajearekin. Erdialdean. 653 29 37 04 edo 665 74 47 64

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Zabalotegin etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Jende arduratsua bakarrik onartuko da. Hilean 550 euroko errenta, negoziagarri. 633 08 06 32

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 644 86 22 82

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Hilean 450-500 euro ordain ditzaket. 631 72 71 72

**Bergara.** Bergarako familia batek etxebizitza errentan hartuko genuke, erdialdean eta igogailuarekin. 653 29 37 04 edo 665 74 47 64

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. 659 90 85 13

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Bi logelakoarekin nahikoa da. Berdin da jantzita ez badago ere. 632 77 35 38

**Oñati.** Etxea hartuko genuke errentan Oñatin. Bertako bikote bat gara. 670 54 71 05

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 627 24 62 76 edo 943 04 44 64

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje salgai Errekabarren kalean. Errentan hartzeko aukera ere bai. 943 79 52 29 edo 628 31 98 39

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**
Zerbitzaria behar da ostegun, ostiral eta zapatutarako.
696 16 83 06

**HIGIENISTA**
Aretxabaletako hortz klinika baten lan egiteko higienista bila nabil.
646 11 43 24

**BANATZAILEA**
Bergarako pertsona bat behar dugu etxez etxeko banaketarako. 125 $cm^3$-ko motorrendako gidabaimena izan behar du edo gidabaimena gutxienez bi urtez.
663 02 14 05 / 943 76 66 43

**Aretxabaleta.** Astean hiru egunetan, garbiketa eta plantxa egiten eskarmentua daukan emakume euskalduna behar da. 18:00etatik aurrera deitu mesedez. 680 44 95 50 edo 943 25 26 92

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskalduna. 688 66 76 91

**Debagoiena.** Emakumea gertu asteburuetan edo orduka zaintza lanetan jarduteko. Erreferentzia onak. 632 89 09 42

**Debagoiena.** Emakumea lan bila: laguntza behar duten zein bakarrik moldatzen diren nagusiak zaintzen, etxeak garbitzen eta baita umeak zaintzen ere. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. 632 51 06 26

**Debagoiena.** Emakumea lan bila: laguntza behar duten zein bakarrik moldatzen diren nagusiak zaintzen, etxeak garbitzen eta baita umeak zaintzen ere. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. 632 67 87 39

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo ume eta pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta prestasun osoa daukat. 632 62 67 31

**Debagoiena.** Garbiketa eta zaintza lanak egiteko gertu nago. Baita ospitalean ere, egunez edo gauez. 659 90 85 13

**Debagoiena.** Garbiketan, nagusiak zaintzen eta abarrean lan egingo nuke. 688 63 58 25 (Yolanda) edo 650 12 42 87 (Beatriz)

**Debagoiena.** Gizon arduratsua gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile moduan edo tabernak garbitzen aritzeko. 652 58 41 99 edo 656 93 85 09

**Debagoiena.** Goizetan lan egingo nuke. Esperientzia dut umeak zaintzen, etxeak garbitzen eta gaixo eta nagusiak zaindu eta laguntzen. Lan egiteko beharra daukat, alarguna naiz-eta. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Lan egiteko prest nago, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Garbiketak, pertsona nagusiak zaindu eta abar. 651 67 60 48

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota denetariko garbiketak egiteko. Ordutegi arazo barik. 656 93 85 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ordutegi arazo barik. 602 30 45 86

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. 626 44 46 49

**Debagoiena.** Taberna, etxe, baserri eta abarren garbiketarako edo hustutze lanak egiteko prest nago. Autoa daukat. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Zaintza lanetan edo garbiketan lan egingo nuke. Ordutegi arazo barik. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Zaintza lanetan, zerbitzari edo garbiketan lan egingo nuke. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 654 11 15 14

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi 4 allroad.** Salmenta partikularra. Jabe bakarra. Audi 4 allroad 2000TDI. Azken modeloa. 177 ZP. 4x4. Zuria da. 60.000 kilometro frogagarri. Egoera ezin hobean dago, ia berri. Audik baimendutako garajean egin zaizkio errebisioak. Beti garajean egon da. Michelin etxeko kubiertan, estreinatzeke. 25.500 €. 650 60 12 14

## 8. DENETARIK

### 806. GALDU

**e-book-a Bergaran.** E-booka galdu nuen Bergaran, frontoi inguruan (ONCEko kioskoaren aldean). Tagus markakoa da eta estalki urdina du. 687 31 50 65 edo 943 76 34 65

**Motxila Aretxabaletan.** Otsailaren 23an, eguena, motxila galdu genuen Skate park-polikiroldegi inguruan. Judorako arropa dago barruan. 650 32 74 05

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Bergaratik Elorriora.** Norbait Bergaratik Elorriora joaten bada egunero, autoz, eta gastuak partekatu nahi baditu, ipini harremanetan nirekin telefono honetan: 631 46 56 98

---

KOROSTI INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Simon Arrieta, 81 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 300.000€.
- Fraiskozuri, 110 m², 3 logela. Garajea barne. Bizitzera sartzeko. 260.000€.
- Bidekurutzeta, 100 m², 2 logela, berritua, Bizitzera sartzeko. 157.000€.
- Bidekurutzeta, 54 m², 2 logela. Berritzeko. Igogailua du. 92.000€.
- Martoko, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. Eguzkitsua. 135.000€.
- Madura, 56 m², 2 logela, bi balkoi, eguzkitsua. 110.000€.
- Martzial Agirre (Espoloia), 84 m², 4 logela, trastelekua eta garajea barne. 235.000€.
- Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€. PREZIO JAITSIERA
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log, 320.000€. Igogailua. NEGOZIAGARRIA.
- Aranerreka, 85 m², 3 logela, 2 komun, trastelekua. 120.000€.
- Martoko, 77 m², 2 logela, igogailua. Ez du obrarik behar. 95.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Barrenkale, 75 m², 3 logela, Ez du obrarik behar. 70.000€.
- Zubiaurre, 50 m², 2 logela, BERRITZEKO. 24.000€. AUKERA ONA.
- Madura, 57 m², 2 log. Berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€. AUKERA OSO ONA.
- Urteaga, 92 m², 3 logela, terraza 40m2, garajea aukeran. Eraikuntza berria. 280.000€.
- Ernai, 162 m², atikoa. 4 log. Tximinia, 28m2ko terraza. 350.000€.
- Zubiaurre, 86 m², 3 log, trastelekua eta garajea barne. 100.000€. AUKERA BIKAINA.
- Artzamendi, 74 m², 3 logela, berritua, garajea barne. 210.000€.
- Aranerreka, 85 m², 3 logela, Berritua. Ez du obra beharrik. 145.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubieta, 125 m², terraza eta 2 horturekin. Igogailua ipintzekotan dabiltza 192.000€.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.
- Askarruntz, 60 m², 2 logela. Lasaia eta eguzkitsua. 100.000€. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza, 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria, 233 m². Lursailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.

**OSINTXU:**
- Osintxu, 92 m², 3 logela, igogailua, garajea. Eraikuntza berrian. 165.000€.
- Osintxu, 55 m², ganbara 55m2, lur sailarekin. BERRITZEKO. 40.000€.
- Osintxu, 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

**ANTZUOLA:**
- Errekalde, 68 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. Altzariak barne. 140.000€.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Errekalde, 78 m², 3 logela, Berritua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.

**ELGETA:**
- Torrealdea, 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

---

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK:**
- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

---

## URTEURRENA

### Cristina Ugarte Lopez de Bergara



2016ko martxoaren 20an hil zen, 69 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Nahiz eta gure artetik urrutira joan,*
*beti izango zaitugu gure bihotzean.*
*Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko,*
*baina bizitzen geran artean ez zaitugu ahaztuko.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2017ko martxoaren 10ean.

## URTEURRENA

### Soledad Larrañaga Urrutia



2016ko martxoaren 9an hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2017ko martxoaren 10ean.

## URTEURRENA

### Rosalia Gamboa Murgoitio



Timoteo Idigorasen alarguna

2016ko martxoaren 8an hil zen, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 12an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

—

*Beti izango zaitugu gure bihotzean.*
*Maite zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Eskoriatzan, 2017ko martxoaren 10ean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 10 | FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26 |
| Zapatua, 11 | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| Domeka, 12 | AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| Astelehena, 13 | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| Martitzena, 14 | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 15 | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| Eguena, 16 | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| **BERGARA *EGUNEZ*** | |
| Egubakoitza, 10 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Zapatua, 11 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Domeka, 12 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Astelehena, 13 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Martitzena, 14 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 15 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Eguena, 16 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| **OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK*** | |
| Egubakoitza, 10 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Zapatua, 11 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Domeka, 12 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Astelehena, 13 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Martitzena, 14 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 15 | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |
| Eguena, 16 | ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16 |

**ARRASATE *GAUEZ EGUNERO***
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2017ko abuztuaren 15era arte:**
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 943 79 22 26

**BERGARA *GAUEZ EGUNERO***
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2017 osoan:**
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 943 76 11 74

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ESKER ONA

## Maria Angeles Gorrotxategi Garitaonandia



Candido Iñurritegiren alarguna

2017ko martxoaren 6an hil zen, 92 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitugu bihotzean.*
*Eskerrik asko, ama.*

—

Eskerrik asko etxekoen izenean, egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Etxekoak.
Arrasaten, 2017ko martxoaren 10ean.

ESKER ONA

## Ignacio Aranzabal Gabilondo



2017ko martxoaren 3an hil zen, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Gure eskerrik beroenak Mizpirualde egoitzako guztiei berarekiko izan duzuen arreta eta maitasunagatik.

Bergaran, 2017ko martxoaren 10ean.

ESKER ONA

## Jose Mari Aranzabal Albizu



2017ko martxoaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

*Halakoetan, maitasun hitzak, eskertzak, sentimenduak, irakaspenak… ahaztu ezinak.*

*Agur eta mila esker, aitta.*

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2017ko martxoaren 10ean.

ESKER ONA

## Luis Mari Elkoroiribe Lazpiur



2017ko martxoaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko guztiei, familiaren izenean. Bereziki bere zaintzailea izan den Kareliari eta Bergarako eguneko zentroko langile guztiei.

Bergaran, 2017ko martxoaren 10ean.

ESKER ONA

## Iker Jausoro Murgiondo



2017ko otsailaren 26an hil zen, 47 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Iker Jausororen aldeko meza zapatuan izango da, martxoaren 11n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko martxoaren 10ean.

ESKER ONA

## Ines Olalde Barrena



Otsailaren 24an hil zen, 57 urte zituela.

Gurasoak: Bittor (†) eta Carmen; anai-arrebak: Moises eta Ana Alonso, Beatriz, Elena eta Javier Murua (†), Judith eta Antonio Murua (†), Ana eta Felix Esnaola; ilobak: Josu, Ainhoa, Maider, Aimar, Iban, Asier, Leire; osaba-izebak, lehengusuak eta gainontzeko senide guztiak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

—

Ondretako meza zapatuan izango da, martxoaren 11n, agustindarren elizan, 19:30ean.

Oñatin, 2017ko martxoaren 10ean.

OROIGARRIA

## Joaquin Manuel Ferreira Barquero



'Txiri'

2017ko martxoaren 2an hil zen, 47 urte zituela.

*Zure izaeragatik, beti izango zaitugu gogoan.*

Zure familia.
Arrasaten, 2017ko martxoaren 10ean.

OROIGARRIA

## Jose Antonio Ruiz Muro



2017ko martxoaren 3an hil zen, 70 urte zituela.

*Pozik oroituz zure bizitzan*
*izan garela gu parte*
*ohore haundiz, bihotz-bihotzez*
*Agur, Jose Antonio, beti arte.*

Zure kuadrillako lagunak.
Oñatin, 2017ko martxoaren 10ean.

MEZA

## Javier Arzuaga Lasagabaster

2017ko otsailaren 26an hil zen, Atlantan, 88 urte zituela.

Haren aldeko meza zapatuan izango da,
martxoaren 11n, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Anai-arrebak, koinatak eta ilobak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2017ko martxoaren 10ean.

## HILDAKOAK

**Javier Arzuaga Lasagabaster.** Atlantan, otsailaren 26an. 88 urte.
**Joaquin Manuel Ferreira Barquero.** Arrasaten, 2an. 47 urte.
**Josefa Askasibar Lazkano.** Elgetan, martxoaren 2an. 98 urte.
**Celestina Blanco Martinez.** Arrasaten, martxoaren 2an. 83 urte.
**Juana Larrañaga Aiastui.** Bergaran, martxoaren 2an. 91 urte.
**Jose Antonio Ruiz Muro.** Oñatin, martxoaren 3an. 70 urte.
**Ignacio Aranzabal Gabilondo.** Bergaran, martxoaren 3an. 85 urte.
**Luis Mari Elkoroiribe Lazpiur.** Bergaran, martxoaren 4an. 85 urte.
**Magdalena Bilbao Jaio.** Arrasaten, martxoaren 5ean. 89 urte.
**Maria Angeles Gorrotxategi Garitaonandia.** Arrasaten, 6an. 92 urte.
**Jesus Espel Aldamiz-Etxebarria.** Arrasaten, martxoaren 6an. 81 urte.
**Jose Mari Aranzabal Albizu.** Bergaran, martxoaren 7an. 93 urte.
**Palmira Fernandez Gonzalez.** Arrasaten, martxoaren 8an. 82 urte.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

# ASTEA GOIENA TELEBISTAN



JOKIN BEREZIARTUA

## ARRASATEKO MARTXOKO OSOKO BILKURA

***'Osoko bilkura'*** *Zapatua, 16:00*



IMANOL SORIANO

## BERGARAKO ARATUSTEETAKO KONTZERTUA

***'Kontzertua'*** *Zapatua eta domeka, 16:00*

**EGUBAKOITZA, 10**

| | |
|---|---|
| **10:00** | Hemen Debagoiena |
| **11:00** | Onein: Barazki salteatuak |
| **11:30** | Hemen Debagoiena |
| **12:30** | Kulturrizketak |
| **13:00** | Kantari 1 |
| **13:30** | Hemen Debagoiena |
| **14:30** | Gaurkoak |
| **14:45** | Galdegazte: Aitziber Garmendia |
| **15:45** | Amaia DJ |
| **16:15** | Gaurkoak |
| **16:30** | Onein: Barazki salteatuak |
| **17:00** | Gaurkoak |
| **17:15** | Kulturrizketak |
| **17:45** | Gaurkoak |
| **18:00** | Hemen Debagoiena |
| **19:00** | Kantari 2 |
| **19:30** | Kulturrizketak |
| **20:00** | Hemen Debagoiena |
| **21:00** | Kulturrizketak |
| **21:30** | Amaia DJ |
| **22:00** | Hemen Debagoiena |
| **23:00** | Osoko bilkura: Arrasate |
| **00:30** | Hemen Debagoiena |

**ZAPATUA,11**

| | |
|---|---|
| **09:00** | Kantari 1 |
| **09:30** | Plazako aulkitik |
| **10:00** | Korapilo |
| **10:30** | Kantari 2 |
| **11:00** | Hemen Debagoiena |
| **12:00** | Erreportajea: Ulima Cebola txikia |
| **12:30** | Galdegazte: Aitziber Garmendia |
| **13:00** | Aratuste kontzertua |
| **15:00** | Hemen Debagoiena |
| **16:00** | Osoko bilkura: Arrasate |
| **17:30** | Amaia DJ |
| **18:00** | Galdegazte: Aitziber Garmendia |
| **18:30** | Kantari 1 |
| **19:00** | Hemen Debagoiena |
| **20:00** | Kantari 1 |
| **20:30** | Amaia DJ |
| **21:00** | Osoko bilkura: Arrasate |
| **22:30** | Hemen Debagoiena |
| **23:30** | Galdegazte: Aitziber Garmendia |
| **00:30** | Kulturrizketak |

**DOMEKA, 12**

| | |
|---|---|
| **09:00** | Kantari 2 |
| **09:30** | Ur eta lur |
| **10:00** | Korapilo |
| **10:30** | Kantari 1 |
| **11:00** | Galdegazte: Aitziber Garmendia |
| **11:30** | Osoko bilkura: Arrasate |
| **13:00** | Hemen Debagoiena |
| **14:00** | Erreportajea: Ulima Cebola txikia |
| **14:30** | Kulturrizketak |
| **15:00** | Plazako aulkitik |
| **15:30** | Aratuste kontzertua |
| **17:30** | Hemen Debagoiena |
| **18:30** | Amaia DJ |
| **19:00** | Osoko bilkura: Arrasate |
| **20:30** | Hemen Debagoiena |
| **21:30** | Kulturrizketak |
| **22:00** | Amaia DJ |
| **22:30** | Galdegazte: Aitziber Garmendia |
| **23:00** | Hemen Debagoiena |
| **00:00** | Erreportajea: Ulima Cebola txikia |

**ASTELEHENA, 13**

## OÑATIKO DUATLOIKO IRUDIAK

***'Harmailatik'***

*Astelehena, 21:30*

**MARTITZENA, 14**

## 'ATZOKO ENBORRAK, GAURKO EZPALAK'

***'Dokumentala'***

*Martitzena, 21:30*

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/ telebista*** Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

**EGUAZTENA, 15**



GOIENA

## GAZTEAK, MIREN AMURIZAREKIN

***'Galdegazte'***

*Eguaztena, 21:30*

**EGUENA, 16**

## MANEX AGIRRE ETA ALAIA MARTIN

***'Kulturrizketak'***

*Eguena, 21:30*

# ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Haizea Biteri Nafarrate**
Martxoaren 15ean, 5 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Ai ze ondo pasatuko dogun merendolan! Patxo handi bat! Etxekoak.



BERGARA
**Libe Unamuno Lete**
Martxoaren 15ean, urtebete. Zorionak, pitxirrina! Neska handia egiten ari zara gu konturatu barik... Etxeko danak eta, bereziki, Maren, Aitor, Aiora, Uxue, Alaitz eta Ibon.



ARETXABALETA
**Bittor San Jose**
Martxoaren 11n, 46 urte. Zorionak, tio Bittor! Eguna ondo pasatzea opa dizu familia osoak. Bereziki Aintzanek, Deianek, Irunek, Aimarrek eta Anerrek Muxu potolo bat. Mua!



OÑATI
**Kattin Malbadi Ugarte**
Martxoaren 11n, 11 urte. Zorionak, Kattin! Egun polit-polita euki! Muxu potolo bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Gartxot Elortondo Moraza**
Martxoaren 10ean, 4 urte. Zorionak, handikote! Egun zoriontsua pasatu, etxekoen partetik. Muxu zakukarie zuretzat.



BERGARA
**Irati Aperribai Mujika**
Martxoaren 10ean, 6 urte. Zorionak eta patxo potolo asko, familixa osoaren partetik.



ARETXABALETA
**Naroa Fernandez Fernandez**
Martxoaren 10ean, 9 urte. Zorionak, Naroa! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat Gorka, aita eta amatxorengandik.



BERGARA
**Izadi Salegi**
Martxoaren 10ean, 5 urte. Zorionak, Izadi, zure bosgarren urtebetetzian. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Zorion muxuak familia osoaren partetik.



BERGARA
**Iraide Beristain Laskurain**
Martxoaren 9an, 2 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Muxu handi bat familia osoaren eta, bereziki, Isolderen partetik.



ELOSU
**Iker Rebanal Pesos**
Martxoaren 9an, 11 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna, aitaita-amamen partetik!



ANTZUOLA
**Nora Ezkurra Alonso**
Martxoaren 8an, 2 urte. Zorionak, Nora! Segi oin arte bezain sorgintxua izaten. Patxo handi-handi bat etxeko danon eta, bereziki, Alazneren eta Ekaitzen partetik.



ESKORIATZA
**Aner Orobengoa Nevado**
Martxoaren 8an, 6 urte. Zorionak, txapeldun, etxeko guztien eta, batez ere, anaia Xabiren eta lehengusina Malen eta Olaiaren partetik.



ARRASATE
**Nagore Barandiaran Garai**
Martxoaren 7an, 9 urte. Zorionak, maitea! 9 urte dagoeneko! Segi horren alai eta maitakorra izaten! Muxu eta besarkada potolo bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
**Garazi Diaz de Gereñu Larrañaga**
Martxoaren 7an, 3 urte. Zorionak, Garazi! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu handi bana etxekoon eta, bereziki, Danelen partetik!



BERGARA
**Haizea Irizar Ibabe**
Martxoaren 7an, 3 urte. Zorionak, maitxia, egun ederra pasatu eta muxu goxo bat, etxeko danen partetik.



ARRASATE
**Nahia Rodriguez Baena**
Martxoaren 7an, urtebete. Gaur etxeko printzesak urtetxo bat betetzen du! Zorionak Ibairen, Jonen eta familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
**Deiane Portalo Gonzalez**
Martxoaren 6an, 11 urte. Deiane, 11 urte bete dituzu dagoeneko. Oso harro gaude zutaz. Bikaina, zintzoa eta paregabea zara. Besarkada handi bat!



ARRASATE
**Luken Martin Ayani**
Martxoaren 6an, 6 urte. Zorionak, Luken, zure seigarren urtebetetzian. Muxu pila, familia osoaren partetik, eta edarto-edarto ospatu egun berezi hau.



ARETXABALETA
**Garikotz Arrese Serrato**
Martxoaren 6an, 3 urte. Zorionak, Garitxo! Patxo potolo-potoloa etxeko superheroiarendako, etxeko danon partetik. Mua!



ARRASATE
**Izaro Llodio Ramos**
Martxoaren 5ean, 11 urte. Zorionak, Izaro! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi-handi bat, etxekoen partetik.



OÑATI
**M. Francisca Arrue eta M. Iratxe Maiztegi**
Zorionak, bikote! Domekan, martxoaren 5ean, bete dituzte urteak bixak. Amandriak 94 urte eta bere bilobak 9. Ondo pasatu, denon partetik, eta urte askotarako!



OÑATI
**Malen Diaz Agirregabiria**
Martxoaren 4an, 7 urte. Zorionak, Malen! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat, etxeko danan partetik!



ARRASATE
**Markel Toston Lopez de Bergara**
Martxoaren 4an, urtebete. Zorionak, politt hori! Urtetxo bat gurekin! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi, bat etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
**Enaitz Atxaga Arrese**
Martxoaren 3an, 10 urte. Zorionak, Enaitz! Ondo pasatu zure eguna. Laztan handi bat, familixiaren partetik!



ARETXABALETA
**Iker Isasmendi Zubizarreta**
Martxoaren 3an, 40 urte. Zorionak, aitatxo, zure urtebetetzean! Muxu handi bat, Inarren eta etxeko guztien partetik!



ARRASATE
**Xuban Apraiz Arabiourrutia**
Martxoaren 2an, 6 urte. Zorionak, potxolo! Asko maite zaitugu. Aitatxo, amatxo eta Uhaitz.



ARRASATE
**Aran Balerdi Zeberio**
Martxoaren 1ean, 2 urte. Zorionak, txiki, bi urtetxo. Gozatu egunaz. Patxo erraldoi bat etxekuon partetik.

## TXUTXU-MUTXUAK














**1. Argazkilariak**
*Euskal Herria en ímagenes* Facebook taldeko argazkilariak Oñatin izan dira. Hango Arrikrutz kobetan, hain zuzen ere. Eta argazki kamerak eskuetan dituztela, noski.

**2. Lanbide Heziketan**
Aspace elkarteko kideak Lanbide Heziketako egoitzan egon dira, hango ikasleei otarreak nola egiten diren irakasteko. Baita erakusteko ere. Ederki pasa zuten denek.

**3. Emakumeak kantuan**
Emakumeen bazkaria egin zuten joan den asteburuan Aramaion. Paula Amilibiak euskal kantuak jo zituen gitarrarekin, eta kantuan bukatu zuten bazkaria.

**4. Altitoy proban oñatiarrak**
Altitoy-Ternua 2017 proban parte hartu zuten hainbat oñatiarrek otsaileko azken aste bukaeran. Oso ondo pasatu zuten, elurraz eta eskiaz gozatzeaz batera.

**5. Irati Andaren bisita**
Irati Anda kirolari gasteiztarra Oñatiko Urgain eskolako seigarren mailako ikasleekin egon da. ETBko *Gailurra xtrem* saioan parte hartzen du Andak.

**6. 50 urte elkarrekin**
Agustin Albizuk eta Maribel Ceciagak 50 urte beteko dituzte ezkonduta martxoaren 11n. "Aita eta ama, zorionak, etxekoen partetik! Musu bat biontzat".

## #DIOTENEZ

**SUKALDEAN**
Aritz **Kortabarria** kirolari bergararrak sukaldeko amantala jantziko du datorren astelehenean Euskal Telebistako ***Txoriene*** programan. Sukaldari lanak egingo ditu eta **korrika**, bizikletan eta igerian bezain ondo moldatzen den edo ez ikusteko aukera izango dute ikus-entzuleek. **Untxia** garagardo erara eta **txokolate-**tarta. Horixe da buruan duen **menua**. Ea, ba, zer-nolakoa ateratzen zaion.

**BARRIOLA OÑATIN**
Abel Barriola pilotariak Oñatin **jokatuko** du martxoaren 17an. Oso jaialdi berezia izango da. Batetik, Barriolaren **azken** partiduetako bat izango delako, eta, bestetik, **Altuna lehenbiziko** aldiz Oñatiko **frontoian** ikusteko aukera egongo delako. **Elkarrekin** jokatuko dute Ezkurdiaren eta Merinoren kontra. **Zubikoa** kiroldegian izango da partidua, Aloña Mendiko **pilota** sailak antolatuta.

**'LEKAIXOKA!'**
Irailaren 24an Oñatin egingo den Kilometroak festak badu **abestia**. Horretan ibili dira herriko hainbat **musikari,** eta, letra eta doinua uztartuta, dagoeneko sortu dute kantua. Lagunen artean **entzungai** dute lehenengo **bertsioa**. **Moldaketak** egin, eta laster edozein txokotan entzungo den pieza sortuko dute. Antza, **ez** du antzik 1989ko Kilometroak festarako egin zuten kantuarekin. Oraingoa **biziagoa** da. Nork edo nortzuek abestuko duten ere **erabakita** dute.

**MAIATZEAN**
Aurten ere egingo da **Puntaik Punta** jaialdia. Mankomunitateak antolatutako jaia da, Mundumirari lekukoa hartu ziona. Joan den urtean egin zuten lehenengo aldiz, Leintz Gatzagan, eta aurten **bigarren** aldiz antolatuko dute. Mundumira moduan, **jaialdi** hori ere bailarako herri guztietan egitea da asmoa, **txandaka**, eta aurtengoa **Bergaran** egingo dute. Maiatzean egin gura dute, eta, egutegian arazorik ez sortzeko, data egoki bat adosten ari dira. **Ibilaldiak**, irteerak eta naturarekin lotura duten **ekimenak** egin gura dituzte Bergaran ere; adibidez, **erretiratuei** zuzendutako ibilaldi bat. Asmoa da bailarako erretiratu guztiak gonbidatu eta **irteera** polita egitea.

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



IGOTZ ZIARRETA

**ARRASATE Kepa Junkera eta Sorginak, Korrika Kultuaralaren barruan**
*Maletak* ikuskizuna arbasoen tradizioetan eta munduko erritmoetan inspiratutakoa da. Junkerak trikitiak gordetzeko erabiltzen dituen maletetan oinarritutako emanaldia. Sarrerak, hamabost euro.
*Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.*

## EGUBAKOITZA 10

**OÑATI Berdintxiketan lasterketa**
Bost kilometroko zirkuitua osatuz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea helburu duen lasterketa herrikoia. 17:00etan umeak Foruen plazan eta 18:30ean nagusiak Enpresagintzan.
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**OÑATI Odol ateratzea**
Martxoko deialdia.
*Enpresagintzan, 17:00etan.*

**ELGETA Erretiratuen urteko batzarra**
Iazko ekitaldiko diru kontuen eta ekintzen balorazioak egin eta 2017rako proposamenak azalduko dituzte.
*Ozkarbi elkartean, 17:30ean.*

**BERGARA Umeendako ipuin kontaketa**
Eneko Etxegarai idazlearen eta Eduardo Rodriguez ilustratzailearen eskutik. Sarrerak, bi euro.
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**ELGETA Korrika ekintzak**
18:30ean Korrikaren errepasoa egiten duen erakusketa ikusgai; ostean, *Euskararen lau aurpegi* ikus-entzunezkoa; eta, 19:00etan Korrikako materialaren salmenta.
*Buztin gelan, 18:30ean.*

**ARETXABALETA 'Yoga meditazioa eta elikadura energetikoa' hitzaldia**
Aritz Olano eta Naiara Uriarte adituek osasuntsu bizitzearen gaineko argibideak emango dituzte.
*Arkupen, 18:30ean.*

**BERGARA 'Emakumeen etxea' erakusketaren inaugurazioa**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, herriko emakume artisten lanek osatutako mostra egongo da ikusgai apirilaren 2ra arte.
*Aroztegi aretoan, 18:30ean.*

**ARRASATE Adimen gaitasun handiko haurrak ezagutzen**
Aupatuz Elkartearen eskutik. Helburua da adimen gaitasun handiko haurren berezko ezaugarriak ezagutzera ematea. Gurasoen, irakasleen eta haurren inguruan diharduen edonori irekitako hitzaldia izango da.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ESKORIATZA 'Atzoko enborrak, gaurko ezpalak'**
Frankismotik gaur egunera arteko bilakaerari buruzko lana da, hainbat emakumeren testigantzetan oinarrituta. Rufina Olasagasti, Pilar Antsoategi, Garbiñe Biurrun, Ino Galparsoro, Nekane Auzmendi eta Merche Agundez, hain justu ere. Doan.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**ELGETA Bertso afaria**
Amets Arzallus, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsotan.
*Spaloian, 21:30ean.*

**ARRASATE Orreaga 778, Crap eta Fred & The Perry taldeak**
Orreaga 778 taldeak disko berria aurkeztuko du.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**OÑATI Niña Coyote eta Chico Tornado eta Revolta Permanent taldeak**
Hip hop, elektronika eta rap doinuak nagusi. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**ARAMAIO Zinegoak, gay-lesbo-trans nazioarteko zinema emanaldia**
Sei film labur emango dituzte: *No es nada*; *Gabber Lover*, *#Not Guilty*; *Ana se intoarce*; *Gravido;* eta *Oh-Be-Joyful*.
*Kultura etxean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 11

**ARRASATE Emakume artisauen eta baserritarren azoka**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira egingo dute azoka.
*Seber Altuben, 10:00etan.*

**ANTZUOLA 'Olatu Morea' eta 'zumba' saioa**
Kirola eta aldarrikapena izango dira nagusi. 10:15ean *zumba* saio irekia pilotalekuan eta 17:30ean *Olatu Morea* lasterketa herriko plazan.
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
San Andresen egingo dituzte askotariko ekintzak: aurpegiak margotu, sukaldaritza tailerra, ping-pong txapelketa...
*Bedoñabe herri eskolako patioan, 10:30ean.*

**OÑATI Ludoteka ibiltaria**
Letxugak landatu eta *jumping* saioa egingo dute, 3-10 urte arteko umeendako.
*Errementari plazan, 10:30ean.*

**ARETXABALETA Ipuin kontaketa**
Pituxa Clown kontalariaren eskutik, umeendako saioa.
*Liburutegian, 11:30ean.*

**ARRASATE 'Dinbi Danba' erakusketan bisita gidatua**
Bixente Barandiarani buruzko erakusketan bisita berezia. Adin guztietarako.
*Harresi aretoan, 12:00etan.*

**OÑATI Bazkari feminista**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.
*Gaztetxean, 14:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Emakumeen bazkaria**
Sorginak emakume taldearen eskutik, Soran Etxean bazkalduko dute. Ostean, Humberto DJaren emanaldia.
*Aipatutako lekuan.*

**OÑATI Shotokan txapelketa**
Oñatiko, Antzuolako eta Bergarako karatekendako txapelketa.
*Zubikoan, 16:00etan.*

**ESKORIATZA 'Sarean saltsan', argazki eta film labur emanaldia**
Sare Sozialen erabilera onak eta txarrak dituen aldekoak eta kontrakoak azalduko dituzte.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**OÑATI 'Co-escucha' tailerra**
Bizipoz egitasmoko ekintza. Haurtzaroko oroitzapenak nola gogoratu landuko dute.
*Eltzian, 18:00etan.*

**BERGARA Festa feminista**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, Martxanterak taldearen jaia. 19:00etan *zumba*-poteoa eta 22:30ean Serpiente eta Martxanterak VJ taldeak. Sarrerak, hiru euro.
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**ELGETA Falta taldea, Spaloian**
Hazparne (Lapurdi) herritik datoz Manu Etxegarai, Benadin Lohiague eta Seb Delaporte post-rock doinuekin. Trantsizio eta intentsitate handiko kantuak egiten dituzte. Doan.
*Spaloian, 19:30ean.*

## DOMEKA 12

**ELGETA Ibiltarien jaia**
Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Jaia. 25 kilometroko mendi ibilaldia, bazkaria eta diploma banaketa.
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**OÑATI Zuhaitz landaketa**
Aloñako Lagunak taldearen eskutik.
*Unaimendin, 10:00etan.*

**OÑATI Oñatiko Duatloia**
26. duatloia egingo dute. Hamar kilometro korrika, 36 bizikletan eta bost korrika.
*Foruen plazan, 10:30ean.*

**ESKORIATZA II. Emakume Martxa**
Aresko emakumeen saskibaloi taldearen eskutik. Eskoriatzan hasi eta Aretxabaletan bukatuko da.
*Fernando Eskoriatza plazan, 11:00etan.*

**BERGARA 'Futbolariak eta printzesak' antzezlana**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltako ekimena. Parekidetasuna lantzen duen 7-13 urte arteko umeendako antzezlana. Jon Zubiaga arrasatearra eta Olatz Pagaldai eskoriatzarra oholtza gainean. Sarrerak, lau euro.
*Zabalotegin, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra**
Elikadura eta dieta orekatuari buruzko tailerra. "Eguna gogotsu eta indartsu hasi nahi duzu? Elikadura egokiak lagunduko dizu", esan dute antolatzaileek.
*Kultura Etxean, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Ipuin kontalaria**
4-10 urteko umeendako saioa egingo du Behinola kontalariak. Doako emanaldia.
*Torresoroan, 18:30ean.*

**ESKORIATZA 'Zazpiak oihal batetik' ipuin musikatua**
Baserri giroan murgilduko dira entzuleak Amaia Elizagoienekin eta Olaia Intziarterekin. Hain zuzen ere, zazpi ahizpari egokitutako bizitzan. Sarrerak, lau euro.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**OÑATI Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketa**
Oñatiko Txinparta 2 taldeak Zizurkil/Asteasuko Karidadeko Benta taldearen kontrako bertso saioa egingo du.
*Pako tabernan, 19:00etan.*

# ASTELEHENA 13

**ESKORIATZA Odol ateratzea**
Deialdi irekia.
*Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.*

**ANTZUOLA Virginia Imazen hitzaldia**
*Y que tenga de repente* berbaldia egingo du. Doan.
*Olaranen, 18:00etan.*

**OÑATI 'Kilometroak 40 urte' erakusketa**
Ikastolen aldeko jaialdiak izandako ibilbidearen errepasoa egiten duen mostra: argazkiak, dokumentuak, iritziak... Martxoaren 26ra arte egongo da ikusgai.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Zeuk egin!' ikastaroa**
Nork bere apaingarriak egiten ikasteko tailerra Dunixe Royorekin. Gaurtik apirilaren 3ra arte, astelehenetan, Kulturaten.
*Aipatutako lekuan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Kalebarreneko abangoardiako artea'**
Nikasio Unanuek pintura lanak erakutsiko ditu eta Luis Jose Errastik zeramikak.
*Arkupen, martxoaren 30era arte.*

# MARTITZENA 14

**BERGARA 'Benetako besarkadak' hitzaldia**
Harrera-familiak lortzeko kanpainaren aurkezpena.
*Irizar jauregian, 15:00etan.*

**BERGARA Miren Elgarresta, berdintasunari buruz berbetan**
Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako zuzendariaren berbaldia.
*Irizar jauregian, 19:30ean.*

# EGUAZTENA 15

**BERGARA Tea hartzera**
Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan jatorri desberdinetako emakumeek tea hartuko dute, Martxanterak talde feministak eta Auzokok gonbidatuta.
*San Martin plazan, 18:30ean.*

**OÑATI 'Aisialdia eta mendizaletasuna' hitzaldia**
Kilometroak 2017ko ekintza. Hezkuntza Zientzian doktore Luis Mari Zulaikaren berbaldia.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Pol-Poletik Cho Oyura'**
Mendi Astearen lehen ekintza. Amaia Arantzabalen eta Miguel Angel Elkoroberezibarren berbaldia. Argazkiak eta filma.
*Irizarren, 19:00etan.*

**OÑATI Hermansoloñaren batzar orokorra**
Bazkideendako deialdia.
*Kultura etxean, 19:30ean.*

# EGUENA 16

**ESKORIATZA Korrikaren aurkezpena eta dokumentala**
*Euskararen lau aurpegi* delako dokumentala emango dute. Maika Etxekoparrek, Dani Alvarezek, Elena Caballerok eta Ander Larrunbek euskararekin izandako bizipenak kontatzen ditu.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**BERGARA 'Alpeetako ipar hormak'**
Ibon Santosek egindako eskalada eta mendi igoera saiakerei buruz egingo du berba, Pol-Pol Mendizale Taldearen mendi astean.
*Irizarren, 19:00etan.*

**OÑATI Afari pakistandarra**
Herriko komunitate pakistandarrak herrialde horretako janari tipikoak eskainiko ditu gaztetxean. Afari irekia izango da. Gainera, hango kulturaz, historiaz eta bizitzaz hitz egiteko aukera egongo da.
*Aipatutako lekuan, 21:00etan.*

**ARRASATE Izaro bakarlaria**
Izaro Andres bakarlariaren kontzertua, Kooltur Ostegunetan. *Om* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**El nacimiento de una nacion**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Teresa eta galtzagorri (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**El guardian invisible**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**La vida de Calabacin**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**La, La, Land**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Blinky Bill**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**El guardian invisible**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Logan**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Moonligth**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Batman**
Zapatua: 17:00.

**ANTZOKIA**

**El guardian invisible**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Batman**
Domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**La isla de la calavera**
Egubakoitza eta domekatik eguaztenera: 16:00, 17:15, 19:45, 18:30, 21:00, 21:15, 22:15.
Zapatua: 16:00, 17:15, 18:45, 19:45, 22:15.
Eguena: 16:00, 17:00, 18:30, 19:30, 21:00, 22:00.

**Gold**
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 16:15, 18:45, 21:15.
Zapatua: 16:15, 19:10, 21:45.

**Logan**
Zapatua: 16:00, 19:00, 22:20.
Egubakoitzetik domekara eta eguena: 16:30, 19:15, 22:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:45.

**El guardian invisible**
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 17:20, 18:35, 21:10.
Zapatua eta domeka: 19:55, 22:30.

**Manchester frente al mar**
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:30.

**Es por tu bien**
Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

**Lo que de verdad importa**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:50.

**50 sombras mas oscuras**
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 20:00, 22:20.
Zapatua: 20:00.

**La gran muralla**
Egubakoitzetik eguenera: 20:10, 22:20.

**La, La, Land**
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 18:30.
Zapatua: 16:40.

**Fences**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 18:00.

**Trainspotting**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 21:00.

**Batman**
Zapatua eta domeka: 15:45, 17:50.

**Ballerina**
Zapatua eta domeka: 15:45, 17:45.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 15:45.

**Multiple**
Egubakoitzetik eguenera: 21:40.

**FLORIDA**

**Ballerina**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Batman, la lego pelicula**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**¡Canta!**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**El fundador**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:40.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 22:30.

**El guardian invisible**
Egubakoitzetik domekara, astelehena eta eguaztena: 22:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00.

**El viajante**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

**Es por tu bien**
Zapatua eta domeka: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Gold, la gran estafa**
Egukoitzetik eguenera: 17:00, 19:45.

**La, La, Land**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

**La comunidad de los corazones rotos**
Zapatua eta domeka; 18:15, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

**la vida de calabacin**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Logan**
Zapatua eta domeka: 22:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

**Moonligth**
Zapatua eta domeka: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 17:00.
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Teresa y Tim**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Vaiana**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Zona hostil**
Zapatua eta domeka: 16:30, 20:45.
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

## KRITIKA

**El viajante** ★★★☆☆
**Zuz.:** Asghar Farhadi. **Herr.:** Iran (2016). **Aktoreak:** Shahab Hossein, Taraneh Alidoosti, Babak Karami.

# Egiak dituen geruzak

**ANTONIO ZABALA**

Asghar Farhadiken pelikuletan –*A proposito de Elly; Nader y Simin, una separación; El pasado; El viajante*– gertatzen dena anbiguoa izaten da. Pertsonaiek ez dute jakiten zehatz-mehatz zer gertatu den, eta sortzen diren zalantzek sendoak ziruditen harremanak ahultzen dituzte. Susmoek eta mesfidantzek pertsonaien oreka astintzen dute. Zuzendari irandarrak elipsia erabiltzen du. Istoriorako garrantzi handia duen gertakizun bat iruditik kanpo gertatzen da, eta, hala, gertatutakoari buruzko galdera eta zalantza asko sortuko dira. Ekintza horretan parte hartutako pertsonaiek ez dute garbi eta zehaztasunez berba egin nahi, edo horiek emandako bertsioak kontrajarri egiten dira. Gero, badira zer gertatu den ezagutu nahi duten pertsonaiak. Horrela, pertsonaien arteko harremanak aldatuz joango dira, eta pertsonaien izaeran itzalak sortuko dira. Pertsonaiak emoziozko labirintoan galduta sentitzen dira, eta gordeta dituzten sentimenduak eta portaera ezezagunak kaleratuko dira. Ikuslea dramaren erdian dago. Ez daki zer gertatu den eta pertsonaien ibilbidea jarraituko du egia ezagutu nahian.


RTVE

Honekin batera, hasitako bide horretan, pertsonaien egoeran gertatzen diren aldaketak ikusiko ditu.

Baina, egia existitzen bada, geruza asko ditu, eta ikusleak horiek deszifratu beharko ditu pelikula bukatu baino lehen.

AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

## Emakumea vs pertsona?

Amorru puntu batekin idazten ari naizela onartzen dut. Emakumea izatea tokatu zait, hala jaio nintzelako, baina nire burua ez dut sekula gizonezkoarena baino gutxiago ikusi. Badirudi Martxoaren 8a iristen den bakoitzean denak garela emakume, eta emakumearen izena eta izana aldarrikatu behar direla. Lehiaketa moduko batean murgiltzen gara, ea nork egin duen berdintasunaren aldeko ekitaldirik jendetsuena, kolorez moreena, deigarriena, edo nork daukan gai honetan pedigririk handiena! Politikoki ere "erabiltzen" den kausa bat da eta negargura ematen dit honek, diru laguntza gehiago jarri behar direla honetarako, alderdi guztiek ez dugula proposamen baten inguruan adostasunik lortu... nahikoa da! Aspertu naiz aurtengoan, behintzat. Neure kabuz zer egin dezakedan pentsatzen hasi naiz, Whatsapp, gizarte sare eta gailu guztien gainetik neure ingurukoetatik hasita, elkarrekin errespetuan nola hezi eta nola bizi asmatzen ote dugun. Hitz modernoagoak erabili ditzakegu, baina oso sinplea da: pertsona guztiok elkarri errespetua izango bagenie eta guztiontzat hezkuntza izango bagenu, akabo desberdintasunak.

BUKATZEKO

# Jaio dira San Lorentzoko atarteko lau zozokumeak

Oñatiko San Lorentzo auzoko behe-barru bateko loreontzian, lau arrautza errun zituen duela hiru aste zozo eme batek. Arrak eta emeak zaindu dute denbora honetan habia, eta joan den domekan jaio ziren hiru. Astelehenean jaio zen laugarrena

**Miren Arregi** OÑATI

Joan den domekan jaio ziren hiru eta astelehenean laugarrena. Duela hiru bat aste errun zituen lau arrautzak zozoak. Oñatiko San Lorentzo auzoko atarte bateko loreontzian errun ere. Hemezortzi egun beharko zituztela, eta "hamazazpira jaio dira" horiek. Horrela dio egunotan arrautzen egoera eta zozo emearen eta arraren joan-etorriak gertutik jarraitu dituen atarteko bizilagun Ines Eizagirrek. Astean buru-belarri ibili dira bai zozo emea baita arra ere kumeei jaten ematen. "Egun gutxitan diferentzia handia egin dute; egunetik egunera nabari zaie handitzen ari direla. Ondo zainduta eta elikatuta dauden seinale", dio Eizagirrek. Etxe ondoko berdegunean gurasoak jan bila ikustea ez da zaila.

Lumak ere hasi zaizkie ateratzen; izan ere, "batere ile barik jaio ziren", eta esan bezala, eguaztenerako, gero luma izango diren iletxo gutxi batzuk zituzten. Begiek, oraindik, ez dute gero izango duten itxurarik hartu. Itxi-itxita dituzte, baina ez dute inguruan gertatzen denaren detailerik galtzen: "Ondo dakite noiz gerturatzen garen, nahiz eta isili-isilik eta errespetu osoz egiten saiatzen garen".



San Lorentzoko behe-barru baten jaio diren lau zozokumeak . M.A

Zozo emea eta arra janariarekin gerturatzen direnean ahal bezala altxatzen dute burua, janari bila. "Burua nola altxatzen duten ikustea polita da. Nola zabaltzen duten moko txikia janari bila!", gehitu du Eizagirrek.

### Zozoaren joan-etorriak

Egunaren zati handia pasatzen dute edo zozo emeak edo zozo arrak, kumeak zaintzen, habian: "Ez da zaila habian ikustea. Eguneko zati handiena pasatzen dute hemen, eta gainontzean, janari bila ibiltzen dira". Hain zuzen ere, zozoak mokoan ekartzen die jana txikiei: zizareak, xomorroak, eta abar: "Mokoan ekartzen diete jana eta txiki-txiki eginda ematen diete".

### Ondo zaindutako habia

Seguru asko, auzo bateko atarte bateko loreontzian habia egitea, pertsonen joan-etorritik gertu, ez da hegazti batek arrautzak erruteko tokirik seguruena izango. Unerik delikatuena pasatu da, ordea. Izan ere, arrautzak errun ondoren, jaio arteko hemezortzi egunak dira benetan errespetatu eta ondo zaindu beharrekoak. "Etxeko bizilagun guztiok egon gara adi arrautzekin zer gertatuko ote zen. Batek taula bat ipini zuen leihoan, zozoak arrautzak berotzen zeuden bitartean behe-barruko joan etorritik ahalik eta gehien babesteko", eman du aditzera Eizagirrek.

Oraingo fasea, alegia, jaio ondorengoa, ez da hain delikatua izaten, salbuespenezko egoera batengatik ez bada, behintzat, zozo arrak eta emeak ez baitituzte orain kumeak abandonatuko: "Ni ziur nago aurrera aterako direla", dio pozik Eizagirrek. Hala ere, habian egingo duten datozen asteetan, jaio berriak bake-bakean uztea garrantzitsua izango da. Hiru bat aste egingo dute habian kumeek; eta hain zuzen ere denbora hori da gurasoekin emango dutena. Gero, kumeak sakabanatu egingo dira eta bakoitzak bere bizimoduari ekingo dio.


GALDEGAZTE

GOIENA TELEBISTA

EGUAZTENA, MARTXOAREN 15EAN, 21:30EAN

GONBIDATUA MIREN AMURIZA

goiena ZU HEMEN ZAUDE

